

aurkibidea

| | |
|------------------------------|---|
| <i>Zenbaki honetan</i> | 3 |
|------------------------------|---|

Iraultza Frantsesa (1789-1989)

| | |
|--|----|
| ARIZTONDO, S.: 1789ko Iraultza, garaiko testuinguru historikoan..... | 7 |
| GOÑI GALARRAGA, J.M.: Frantziako Iraultzaren ideologiak | 17 |
| LOPEZ, ADAN, E.: Iraultza eta Hexagonoko nazio ukatuak | 33 |
| GOIHENETXE, M.: Frantziako Iraultza eta Euskal Herria | 55 |
| INTXAUSTI, J.: Iraultzaren hizkuntz politika | 69 |

Gaiak

| | |
|---|----|
| ROJO COBOS, J.: Mendekuaren literatura: Sadeko Markesaren <i>Justina</i> .. | 89 |
|---|----|

Liburuak

| | |
|-------------------|-----|
| Jaso ditugu | 101 |
|-------------------|-----|

© JAKIN

JAKINek idazlanez
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

Zuzendaria

joan mari torrealdei

Idazkaritza eta administrazioa

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk.
20013 Donostia. Tel. (943) 27 17 13

1989ko prezioak

| barruan | | kanpoan | |
|---------------------------|----------------|---------------------|-----------------------|
| harpideduna | ez-harpideduna | harpideduna | ez-harpideduna |
| harpidetza ...3.000 pta. | — | 3.500 pta. (175 FF) | — |
| ale arrunta500 pta. |800 pta. | 600 pta. (30 FF) | 900 pta. (45 FF) |

Jabegoa: Anaidia. Arantzazu. Lege-gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211-495X.

Fotokonposaketa: Onena. Lasarte. Inprimaketa: Lizarra. Lizarra.

Eskuetan duzun hau, bigarren aldiko 51. zenbakia da eta 1989ko bigarrena.

Bigarren mendeurrena ospatzean Iraultza Frantsesari eskaintzen diogu aldizkariaren ale hau. Komunikabideetako oroit ospakuntzetan eta intelektuaren argitalpenetan urte osoan, etenik gabe, jario bizian emango zaigu gertakari historiko haren berri. Besteak beste, Iraultzaren ondarea jaso duen Estatu oso baten makineria da ospakuntza honen eragile nagusia: Errepublika Frantsesa. Guk ere, gure apalean, begiratu bat eman nahi izan diogu 1789-1799. etako hamarkada hari. Kolore ezberdin eta kontrajarritako gertakari, korrante eta pertsonaiak izan zituen Iraultza hark, eta, guztiei ez bada ere, nagusitxoenei bederen Euskal Herriatik ere so egin nahi izan diegu hemen.

Joseba Intxausti-ren ardurapean prestatu diren orrialde hauetan, bost lanetan banatu dugu gure txostena: garaiko testuinguru historikoa deskribatzen du lehenik S. Ariztondo-k; Iraultzaren barnean edo berau aztertuz agertzen zaizkigun ideologiak gogoratzen dira ondoren J.M. Goñi Galarragaren lanean; beste bi artikulutan, E. López Adan-ek eta M. Goihenetxe-k Hexagonoko herriez eta Euskal Herriaz dihardute, eta, azkenik, hizkuntz politikaz hitz egiten da.

XVII. mendeko Ingalaterran hasita, munduan ezagutu diren Iraultza handien artean (EE.BB., Latin Amerika, Errusia, Txina, XX.eko deskolonizazioak), Frantziako Iraultzak (1789) leku jakina eta ongi ezaugarritatua izan du. Alde askotatik, Mendebaldeko historiari aro berria ireki ziola esan ohi da. Frantziarentzat —edo bertako Nazio-Estatuan mamituen gizarte errepublikararentzat— sinbolo itzalezin bilakatu da aspaldidanik. Bestalde, Euskal Herria ere Iraultza-olatuen tartean aurkitu zen, Iparraldean ezezik, baita Hegoaldean ere. Bego hemen euskal kezketatik egindako irakurbide hau.

Gaiak sailean J. Rojo Cobos-en lan bat ematen da; Sade-ko Markesaren Justina aztertzen du autoreak.

Beti bezala, Liburuak sailean, aurreko asteetan jasotako liburuen fitxa bibliografikoa eskaintzen dugu, horrela zenbaki hau osatuz.



Salbador Ariztondo
Joseba M. Goñi Galarraga
Emilio Lopez Adan
Manex Goihenetxe
Joseba Intxausti

IRAULTZA FRANTSESA

1789ko Iraultza, garaiko testuinguru historikoa

Iraultzaren kausak. Gertakarien haria. Nazioarteko iraultza-giroa eta elkarrenganako oihartzunak. Iraultza Frantsesaren ezaugarri nagusienak.

Frantziako Iraultzaren ideologiak

Iraultzan eta ondoko beronekiko historiografian agertu izan diren ideologiak: ideologia kontrairaultzailea, liberala, sozialista eta marxista. Gaur eguneko analisi berriak.

Iraultza eta Hexagonoko nazio ukatuak

Iraultza Handiaren mito aurrerakoiak. Zentralismoa eta identitate nazionala. Hexagonoko herriak eta iraultza. Altsazia, Korsika, Okzitania eta Euskal Herria.

Frantziako Iraultza eta Euskal Herria

Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea Iraultzaren aurrean. Asanblada Nazionala eta Batzar Legegilea: Euskal Herriaren nortasuna arriskutan. Lurralde-antolamendua, gerra eta desterruak. Zenbait ikerkizun.

Iraultzaren hizkuntz politika

Erregimen Zaharra eta Iraultza hizkuntzen aurrean. Hexagonoko egoera demolinguistikoa. Hizkuntz politikaren epealdiak eta proposamen politiko ezberdinak. Grégoire Abadearen txostena.

1789ko Iraultza, garaiko testuinguru historikoan

Salbador Ariztondo

Iraultzaren kausak eta gertakariak

LABROUSSEren ikerketen arabera, 1770ean hasitako krisialdi txikiak, 1788-1789.eko krisi ekonomiko handian iritsi ziren beren gailurrera. Salneurrien igoera nabarmenak (garia %150a, zekalea %160a), lehorte eta uzta txarren abaguneak, aurreko mendetako krisialdiak gainditu zituen demografia indartsuak eta garau gabeziaren garaiaren beren salmente liberalizatzen zuen politika fisiokratik bat egin zuten, bizitzaren kostea %88ra igo eta soldata erreala %25era jaits zitezten. Testuinguru horretan, (herri xehegoaren ogi kontsumoak famili errenten %80a suposatzen zuen, bestalde).

Egoera hura gainditzeko, nekazalgoak ardoaren superproduktziora joko zukeen, baina emaitzak okerrar izan ziren: ardoaren salneurriaren jaitsiera, eta lazeria nonahi, izan ziren ondorioak.

Frantziak krisi finantzari kronikoa ezagutu zuen, gainera, Estatu Batuetako (EE.BB.) Independentzi gerratearekin larriagotuko

zena. Hobsbawmen eritziz, guda hau Iraultzaren sorburu hurbila eta gizarte maila frantsesen atsekabearen biltzaile izan zen.

Industria eta merkataritza ere kinka larrian zeuden. Frantziako industria, ingelesa baino hogeit bat urte atzeratuago zeterren, eta garaiko politika ekonomikoak haren aurka jokatu zuen (tratatu Franko-Ingelesa, 1766), elkartruke librea bultzatuz; honek industriarik konpetitiboenari, ingelesari, lagundu zion, industria frantsesa hondatuz. 1787an, Frantziako merkatal balantzak 69 milioi liberatuko defizita ezagutu zuen.

Egoera larri honek Despotismo Ilustratuaren aurkako jokabide aristokratikoa, "philosophes" delakoek teorizatutako burgesiaren bultzada iraultzailea eta herri xehegoa langabezi, eskaletasun eta mausaritzara eramango zituen iraupen krisira bultzatu zituen.

Krisialdia gainditzeko ahalegin guztiek (Turgot, Necker, Calonne, Brienne) aristokraziaren aurkakotasunarekin topo egin zuten, zeren honen zerga-pribilegioak ukitzen bait zituzten haiek.

E. Schmitti jarraikiz, Iraultzaren aldiak honela bereiz litezke:

Aldi aurre-iraultzailea (1787-1788)

Nobleziak Estatu Nagusietarako (1789/5/1) deia egitea behartu zuen gobernu; burgesiak kontrolatzen zuen Hirugarren Estatuak, ordea, ordezkariatasun handiagoa eskatuko zukeen. "Cahiers de Doléances" delakoetan lurraldeetako biltzarrak Konstituzioaren eta zergak Estatu Nagusien eskuetan uztearen alde agertu ziren. Burgesiak, urrutiago joan nahirik, herri burujabetasuna, berdintasun soziala, jaurgio eskubideen kentzea eta merkatal askatasuna aldarrikatu zituen, eta Hirugarren Estatuak, bere kabuz, Biltzar edo Asamblada Naziol bihurtu (Pilota Jokoko Zinitza, 1789/6/20). Giro iraultzailea nonahi zabaldu zen, Biltzar Naziolak bere burua Konstituziogile bihurtzean, erregearen presio militarra gauzatu zen aurpegi eman behar izan zitzaion. Pariseko herriak, armadaren atal batekin, Bastillako gartzela hartu zuen (1789/7/14).

Iraultza burgesa: Askatasunaren iraultza (1789-1792)

Istiluak nekazal mundura zabaldu ziren, nekazariak jaurgio-ondareak eraso eta Beldur Handiaren aldiari eman zioten hasiera. Berehala onartu ziren lehenengo lege iraultzaileak: feudalismoaren

legezko abolizioaren onarpena (1789/8/4), hamarrenen ezabatzea eta 1789ko abuztuaren 26an Giza Eskubideen Aitorpenaren aldarrikapena. Urte berean, elizaren ondarearen nazionalizazioa eta Frantziaren lurralde antolaketa berria onartuak izan ziren. Aldi honetan boterean zegoen burgesia muturreko "sans-culottes" delakoan kentzea, apezgoaren konstituzio zibila) eta aristokraziaren (Chapelier legea, zeinetan eskubide gabeko hiritarrak Goardia Nazionaletik at gelditzea onartu bait zen) artean zibukatzen zen. Mugimendu iraultzailean joerak taldekatzen hasi ziren (klubak garapena), eta erregea eta bere familia, ihesaldi baten ondoren, atxilotuak izan ziren. 1971ko uztailaren 3ko Konstituzioaren bitartez, Monarkia Konstituzionala ezarri zuten iraultzaileek Frantzian.

Laster heldu zen atzerritarren erantzuna, Prusiak eta Austriak Pillnitz-eko Tratatuan (1791/8/27) Luis XVI.a erregearen alde parte hartzea onartu zuten. Beldur ziren Europako Monarkiak ideia iraultzaileak ez ote ziren beste herrietara ere zabalduko. Ireki berria zen Biltzar Legegileak (1791/10/1), bere barruan eritzi desberdinak egon arren, "Bohemia eta Hungariako erregeari" gerra deklaratu zion. Hasierako porrot militarrekin batera erregearen konspirazioa ezagutu zen; erregea kargutik kendu eta Biltzarrak Konbentzioa deitura eraman zuen. Bilakaera iraultzailea gero eta erradikalagoa azaldu zen: gizonezkoen sufragio unibertsala, aldarrikatu eta iraultzaren arma gisa Izua ezarri zuen. Valmy-ko guduan izandako garaipenaren ondoren, Frantziak izan zuen iniziatiba gudalekuetan, eta monarkia kendu ondoren (1792/9/21), Iraultzaren I. urteari eman zitzaion hasiera.

Iraultza Demokratikoa: Berdintasunaren Iraultza (1792-1794)

Konbentzioa hiru taldetan banatu zen: girondarrak salbuespen- neurrien aurkako eta askatasun ekonomikoaren aldeko burgesak; Mendia, berauen artean jakobindarrak, gobernu gogor baten aldekoak; hauek, publikoa pribatuaren aurrean defendatzen zuten burgesia txiki eta erdimailakoa eta herritar xeheak ziren, eta Landa, aurreko bien artean zibukatzen zen taldea.

1793ko urtarrilaren 21ean, Luis XVI.a erregea hil egin zuen Konbentzioak. Frantziak bere hedatzeari ekin zion Europan zehar (muga naturalen bila), iraultza ekumeniko honen aurrean Europako Estatuak bildu egin ziren. Frantzian giroa gatazka bizitan lehertu zen: alde batetik, Vendée-tar asaldatuak altxamendua men-

debaldean, eta muturrekoen nagusitasuna Pariseko kaleetan (*sans-culottes*).

Egoera honetan, jakobindarrek Konbentzioaren kontrola hartu eta erakunde horren eginkizunak talde-erakunde bitara bildu zituzten: Osasun Publikorako Komitea eta Seguritate Orokorreko Komitea. Berauen bidez Diktadura Demokratikoa ezarri zuten: 1793ko Konstituzioa. Baina talde moderatuak ez ziren geldirik egon (federalisten altxamenduak Lyon, Bordele, Britainia...), eta iraultzailerik sutsuenak ere istilurik sortu zuten. Izualdi bortitza ezarri zuen Osasun Publikorako Komiteak; bertatik Robespierre, Marat eta Saint Just-ek girondarrak, jakobindar moderatuak (Danton) zein muturreko iraultzailerik sutsuenak (Roux, Herbert) gilotinan hiltzea agindu zuten. Izualdiaren ondorioz, herri xegegoak jakobindarrei bere laguntasuna ukatu egien zien; une hori moderatuek boterea bereganatzeko probetxatu zuten (Konbentzio termidordarra: 1794/7/27). Buruzagi jakobindarrak gilotinara eraman zituzten.

Errepublikak burgesa: Berrezarpen burgesa (1794-1799)

Talde moderatuek beraien politika eta printzipioak ezarri zituzten aldi honetan: Konstituzio berria (1795/8/22), sufragio mugatua (zentsitaria) eta botere banaketa. Gobernua, botere betetazalea, bost kidek osatutako erakunde batetan ezarria izan zen: Direktorioa. Garai honetan izan zen ere istilu eta altxamendurik: muturreko taldeen aldetik "Berdinen Matxinada" (Babeuf buruzagi), eta erregezaleen asaldaketa. Biak izan ziren zapalduak, baina gobernua ahultzea lortu zuten. Ahulezia horrek erraztu zituen hurrengo pausoak; Brumarioaren 19ko (1799/11/19) kolpeaz, Napoleonek Bonaparte jenerala ezarri zuen goi-burgesiak, Kontsulatuaren garaiari hasiera emanez, lehenik eta Inperioa eraikiz gero. Frantziak, Napoleonen gidaritzapean eta burgesia kontserbadorearen bapesean eman zituen ondoko urteak (1799-1815).

Nazioarteko testuinguru iraultzailea

Iraultzaren barne-gertakari hauek, ordea, ez ziren zerbait isolatua eta bakarra. Izan ere, 1770-1825etako urteetan nazioartean testuinguru iraultzaile bat suma zitekeen. Ikus dezagun honetaz zerbait.

Garai iraultzaile hau Ipar Amerikako kolonia britaniarrek hasi zuten. Kolonietako gizarte-maila agintariak (burgesia eta plantazioetako lurjabeak) gatazka gogorren bizi ziren metropoliarekin: Koloniek, Frantziarekin izandako arma-garaipenetik ez zuten deus ere berenganatu; are gehiago, zerga presioa gehitu, merkatal monopolioa berrindatu eta kolonietako botere politikoetatik baztertu egin zituen metropoliak, eta jakina, ezinegona laster lehertu zen. Produktu ingelesei boikota izan zen lehen neurria, eta altxamendurako pausoak ematea hurrengoa. Lehenengo Kongresu Kontinentala (1774) eta 1775ean hasitako Independentzi Gerra ildo horretatik zihoazen. 1776an Virginiako Eskubide-Aitorpena sinatu zen, eta geroxeago Independentziarena. Botere banaketan, elkartruke librearen ekonomian eta amerikarren eskubide-berdintasunean oinarritu zen antolamendu politiko berria.

Iraultza honek, lehenengoa izanik, eragin zabala izan zuen. Independentzia amerikararen gerratean Frantziak, Espainiak eta Probintzia Batuek (Holandak) hartu zuten parte; amerikarren alde joan ziren hauek, baina ez gerrate hartako ideiek kutsatu gabe.

Ingalaterran, Ipar Amerikako porrotaren ondoren, irlandarrak katolikoek eskubideak defendatuz eta Parlamentu ordezkari bat eskatuz altxatu ziren. Bestalde, talde ingeles aurrerakoiak sufragio unibertsala, bozketa sekretua... defendatu zituzten.

Probintzia Batuetan, Belgikan eta Liejako apezpiku-herrian gertaturiko aldaketak boteretik bideratu ziren; baina burgesiak eta talde herrikoiek agertutako erradikaltasunak, soldatu frantsesak iritsi arte atzeratu ziren (Holandako Errepublika batabiarra, 1795).

Suitzako bilakaera iraultzailea Frantziako baino goiztiarragoa izan arren, antzerako ezaugarriak izan zituen. Baztertutako burgesia, salneurrien igoera, J. C. Rousseau-ren eragina, burgesia eta talde herrikoien arteko elkarlana: dena metatu zen iraultza pizteko. Nahiz eta Suitzan ere iraultza bentzutua izan, 1798an frantses armada iritsi zenean, Errepublika Helbetiarra ezarria izan zen.

Halaber, Europako Ipar eta Ertialdean ere aldakuntzen aldeko ekintzak ezagutu ziren zenbait herrialdetan. Suedia, Polonia, Austria eta Hungarian, boterean zegoen Despotismo Ilustratuak hasierako bultzada eman arren, Holanda zein Belgikan gertatu zenaren arabera, aldakuntza sakonagoen gosea baino ez zuen sorterazi, eta Suedian ezik, non Konstituzioa eman ondoren aristokraziak ez bait zuen ahalmenik izan aldakuntzak ezabatzeke, beste lurraldeetako subiranoek indar militarra erabiliz oztopatu zituzten bilakaeira iraultzaileak.

Europako Hegoaldean eta herrialde balkandarretan Frantziako Iraultzaren eraginak nabariak izan ziren. Penintsula Italiarrean, Hegoaldean zein Iparraldean, tankera frantseseko klub, talde sekretu eta elkarrizketak zabaldu ziren. Mugimendu hauek laster izan ziren zapalduak, eta Ipar Europan gertatu zen bezala, Italian ere armada frantsesak gauzatu zuen lurralde honen frantseseta, errepublika berriak eraikiz. Balkanetan, aldiz, herri desberdinak (serbiarra, kroata, albaniarra, bulgariarra, greziarra) turkiarren menpean zeuden. Greziako ipazterean, iraultza frantsesaren ideiak bereganatu eta merkatal burgesiak mugimendu iraultzaile eta abertzalea oratu zuen.

Espainia Europa barruan izan arren, errealitate berezia zen, eta berezitasun hori Hego eta Ertamerikan zituen koloniak ematen zioten. Espainiako bilakaera iraultzailea ulertzeko, derrigorrezkoa dugu Iraultza frantsesa aipatzea. Penintsula iberiarrean hasierako eragin iraultzaileak gizarte- bakanetan ikus zitezkeen (frantses- tuak), baina Independentzi Gerrateak eta izpazterreko merkatal burgesiak Erregimen Zaharraren iraupena zalantzan jartzea ekarri zuten. Cadizeko Konstituzioa (1812) horren ondorio izan zen, eta Fernando VII.aren berrezarpen absolutistak, bilakaera iraultzailea moztu arren, Hirurteko Liberalarekin (1820-1823) esperientzia iraultzailea berriz ere praktikan jarri zen.

Egoera aldakor honek zerikusi nabaria izan zuen Amerikako kolonia espainiarrek segitu zuten bidean. Korrupzioak, gobernue- zak, ingeles merkatal setioak burgesia eta lurjabe handien ezine- gona sustatu zuten. Kolonietako gizarte-maila nagusi hauek me- tropoliaren merkatal monopolioaren, kargu eta sarien politikaren aurka zeuden. Halaber, talde sozial iraultzaileak izango zirenek Ipar Amerikak independentziaren aldeko borrokan izan zuen arrakasta ezaguna zuten; bestalde, gehienek, mugimendu eta ideia europar iraultzaileak hartu zituzten, hemen heziak bait ziren. Mi- randa, Bolibar, San Martín, Artigas eta abar luze batek, iraultza europarren eraginez, iraultza eta abertzaletasuna bildu eta hainbat kolonia askatu zituzten. Krioloen neurria egokitutako sistemak eraiki ziren, Independentziaren ondoren. Indiarrak guztiz bazter- turik gelditu ziren antolamendu politiko berrian. Lehenago ere hauen altxamenduak bortxaz itoak izan ziren: Tupac Amaru-ren matxinada, adibidez, 1780an, krioloen eskuz zapaldua.

Frantziako Iraultzaren berezitasunak

M. Kossokek, Hobsbawm-en liburuan, iraultza modernoek konparaketarako ezartzen dituen erizpideak kontutan hartuz (kausak, xedeak, indar bultzagileak, botere eta hegemoniaren arazoak, talde herrikoen papera, borrokarako metodo eta joerak, emaitzak eta ondorioak, toki historikoa eta berezitasunak eta garaiaren izaera), iraultza gehienetan ezaugarri guztiak ez direla agertzen frogatzen du. Horregatik, fenomeno iraultzaileak Iraultza Frantsesaren eredu hutsarekin alderatzeak, edo iraultza burges guztientzat baliokidea izan daitekeen ingeles eredu soilik erabiltzeak, edo nahiago bada iraultza ipar-amerikarra ispilu bakartzat hartzeak, horietako edozein iraultza modernoek historiaren ardatz bihurtuz, ez luke izango inolako zentzunik.

XVI eta XVII. mendeetako iraultza holandarra eta ingelesa, iraultza burges goiztiarren aroan sar ditzakegu; batak, holandarrek, erregimen konstituzionala eta askatasun burgesak ezarri zituen, burgesia, noblezia eta subiranoaren (statuder) hirukiaren babespean; besteak, ingelesak, monarkia absolutuaren ordez gobernu ordezkaria, ez-demokratikoa, kapitalismoaren haziak eta burgesiari aristokrazia lurjabearekin batera kontrolpetutako Parlamentua eskaini zituen, ingelesen arteko eskubide-berdintasunaren onarpena sistemaren zutabe bihurtuz (Locke, J. (1689): *Two Treatises on Government*).

EE.BB.etakoari buruz, argi dago honen ezaugarri enpirista. Eskubide-Aitorpenean beltzak, adibidez, ez dira aipatu ere egiten, sufragioa mugatua da (zentsitaria, hots, irabazi edo ondasunen arabera finkatua), eta, lehen aipatu dudanez, handikien nahi eta interesen gain eraikitako sistema da.

1789ko Iraultzaren ezaugarriak guztiz bereziak izan ziren. Urte honen inguruan, bost europarretatik ia bat frantsesa zen. Gode-choti jarraikiz, Ingalaterra ez zen Frantziaren populazioaren erdira heltzen. Estatu frantsesaren urteko errentak ia 500.000 milioi liberatara iristen ziren, "philosophes" delako gehienek frantsez idazten zuten eta frantsesa zen garaiko hizkuntzarik unibertsalena.

Gizartearen ikuspegitik, frantses burgesiari inongoak baino indar eta gurari handiagoa zuen boterea eskuratzeko; aristokraziari aldiz, bere pribilegioei eta botereari eutsi nahi zien, eta nekazalgoak pribilegio horiek ezabatu eta bizitza duina izan. Erregea, hasie-

ran erreformazale agertu bazen ere, beregan botere gehiago bildu nahiz, Iraultza bideratzen zihoan neurrian gertakariak gainditu egin zuten.

Honela mamitu zen Iraultza Frantsesaren ezaugarriak berezietarikoak, burgesia eta nekazalgoaren koalizioa, erradikalismo iraultzailea (1792-1794). Horregatik ez da harritzekoa, ipar-amerikar eta ingeles iraultzaileek Frantziara migratu zutenean beren burua moderatutzat hartzea, maiz girondarrekin identifikatuz.

Iraultza moderno desberdinek, ipar-amerikarrak batipat, ukazinezko eragina izan zuten, baina Iraultza Frantsesaren ideiez eta armez zabaldutako iraultza bezala ekumeniko izatera ez ziren iritsi.

Soboulen eritziz bere klase-borrokaren izaera dramatikoagatik, Iraultza Frantsesa iraultza burgesetatik hots handikoena izan zen. Historilari honek jakobindarren lana gorensten du, zeren haien eskutan feudalismotik kapitalismorako iraganbidea iraultzaile izan bait zen. Gero bereiziko ziren ideiak, Diktadura jakobindarrak gauza bat bera bezala bideratu zituen: kontzientzi askatasuna, esklabutzaren abolizioa, gizonezkoen sufragio unibertsala, denentzako irakaskuntza publikoa unitarismoaren eta zentralismoaren ildotik nazioaren batasuna, eta banaezinak ziren askatasun politikoa eta berdintasun soziala.

Baina oztopoak handiak izan ziren, zutik irauten zuen aristokraziarengandik eta erradikalismoaren aurkako joera zuen goiburgesiarengandik sortuta. Biak elkartuko ziren, 1830. urtearen ondoren, sistema konstituzionala, burgesa eta kontserbadorea ezarri ahal izateko.

Iraultza Frantsesaren edukin batzuk XIX eta XX. mendeetako ideologia eta bilakaera iraultzaileetan sumatzen ditugu. Marx eta Engels-en "Manifestu Komunista"n, Errusiako 1905ekoan eta 1917ko Urriaren Babef-en planteamendu iraultzaileak, gizarte-mailen arteko koalizio iraultzaileak, aldi moderatu eta iraultzaileak, iraultzaren ekumenismoa ikus ditzakegu.

Iraganaren eta etorkizunaren argitan

Jakina denez, historiaren ikuspegia historia errearen eta bizi ditugun esperientzien eraginez aldatzen da. XX. mende honen

azken hamarkadan sartzeaz gaudela, bigarren mendeurren hau ospatzen, Iraultza Frantsesean biziki eztabaidatu zen berdintasunaren arazoaz zenbait gogoeta bururatzen zaizkit. Beharbada hiritarren berdintasuna eta nazioen arteko berdintasuna gaur egun dugun arazorik larrienetarikoa da. Iraultza Frantsesak eskubide berdintasunaren arazolari eman zizkion irtenbideengatik, leku berezia du historia garaikidean. Berdintasun teorikoa ala benetako berdintasuna? Iraultza Frantsesak hiru bide ireki zizkion etorkizunari Verginaud-en (1793/3/13) "gizaki sozialarentzat berdintasun bakarra eskubideena da" esanari, Lepeletier-ek (1793/8/20) "gozamenen desberdintasuna desagertarazi" beharra azpimarratuz erantzun zion. 1795ean Babeuf-ek, aldiz, "ondasunen eta lanen komunazgoa" eskatu zuen, azken finean "berdintasun osoa"ren bidea eskainiko zukeen muturreko egitasmoak bere eginez. Iraultza Frantsesak alternatiba horiekin mundu garaikidearen historiak jorratuko dituen hiru bidea irekirik utzi zituen.

E. Labrousse-ekin, II. urte iraultzaileari buruz, zera galde dezakegu: "aintzinenpenen garaia" izan ote zen hura, ala utopia hitzak deskribatuko ote luke hobeto garai hartan gertatua? Dena den, Iraultza Frantsesa mundu Garaikideko nazioek ezagutu dituzten joera politikoa eta sozialen bidegurutzean aurkitu da. Frantziako Iraultzan garatu zen iraultza burges klasikoak, feudalismoaren ordezkari kapitalismoaren eta sistema liberal ordezkaria eraikitzen lagundu zuen. Frantziako Iraultzan gorpuztu zen nekazal eta Iraultza herrikoiak, ordea, muga burgesak gainditu eta ordena sozial berria eraikitzeko ahaleginak egin eta XIX eta XX. mendeetako iraultza aurrerakoi askoren sorrera eta edukinak azaltzen ditu.

GODECHOT, J. (1977): *Las Revoluciones (1770-1799)*. Barcelona.

HOBBSAWM, E. J. (1976): *Las Revoluciones burguesas*. Madrid.

LABROUSSE, E. (1980): *Fluctuaciones económicas e historia social*. Madrid.

LEFEVBRE, G. (1981): *1789: Revolución Francesa*. Barcelona.

SCHMITT, E. (1980): *Introducción a la Historia de la Revolución Francesa*. Madrid.

SOBOUL, A. (1975): *Compendio de la Historia de la Revolución Francesa*. Madrid.

— — (1983): *Comprender la Revolución Francesa*. Barcelona.

LA REVOLUCION DE 1789, EN SU CONTEXTO HISTORICO

LA RÉVOLUTION DE 1789, DANS SON CONTEXTE HISTORIQUE

El artículo comienza exponiendo las causas de los sucesos revolucionarios y la concatenación en que se desarrollaron. La crisis económica debida a múltiples causas, el malestar social derivado de la carestía reinante, la crisis de la Hacienda Real, la inadecuación de una sociedad estamental al reto de los tiempos, etc.: todo contribuyó a desencadenar la Revolución.

Los hechos se desmadejaron en sucesivos capítulos: a) La fase pre-revolucionaria, b) La revolución burguesa que luchaba por sus libertades políticas en busca de un cuadro institucional nuevo, c) La lucha por la revolución democrática que debería significar la revolución de la igualdad, d) El afianzamiento de la República burguesa.

Todo este proceso de acontecimientos revolucionarios es considerado, en el artículo, en el contexto revolucionario internacional que arranca desde los años precedentes y alcanza hasta las fechas de las independencias latinoamericanas (1770-1825). Europa y el Nuevo Mundo fueron los escenarios de estas alteraciones.

El autor cierra este capítulo introductorio con la descripción de las principales características de la Revolución francesa, siguiendo las observaciones de la historiografía moderna (Kossok, Godechot, Soboul). El trabajo termina con una breve reflexión a la luz del pasado y del futuro.

L'article débute par l'exposé des causes des événements révolutionnaires et l'enchaînement de leur déroulement. La crise économique due à de multiples causes, le malaise social provenant de la cherté de vie régnante, la crise des finances royales, une société inadaptée et anachronique divisée en ordres ont contribué à déclencher la Révolution.

Les faits sont relatés dans les chapitres suivants: a) la phase pré-révolutionnaire; b) la révolution bourgeoise qui lutte pour ses libertés politiques dans un cadre institutionnel nouveau; c) la lutte pour la révolution démocratique qui devrait signifier la révolution de l'égalité; d) la consolidation d'une République bourgeoise.

Tout ce processus d'événements révolutionnaires est respecté dans le contexte international qui découle des années précédentes et atteint les dates des indépendances latino-américaines (1770-1825). L'Europe et le Nouveau Monde ont été les scènes de ces troubles.

L'auteur termine ce chapitre d'introduction par la description des principales caractéristiques de la Révolution Française en suivant les observations de l'historiographie moderne (Kossok, Godechot, Soboul). Cet essai se termine par une brève réflexion à la lumière du passé et du futur.

Frantziako Iraultzaren ideologiak

Joseba M. Goñi Galarraga

JAKINen zuzendaritzak Iraultza Frantsesean Hexagono oso-ko etorkizunean eragina izan zuten politika egitasmo eta ideologi-
en laburpen motz bat egiteko eskatu dit. Galderari erantzuna
ematen diodalakoan nago, berorren panoramika ingurune geogra-
fiko zabalago batetara eraman eta 1798-1799ko Iraultzak ondorengo
Europar edota munduko historian ukan dituen eraginak zein-
tzuk izan diren erakustean; izan ere, hamarkada horretan abiada
bizian gertaturikoen oihartzuna —Napoleonek ondorengo hama-
bost urte luzetan zehar eraikitako nagusitza militarra ahaztu gabe,
noski— gaurko munduan ere indarrean dago.

Iraultza orok berekin dakarren ondorengo garaietarako eredu-
garritasunaz at (positiboa nahiz negatiboa izan berori), Frantziako
Iraultza, eztabaida ideologikoen iturri agortezin eta oparoa izan
dugu, edo beste era batean esanda: 1789az geroztikako ideologia
eta politika egitasmoak haren itxurara egin dira, eta, alde honeta-
tik, ideologi lehentasunek honako gertakizun honen interpretazio-
an beste edozeinetan baino eragin handiagoa izan dute.

Iraultzaren oroimen historikoa kontutan hartuz, badira histo-
rilariek azpimarratu dituzten bi alde kontrajarri, zinez esankorrak:

1) XIX. mendean gertaturiko iraultza guztiek, eta baita XX.e-ko batzuek ere, Frantziakoan bilatu dute eredu, eta ez iraultza amerikarrean (nahiz eta, jakin badakigun bezala, Ipar Amerikakoa kronologiaz lehenagokoa izan), eta hartan, eta ez honetan, bilatu gura izan dute norberaren jatorria. Honela, 1830eko iraultza liberalak, 1789ko iraultzaren "revival" bat izan asmo zuen; 1848ko zenbait iraultza liberalek eta 1848ko otsaileko iraultza "sozializante" paristarrak ez zuen beste asmorik; beste hainbeste gertatzen da 1871ko Pariseko Komunarekin, eta Errusian 1905eko eta 1917ko boltxebikeek, eta Lenin-ek bereziki, ukan zuten jarrerarekin ere.

2) Azaleko ahobatezko erreferentzia amankomun honek pentsaraziko ligukeenaren aurka, Frantziako Iraultzaren esangura historiko eta politikoa oso modu ezberdinez ulertu dute, bai batzuek eta bai bestiek. Honela, bakoitzak gehien komeni zitzaiona bilatu du frantziar gertaera korapilatsu, nahasi eta nabar honetan. Norbait aukera politikoen arabera hautatu izan dituzte gertaerak, bakoitzaren ideologiarekin, gizarte egitasmo eta abarrekin hobeto uztar zitezkeen pertsonai, gertakari, ekintza politiko eta eritziei lehenatasuna eta nagusitasuna emanez interpretazioan.

Horrela, garaiko gizarte- nahiz politika-egitasmo bakoitzak Frantziako Iraultza bere alde eduki asmo izan du (hauxe bera esan behar Absolutismoari dagokionez, izan ere Absolutismoarentzat iraultza gaitz ororen zioa izan arren era berean azken esplikazioa denez gero, jarrera hau ere azken finean gauza bera bait da). Baina iraultza aztertzailearen nortasun politikoaren araberrako xedearren menpe jartzen da interpretazioa, Iraultza "batasun itxi" bat legez ulertzen delarik, hots prozedura bakar eta bakun legez. Aukeratu ikuspegiari jarraiki, eskuindar nahiz ezkertiar, burges edo sozialista, atzerakoi edo iraultzaile, eliztiar edo Elizaren aurkako, bakoitzak bere ikuspuntutik begiratu du. Interpretazio bakoitza, jendea bereganatu nahirik, aitorten politiko bilakatu izan da, eta azkenean politika-joera handi bakoitzak izan du horretaz bere interpretazio-eskolaren bat.

Badakigu ongi asko nola iritsi garen puntu honetaraino: XIX. mendean buruzagi politikoez, iraultzaren doktrinazaleek, filosofoek, legegizonek eta abarrek ezin izan zioten "Iraultzari buruzko gogoeta" bat egiteari uko egin, eta Frantziako Iraultzaren historiariek berek ere beren lanak militantzia politiko baten barnean idatzi zituzten. Ondorioz, interpretazio historikoa, ideologia politikorekin edo historilari bakoitzaren politika egitasmoarekin hertsiki lotuta geratu izan da.

Baina, bestalde, on deritzagu iraultzaren historiografiaren gaur egungo egoera behar bezala ulertu ahal izateko, arestian aipatu jarrekek, mesfidantza eta Iraultzarekiko urruntze bat sortarazi duela esateari, Iraultza bera hainbeste ikaskizun kontrajarri ateratzeko harrobia izan denez, gaur egungo gizartearen mito liluragarri bezala ageri da. Azken ehun urte hauetan, Unibertsitate mailan ere, gaiaren trataeran azterkizun berri bezain erakargarriak ireki diren arren, ez da gertakaria hotsasun osoz begiratzerik lortu, eta ez jakin, bigarren mendeurren honetan ere, Frantziako Iraultza hura gertaera historiko bezala soilik begiratu ahal izango dugun; jadanik gertatu, amaitu eta sailkatutako zerbait legez ulertzea ahalbide-tuko lukeen objektibizazioa eskuratzeko saioek nekez lortzen dute beren xedea, nonbait.

Aurten bertan egin den azken saio entzutetsuak, Furet-en lanarenak alegia¹, beste ikuspegi bat lortzea zuen helburutzat. Hain zabaldua dagoen Iraultzaren interpretazio ekonomikoaren nahiz sozialaren ordez, 1789ko Iraultza batez ere iraultza kultural bezala ulertu nahi izan du, gainerako guztia, burgesiak boterea eskuratzeari baino demokraziaren etorrerari garrantzi gehiago emango liokeen gertaera politiko bezala begiratu. Baina beldur gara lan honek ere, jada luzeska den bibliografia baten parte izanik, ez ote duen kale egingo, baina, nolana ere, jasoko du honek ere laster asko erantzunik barrikadaren bestaldetik.

Artikulu honen laburtasunak beharturik, Iraultzaren lau pentsamolde eta interpretaziotan baino ez gatzazkizu arituko, irakurle: absolutista edo kontrairaultzaileen, liberalen, sozialisten eta marxisten interpretazioak ekarriko ditugu hona. Amaitzeko, gaur egungo joera zenbait aipatuko da.

Ideologia kontrairaultzailea

1789ko Iraultzaren irakurketarik kritikoa eta kontrakoa da hau, eta baita zaharrena ere; gertakarien garaikidea da, eta, gezurra badirudi ere, ez da frantsesa, anglosaxoniarra baizik (Burke-ren *Reflections on the Revolution in France*, 1790). Hasieran interpretazio honek ez zuen eragin handirik izan erbestera eta morkizaleen ekintza kontrairaultzailean, baina Chateaubriand, De Maistre, lehen aroko Lamennais, De Bonald autore frantsesen bidez, interpretazio kontrairaultzaileak pentsamolde bateratu bat

sorterazi zuen: tradizionalismo filosofiko nahiz politikoa. Azken honen iturritik edango dute ondorengo talde absolutistek, monarkiko-legitimistek eta baita demokraziaren aurkakoak direnek ere.

Sinplegia litzateke kontrairaultzaileek ideologia bat sortzeko ere ez zirela gauza izan uste izatea. Iraultzaren historiografiara haiek egindako ekarria Iraultzan izan omen zen talde masoniko eta iluministen ustezko konplot antimonarkikoaren tesiena bakarrik izan dela baieztatzeak askotxo dirudi, inondik ere (Rivarol-ek, Barruel-ek eta abarrek esan ohi zuten legez). Edota, beste muturreko interpretazio probindentzialista: honen arabera, Antzinako Erregimen frantsesaren erorketa, garai hartako kristau fedeari leialki ez jarraitzeagatik Jainkoak ezarritako zigorra zela da eritzi honen tesia.

“Whig” partiduko parlamentaria zen Burke-k Frantziako gertaera haiek aztertzean, ezin zezakeen bere jatorri ingelesa alde batera utzi. 1688ko Iraultzaren ondarea balioetsi nahirik, Frantziakoarekin alderatzean hura askoz balio hobekotzat jotzen du. Ingalaterrak askatasun egarriarekin batera pragmatismoa jarri zuen lekuan, Frantzian ez du ikusten abstrakzio-gogo harro bat baino. Burke-ren ustez, gizarte-bizitza kontrastetasunen arteko oreka arautu batean moldatu behar da, iraganaren eta orainaren arteko harmonia bilatuz. Baina Frantzia arretagabea izan da bere historia-rekiko. Honela sortzen da bi Konstituzioen arteko, edo obeto esan, herrien berezko eta idatzizko bi Konstituzioen arteko lehiaren eztabaidakizun sonatua.

Tradizionalismoarentzat oinarri-oinarrizkoa da gizarte- nahiz politika-aldaketetan herrien iraunkortasun historikoari eustea. Monarkiari dagokionez, berriz, hastapen honek Koroaren betekizuna goraiatu egingo du, izan ere Europako hainbat kasutan Estatu-Nazioen oinarritzko egituraketa historikoa sendi dinastiko handizale jakin batzuei zor zaiela uste bait da. Burke-k, kritika guzti horiek direla medio, ingeles utilitaristen pentsamolde liberala moldatu eta berrituratu zuen. Askatasunaren sustraiak Ilustrazioaren arrazoi abstraktuan ez, baizik gizabanakoa eta pertsona berezian bilatuz. Ilustraziozaleek naturari eta arrazoi abstraktuei egiten zieten lekua orain historiak beteko du, eta aurrerapena ez da jada aurrekoarekiko haustura legez ulertuko, konpromezuaren artea bezala baizik. Modernotasuna berriz, aristokrazia, kristautasuna eta burgesia liberalaren arteko sintesia izanen da funtsean.

Ikusten denez, aski liberal moderatua zen honek, De Maistre eta De Bonald bezalako frantses tradizionalista klasikoen kritika kontrairaultzailearen oinarri-oinarrizko intuizioak eskaini ahal izan ditu. Bi autore horiek duten pentsakeraren mistikotasun probidentzialista eta biek erlijioari eman dioten aparteko garrantzia alde batera utziz (gogora katolizismoak, horien aburuz zenbaite-rainoko garrantzia izango lukeen Iraultzaren ondorengo gizarte-nahiz politika-bizitzaren birreraiketan), bada bien filosofi eskemeta Iraultza gaitseztean oinarritzko adostasun bat: gizartearen arrazionalismoa aplikatzeaz halako mesfidantza bat, tradizioaren ondareaz duten sentiera baikorra, herri bakoitzaren etorkizuna norabidetzen duen berezko indar probidentzialarekiko begirune eta atxekimendua (De Maistre, *Considérations sur la France*, 1790).

Guzti honetaz gain, norbanakoaren arrazonamenduari talde-mailako esperientzia historikoari baino garrantzi handiagoa ematea, edota gizabanako honek Estatuarekiko izan ditzakeen eskubi-deetan baino berorrek gizartearekiko dituen betekizunetan arreta gehiago jartzea; aurrerabidea, alderdi politiko eta interesek bultzaturiko taldeen araberrako gizarte-banaketan datzala uste izan ordez, zatikamendu gabeko gizartearen antolamendu bateratuan oinarritu gura izatea, etab. (De Bonald). Besteak beste, Chateaubriand eta Nodier izango dira ideia hauetan bihotza, beroa eta sentimendu erromantikoak jarri zituztenak, izan ere erbestealdi luzeak nozitutako irakurle goak samurtasun eta erruki apur bat eskatzen bait zuten, borondatezko edo bortxazko emigrazioek eta familietan jasandako gilotinamenduek eskatzen zuten bezala.

Europako gainerako herrialdeetan hain eragin handia izanen zuen iraultzakontrako interpretazio frantses honek ez zuen badaezpadako babeslekua lortu Alemanian, batez ere Prusia eta Austrian. Histori lanetan itzal handikoa zen ikertzaile zenbaitek (besteak beste Von Sybel, Ranke, Treischke-k) Iraultza Frantsesa exenplu txartzat hartu zuen, hainbeste mendetan finkaturiko legegari eta antolamendu historikoari zor zitzaizen premiako begiramendurik izan ez zielako.

Frantziako iraultzakontrako tradizionaltasunak, Pariseko 1871ko Komunako matxinadaren ondorioz, beldur zirenen gogotan bizialdi berri bat ezagutu zuen. Oraingo honetan ere liberal bat izan zen pentsamolde horien bultzatzaile (H. Taine, *Les origines de la France contemporaine*, 1875-1893). Idazle ospetsu honen ustez ere, Frantziak zituen gaitz guztiak Iraultzarekin batera sortu ziren eta ezinbestekoa zen gizarte frantsesaren duintasuna eta in-

darra kaxkartzen zituzten oldarkeria eta zimbili-zanbuluak bertan behera utziko zituen politika-bide erabakia aurkitzea. Psikologia sozialaren axioma batzuen bidez zernahi esplika zitekeela uste zuen, eta Iraultzaren esanahia, gutxiengo handinahi baten triki-mailuetara, herri matxinadetara, edo masen kontrolgabeko ekin-tzetara mugatzen zuen. Gogor epaitu zituen XVIII.ko filosofoen hastapen abstraktuen jarraitzaile ziren parlamentariak. Liberal-ohi baten jarrera honek sustatu zituen XIX. mendeko azkenaldian errepublikar doktrinarien lanak.

Ideologia liberala

Frantziako Iraultza interpretatzen saiatu diren korronteatatik prestigiozko autoreetan sendoena eta munta handiko obretan ugariena tradizio liberalekoa da ezpairik gabe. Eskola hauxe izan da arazoen hierarkia finkatu eta kronika hain nahasi batean zein gertaerak duen egiazko lehenatasuna erabaki duena (*Tiers Etat*-aren deklarazioa Nazio-Biltzarrean, *Jeu de Paume*-ko zina, Bastillarako asalto, etab.). Ideologia liberalarentzat Iraultzaren bi lorpen nagusiak 1789/8/26ko Gizakiaren eta Hiritarraren Eskubideen Deklarazioa eta 1791ko Frantziako iskribuzko lehen Konstituzioaren idazketa izan ziren zalantzarik gabe, hau da, zentzu akademiko hertsian Iraultzaren fase moderatua deritzana, edota baita edozein lekutako liberalek hain maitea duten Monarkia konstituzionalaren fasea ere. Jadanik hilik egon arren izpiritu frantses kritikiko berriaren aita fundatzaileak diren filosofo ilustratuen obretako ideia eta proiektu politikoak ernaberritzea, gizarte geruzatu eta pribilegiatu baten suntsitzea eta berdintasun juridikoaren eta ordezkari-tza-sistemaren inperioak gobernatutako Estatu bat antolatzea, horra hor prozesu iraultzailearen aurrerapen historiko funtsezkoa, ideologia liberalaren arabera.

Interpretazio honen indarra 1871n Frantziako III. Errepublika sortu zenetik aurrera sendotua geratzen da. Garai honetan, urte askotan boterea beren eskuetan eduki zuten errepublikanismo militantek eta erradikal-sozialismoak aurre egin beharko diete bi muturretan dauden monarkismoaren hondakinei batetik eta gorantz doan proletalgo industrialari bestetik. Uztailearen 14eko Bastillaren hartzea jai nazional bihurtzearekin Iraultzaren interpretazio jakin bat mitifikatu zen, bestea erabat errefusatu zen bitartean.

Iraultzaren fase moderatua eta erradikala —'89a '93aren aurrez aurre— kontrajartzea eskuin eta ezker politikoaren lerro banantzailerik gisa XIX. mendearan amaieran bakarrik gertatzen den arren, bi aro horiek banantzeko planteamendua askoz ere lehenagokoa zen eta lehen garaietako tradizio liberaletik zetorren zuzenean. Madame de Staël izan zen, Necker-en alaba ospetsua (*Considérations sur la Révolution Française*, hilondoko obra, 1818), Iraultza historiarren filosofiaren ikuspegi batean lehenengoz kokatu zuena, gizarte orok feudalismoaren, erret despotismoaren eta gobernu ordezkakorraren eboluzio hirukoitza korritu behar zuenez, Frantzian gertatutakoa bigarren estadiotik hirugarrenerako pausoa besterik ez zela baieztatu zuenean. Eta pauso hori are eta beharrezkoagoa zen eskubide historiko bati zegokion neurrian: “(Frantzian) askatasuna zaharkia da, despotismoa, ordea, berrikia”. Bi iraultza diskriminatzea, Terrorea ('89ko printzipioen desbiderapen zorigailtekoa) inolako aitzakirik gabe gaitzestearekin batera, ia liberalen ondarea soilik den analisia izango da Copper-en taldea deitu izan dena Leman lakuaren ertzetan bildu zuen emakume honen obraren ondotik, Constant izango delarik zalantzarik gabe bere ikasle eta jarraitzaileak distiratsu eta ezagunena.

Izualdi jakobindarraren drama iraultzaileak berarekin dakarren odol, gilotina eta gudu zibila (gure egunotan “genozidio franko-frantsesa” (Sécher) deitu izan dutena) ikusi ondoren, liberalentzako irteerarik erraz eta arruntena zera gertatu zen, '89a ona eta beharrezkoa izan zen bitartean '93a dohakabea eta itzurgarria izan zela esatea. Baina egiazki itzurgarria ote zen? Thiers eta Mignet bezain irakurriak izandako historilari liberalek ahalke eta kezka gutxiago erakutsi zuten Izualdia aztertzerakoan; autore hauek fase hori ezinbesteko ondorio bezala onartu zuten, nazioaren bizi-iraupenerako une larrietan patriotismoaren, Estatu-arrazoiaren eta errealismoak zorrotzenaren ikuspegitik botereari datzekion zerbait bezala.

Baina liberalen tradizio historiografikoak funtsezko haustura bat jasango du ezker politikoaren eremuan erromantizismo literarioak bere sarrera egiten duen une beretik. 1848ko Iraultzaren bezperetan gertatzen da Iraultzari buruzko hiru maisulanen argitarapena hain zuzen: Lamartine, *Histoire des Girondins* (1847), Louis Blanc, *Histoire de la Révolution* (1847-1862, 13 liburukitan) eta guztietan ezagunena, Michelet, *Histoire de la Révolution Française*, (1847-1853); autore bakoitzaren orientazio-desberdintasunak ahaztu gabe, noski, elementu berri bat plazaratzen da: bapatean,

Iraultzaren subjektu historikoa aldatu egiten da, lehen handikiak eta protagonistarik ospetsuenak ziren lekuan orain masa izenik gabeak ziren, "herria", *Frantziako herri zintzoa* noski, askatasunaren eta justiziaren bila abiatutako epopeia honen heroea zalantzarik gabe.

Eresi kutsu batek betetzen ditu emozio suharrez gainezka dauden obra hauek; Lamartine eta Michelet-en kalitate literarioak bizi berria damaio iragan zaharkitu eta eihar bati; izaera mistikoko sinkretismo idealista batek korritzen ditu haren orrialdeak. Michelet-en obra, agian bere poetakidearena baino eskasagoa kalitate historikoari dagokionez, gehiegizko filia eta fobiaz zamatu, patriotismo frantsesaren eskola eta eredu bihurtzen da zenbait belau-naldirentzat eta gaur egun ere haren obra nahitaez irakurri beharrekoa eta ordezkazina bezala aipatzen da Iraultza barrutik bizi nahi baldin bada. Baina Michelet-ek, bere hunkipenekin eta teknika erromantikoz kutsatutako bere lumarekin beste funtsezko aldaketa bat gauzatzen du Iraultza interpretatzeko ikuspegian, izaeraz kontzeptuala eta politikari begira baloraziozkoa den aldaketa: herria eliteen aurretik, demokrazia liberalismoa baino garrantzitsua goa; sozialismoa amaitu gabeko iraultza baten egiteko fase gisa. Michelet-en ondotik '93ak osatzen du ezker frantsesaren patriotismoa, ez sozialista bakarrik baita errepublikano/erradikala ere. Azken talde politiko hauen arteko liskarra etxekotu egiten da beren heroea hautatzeko orduan, Danton ala Robespierre? Errepublikanismo erradikala Danton-en irudiaren atzean lerrokatu baldin bazen, aipatu pertsonaiari Aulard irakasle ospetsuak eskaintako bultzada historiografikoa zela eta, geroxeago haren ikasle izandako Mathiez militantismo robespierristarik sutsuenean abiatuko da, sozialistek nahiz marxistek begi onez hartutako interpretazio-bidea hain zuzen. Baina ezkerria baino oraindik ere ezkerreago dagoenik bada beti ere eta horien artean egongo da aipatutako autore biak baino Hébert nahiago duenik.

Iraultzaren interpretazio liberalen artean ezin utzi genezake aipatu gabe A. De Tocqueville (*L'Ancien Régime et la Révolution*, 1. liburukia 1856an, amaitu gabeko obra), agian bere autorerik ospetsuena eta baita originalena ere; 1848-1851 denboraldian bere postu politikotik gizarte frantsesaren sakoneko analisiak kezkatu-rik, 1848ko herriaren leherketa iraultzailea Inperioaren zesarismo bonapartistan endakatzen zela ikusiz (1851ko abenduak 2), zera galdetzen dio bere buruari, balizko Iraultzarako itzulerak ospatzen aritu ordez ez ote den Frantzia oraindik ere Erregimen Zaharrean finkatua egongo.

Planteamenduak bere garaikideak sutu eta berotzen ditu, baina berrikuntza nabarmenak suposatzen ditu aldi berean. Horrela urte luzetan errotutako kontzeptu eta hipotesiak kolokan jarri eta haitzaten dira, Iraultzak gauzatutako haustura historikoa kasu. Gure autorearentzat, aldiz, betidaniko Frantziaren identitatea da Iraultzan barrena egokitu eta moldatu dena; Europan nagusitzeko nahia, Estatuaren zentralismoa, gizartearen atomizazioa eta erradikalismo filosofikoa 1789a baino lehenagoko errealtateak dira eta urte horretan gertatuak frantses herriaren betiko historia argitu eta zabaltzea besterik ez du egin. Interpretazio honek, "elebazioz" barrikadetatik at egonik, bai batzuk eta baita besteak ere asetzen ditu partzialki besterik ez bada ere, monarkikoek Luis XVI.aren erreformismoaren defentsa atsegin bait dute 1787-89an, eta sozialistak, bestalde, Tocqueville-k klasearteko borrokari prozesu iraultzailean emandako garrantziagatik zordun bait zaizkio.

Ideologia sozialista

Frantziako iraultzaren interpretazio sozialista jo genezake mende honetan eraginik handiena eta onespelik sendoena lortu duena bezala, eta hori arrazoi nagusi bategatik. Lehen aldiz formulatu zuen autore ospetsuaren, J. Jaurès-en, eta ondoren beren katedretatik gaur egun apenas aipatzen den sozialismo frantziarraren liderrak eduki zuen funtsezko intuizioari era jantziago eta eskola-tuago bat eman zioten historilari profesional andanaren artean (Mathiez, G. Lefebvre, Labrousse, Soboul, etab.) sortu zen kidetasun zoriotsuagatik hain zuzen.

1901ean Jaurès-ek *Histoire socialiste de la Révolution Française* argitaratu zuenean, "sozialista" hitzak dezente sumindu zuen burgeseria errepublikarra, izendapen horretan frantsesen ondare amankomuna zena talde militante batek bereganatzeko saio bezala ikusiz. Baina Jaurès-en murrizketa arriskutsu horretantxe zetzan, hain zuzen, autorearen berrikuntza eta intenzionalitate guztia: Iraultza langile-klasearentzat erreskatatzea, pedagogia iraultzailearen eredu bezala aurkeztea, bere baitan gordeta zeuzkan humanismo sozialistaren birtuteak aurkitzea eta Frantziako langile-klaseari tradizio historiko nazionalean sustraituriko ideal sozialista eskaintzea. Ahalegin horren paradoxa zera izan zen, lan horrek askoz ere eragin handiagoa eduki zuela intelektual eta unibertsitarien artean langile-klasean bertan baino.

Historiografia iraultzaileen sozialismoak suposatu duen ekarpenak ezaugarri nahikoa homogeenak ditu zenbait gairekiko duen hobespenari dagokionez: arazo ekonomiko-sozialen azterketari ematen zaio lehenetasuna batez ere, Erregimen Zaharreko Frantziaren egoera soziala xehetasun osoz analizatuz (arrazoi edo jatorri historikoaren arazoa), jadanik nagusitasun ekonomikoa lortu zuen klase burgesaren botere politikoaren hartzea, Robespierre-k iragarritako demokrazia baten eredu, ez politiko soilik, baita ere soziala, nekazalgoaren garrantzia faktore iraultzaile gisa, eta oro har ekintza ekonomikoen eta ideal iraultzaileen arteko harremanen arazo zail eta neketsua azaltzen saiatuz.

Iraultzaren lehen mendeurrena zela eta sortua izan zen Sorbonako Iraultza Frantsesaren katedra ospetsua ehun urtetan gidatu zuten maisuak —Aulard, Mathiez, Lefebvre, Soboul eta historiografian bidegabeki atzenduak izan diren Sagnac eta Reinhard irakasleez ari gara— jakobinismorik puru eta gogorrenaren defentsarekin identifikatzea gehiegizkoa den arren, egia da, maisu horien arteko desberdintasun eta aurkakotasun, zenbait kasutan grina eta pasioek sortuak, guztien gainetik beraiek izan direla hainbat hamarkadatan sentikortasun eta orientazio historiografikoa goitik behera gidatu dutenak.

Aulard historia politikoan gailentzen den bitartean, Mathiez iraultzaileek Izaki Gorenaren eta Arrazoi Jainkosaren erlijioekin zituzten loturak kezkatzen zuten, '20ko hamarkadan Robespierre Lenin-ekin parekatzen ez zuenean, diktadura jakobindarra legitimatzeko aukera emango liokeen doktrina koherente bat ez edukitzea egotziz lehenari, diktadura horixe iraultzaile errusiarrak erakitako proletalgoaren diktaturaren eta kolektibismoaren aitzindari historiko bezala jotzen bait zuen berak. Lefebvre eta Soboul-ek ez zuten onartu Mathiez-en transposizio historiko hain erradikal hori, eta deblauki ukatu zioten politika sozialistaren izaerarik txikiena ere jakobindarrek bultzaturiko igualitarismoari, hauek ezin bait zuten kontsumoko ondasunen emergentziazko sozializazioa besterik proposatu. Ikusitako desberdintasun guzti horien gainetik, interpretari guztiok badute oinarritzko sustrai amankomun bat, Iraultza funtsean klase-borroka bat bezala azaltzen bait dute, burgeseriak noblezia feudalaren aurka egindako borroka bezala; nobleziaren eta burgeseriaren arteko konpromezu oro haustean, azken hau herri-masa nekazari eta hiritarretan oinarritu zen. Behin Frantziako hesi ekonomiko eta sozialak hautsirik zeudela, merkatu nazional handi bat sortzeko eta gizarte kapitalista garatzeko

baldintzak ezarri ziren, nekazal gizartea aurrenik, nekazarien artean lurraren jabetza banatuz eta gizarte industrialia ondoren, Ingalaterratik teknologiaren bulkada iritsiko zenean.

Aurrekoa ikusi ondoren, erraz ulertzen da eskola sozialistak gizarte-kaparik baxuenen ikerketarako erakutsi duen interes handia, kapa horiek izan bait ziren prezio eta alokairuen oszilazio ziklikoak gehien jasan zituztenak Erregimen Zaharrean (Labbrousse) eta errebolta iraultzailean egituraz eta mentalitatez hain zorrozki deskribatuak izan diren mekanismoek mugituak (Rudé). Bere orokorrean, Frantziako Iraultza kapitalismoranzko bidean etapa bat bezala hartu behar da, frantsesen kasuan bide hori hain modu berezi, propio eta eredugarri batez eginga izan baldin bazen ere. Bide hori antolatzerakoan ebatzi ziren gainera modernitatearentzat hain funtsezkoak diren zenbait arazo, hala nola *Askatasunaren Iraultza* giza eskubideen Deklarazioaren bitartez, *Berdintasunaren Iraultza*, baita eremu ekonomiko-sozialean ere, prezio eta alokairuak arautzeko mekanismoak ezartzen saiatu zirenean, beraien arteko harreman bidezko eta egokiak finkatuz (Maximoaren Dekretua) eta azkenik *Batasunaren Iraultza*, Frantzia garaikidearen Estatu zentralista eta uniformatzailea sortuz.

Ideologia marxista

Frantziako Iraultzari buruzko lan monografikorik inoiz idatzi ez arren, Marx oso interesatua zegoen garai jakobindarraren eza-gutzaz; horregatik Konbentzioaren aktak, Babeuf-en idazkiak, Robespierre eta Saint-Just-en hitzaldiak, etab. irakurri zituen, eredu iraultzailearen ikuspegitik aktualitate politiko frantziarrak idazten zuen bitartean. Marx-entzat ez zegoen zalantzarik, Frantziako Iraultza klase-borroka baten ondorioa izan zen, burgeseriaren garaitia erabatekoarekin, giza emantzipazio atzerazina lortuz. Hala ere, emantzipazio hau izaeraz oso murrizta zen eremu politikora soilik mugatzen bait zen Estatuaren ekintza zela medio, eta antolamendu ekonomiko-sozialaren maila alde batera uzten bait zuen; hauxe izanik langilea alienazioaren sareetan murgiltzen duena. Giza emantzipazio oso batek ekintza ekonomiko-sozialaren eta ekintza politikoaren bateratzea ekarri beharko luke, jabetza pribatuaren abolizoarekin hasiz, eta neurri hau inola ere ezin espero zitekeen burgeseriengandik, proletalgoarengandik baizik.

Hona hemen bada Iraultza nola agertzen den giza emantzipazioaren fase interesgarri bat bezala, baina oraindik erabat burutzerara heldu ez dena; egiteko dagoen lana iraultza proletarioak jarraitu beharko luke.

Iraultzaren analisi historikoaren osotasunean Marx-ek ohar partzialen sail handi bat notatu zuen: girondindarren eta jakobindarren arteko aurkaketan burgeseriaren eta proletalgoaren arteko klase-borrokaren lehen zantzuak ikus zitezkeen; Robespierre-ren akatsik handiena erreforma sozialetaz ez axolatzeara izan zela, Estatuaren aparatua indartzea bait zen haren kezka nagusia, etab. Eta ohar horixe ongi kontutan eduki zuen Lenin-ek, elite profesionalizatuak masa-mugimenduaren gidaritzapean zuen garrantzia iraultzailearen doktrina formulatu eta ondoren guztiok dakigun arrakastaz eta eraginkortasunez aplikatzen jakin zuenean. Aktibismo boluntaristaren balorazio honexek eraman zuen, zalantzarik gabe, boltxeviceak sozialdemokraziaren "jakobindarrak" bezala izendatzera.

Erraz uler daiteke historiografia sobietar modernoa masarik aktibisten eta baztertuenekin zerikusia zuten arazoetaz oso interesatua egotea (Babeuf-en konspirazioa, *Enragés* edota *Sans-culottes* zirelakoak, nekazariak, etab.), gertaeren kronikan beti ere arreta berezia eskainiz talde horien presentzian; horrela giza eskubideen Deklarazioa edota 1791ko Konstituzioaren prestaketa gutxiuak izango dira 1792ko abuztuko herri-altzamen duaren mesedetan; Parlamentuak askoz ere interes gutxiago sortzen du *Komuna* iraultzaileak baino, 48 sail paristarren erakunde zentralak baino.

Historiografia marxistak Babeuf-en eta bere taldearen konspiraziorako (*Berdinen konspirazioa* deitua izan zen gertakarirako) zuen interesa oso ongi azal daiteke onartzen baldin bada iraultzaile mengel honen pentsamendua dela doktrina politikoen historian lehenengo formulazio garbiki komunista. Gai honek ondorengo urteetan edukitako garapen historiografikoak 1797ko gertakariak (Jakobindarren Direktorioaren aurkako asaldakuntza-saioa, poli-ziak bertan behera utzi zuena eta ustez bere buruzagia zen Babeuf hil zutenean amaitu zena) berez zuen baino garrantzia handiagoa lortu du.

Gertakari hori ia ustekabean pasatuko zen judizioaren aktak, *Berdinen Manifestua* izeneko idazkiak, eta ondoren Buonarrotti izeneko konjuratu-ohi batek idatzitako lanak marxismoari geroagoko marxismoarekin hain estuki loturik zeuden tesi batzuri gor-

putz doktrinala emateko aukera eskaini izan ez baliote: Frantziako Iraultza, nahitaez ondoren etorriko den beste iraultza askoz ere garrantzitsuago eta erabakiorrago baten iragarpen gisa; berdintasun formalaren eta errearen arteko bereizketa, azkena izanik ilusio igualitariotik ihes egiten duen bakarra; gobernu iraultzaileak herriari bere garaipena konfiskatu dioten zenbait talde jakinen interesak defendatzen, etab. Esan izan da, eta arrazoiz, delako "babe-fismo" hori ez zela asaldamendu-teknika bat besterik ("terrorismoa gehi gizarte-laguntza" (Leroy) eta berorien komunismoa ez zela banaketaren komunismora baizik iristen eta inola ere ez produktioaren komunismora.

Konklusioa

Iraultza frantziarraren interpretazioa dela eta, Frantziako eta baita Europako eskuin eta ezkerren artean mantendutako eztabaida ideologikoaren gainbegirada labur honen ondotik epaiak ezkerren aldekoa izan beharko luke argi eta garbi; interpretazio sozialista edota jakobindarra soilik, sentsibilitate marxistatik oso hurbilekoa, da unibertitateko eta ikerketako liburuen orientazioan nagusitzen dena funtsean. Baina etxea zartatzen eta pitzatzen hasia da 60ko eta batez ere 70eko hamarkadan jatorri desberdinetatik datozen joera historiografikoen eskutik: *Annales*-en eskolatik datozenak bereziki, *errebeisionista* deitu korrontekoak hain zuen, ospe handiko izenak (Palmer, Godechot, Cobban, Ozouf, Richet eta batez ere Furet) esplikazio ekonomizista soilak ez bait zituen asetzen, hipotesi marxistaren klase-borrokaren eskema-zurruntasunak harri eta zur utziak eta, azken finean, Iraultzaren prozesu askoz ere konplexuagoa eta ez hain ikuspegi murriztekoa eraikitzeko irrikitzen zeudenak.

Azken aldian aipatu izenetako batzuek plazaratutako galdera berri zenbait agertzea beste asmorik gabe, esan dezagun gaur egun hedatua dagoela Iraultza atlantiarraren izendapena 1770-1870 bitartean Atlantikoaren bi uhertzetan eman diren iraultza burgesen prozesu aldibereko eta bateratzailearentzat. Badira, hala ere, iraultzaren ikuspegi bateratu horren beldurrez edo, 1789ko gertakizunetan hiru iraultza desberdinen azaleratzea ikustea nahiago dutenak (diputatuen Versailles-en, burges txikiena hirietan eta nekazariena landan) eta baita erreformismo liberala ere, hiru estamentu

horietakako bakoitzean, zenbait elitetan presente eta indarrean zegoena; baina iraultza arrakastatsu eta baketsua izan zitekeena konstituzionalismoaren lorpenarekin eta liberalismo ekonomikoaren ezarpenarekin, alferrik galdu zen Konbentzio jakobindarrarekin eta Terrorearekin, autore desberdinek istripu dramatiko, parentesi labur ('92ko abuztutik '94eko uztaileira, Robespierre-ren erorketarekin), edota Direktorioak zuzenduriko laprastada soil bezala (*déravage*) kontsideratuak.

Soboul eta Furet dira, bakoitza bere jarraitzaileekin batera, '80ko hamarkadan eztabaida interpretatibo-ideologikoan bi joera nabarmen eta elkarrengandik urrundenak suposatzen dituztenak. Oharterazi dezagun, hasiera batean ez dela erraza auresatea Bigarren Mendeurrena betetzen den urte honetan joera ezberdinen arteko match dialektiko-historikoaren emaitza zein izango den. Dena den, onartu beharra dago Soboul-en ausentzian (1982an hila), borroka nahikoa desorekatua dagoela. Furet-en eragina bestalde bete-betean dago eta espreski urte honetarako prestatutako obra-panorama zabal baten bidez bere nahirik handiena bezala Iraultza amaitutako errealtate baten gisa aurkeztea dela esan du autore horrek, egungo politikaren gain eragin zuzenik gabe, duela bi mendeko gertaerek frantses ororen ondare amankomuna suposatzen duten neurrian. Ideien haustura, errepresentazio-modu berriak, iraultza kulturala soziala adina edo gehiago, iraultzaileen erradikaltasuna guztia alda zezaketela eta oro *ex novo* sor zezaketela amestuz, horiexek izan zitezkeen Frantziako gaur egungo errealtate historikoan historiografiaren interesguneak.

Eskuinaren eta ezkeraren arteko eztabaida politikoak era guztietako tentazio zentristen aurrean amore ematen duen une batean ezin daiteke lehiaketa pasional ideologiko bat bultzatuko duen zirikadarik espero; bestalde, jadanik Mendebaldean oso nabarmena den pentsamendu eta proiektu marxistaren ondoratzea, gaur egungo perestroikak indartua, Frantzian katolikoek garai batean hain gupidagabeki kontrakoa izan zitzaizen iraultza inolako erreserbarik gabe onartu izatearekin batera, behialako ezinikusi ideologikoez sangura eta pozoia galtzea ekarri du.

Euskaratzailea: Jabier Agirre

J.G.G.

LAS IDEOLOGIAS DE LA REVOLUCION FRANCESA LES IDÉOLOGIES DE LA RÉVOLUTION FRANÇAISE

En los doscientos años que nos separan de la Revolución Francesa, este acontecimiento histórico ha sido punto de referencia inevitable de las grandes ideologías políticas del Occidente. Cada una de ellas ha hallado su objeto o aspecto revolucionario que le permitiera expresarse en sus propias utopías políticas o sociales. Incluso las revoluciones acaecidas con posterioridad han creído llevar a mejor término algunos de los ideales inacabados de aquella.

La ideología contrarrevolucionaria presenta una obra intelectual temprana, y firmas que se insertan en una tradición conservadora, atenta sobre todo a los valores permanentes del pasado: Chateaubriand, De Maistre, Lammenais, etc. Los excesos de episodios históricos posteriores aportarán, como reacción, nuevas figuras: H. Taine, por ejemplo.

El pensamiento liberal es el que ofrece un elenco más rico de autores y obras. Asume la tradición generada en la Revolución, con atención preferente a los logros positivos: Mme. de Staël, Constant, Thiers, Mignet, Lamartine, Blanc, Michelet, Tocqueville, etc. Es la izquierda francesa —nacionalista y social— que defiende el episodio revolucionario como símbolo y proyecto de Francia.

La ideología socialista retomó la memoria de la Revolución en sus aspectos más sociales. Fue Jaurès quien primero formuló la interpretación socialista de la Revolución. Siguió una brillante pléyade de historiadores: Aulard, Mathiez, Sagnac, Reinhard, Lefebvre, Labrousse, Soboul, Rudé, etc.

No ha faltado tampoco la reflexión más expresamente marxista de este hecho histórico. Ya el propio Marx había apuntado, en sus obras, abundantes observaciones al respecto, y la moderna historiografía soviética ha ido completando esa visión marxista de la Revolución, siempre con un interés directo sobre las masas marginadas y descontentas.

Estas variadas tradiciones interpretativas son objeto, en la actualidad, de revisiones de diverso signo a lo largo de los '80.

Deux cents ans nous séparent de la Révolution Française; cet événement historique a été le point de référence inévitable des grandes idéologies politiques de l'Occident. Chacune d'elles y a trouvé son objet ou aspect révolutionnaire lui permettant de s'exprimer dans ses propres utopies politiques ou sociales. De même les révolutions survenant postérieurement ont cru mener à des fins meilleures quelques uns des idéaux inachevés dans la première.

L'idéologie contre-révolutionnaire présente une oeuvre intellectuelle précoce et des noms qui s'insèrent dans une tradition conservatrice soucieuse des valeurs permanentes du passé: Chateaubriand, De Maistre, Lammenais, etc. Les abus d'épisodes historiques postérieurs apporteront comme réaction, de nouvelles figures: H. Taine, par exemple.

La pensée libérale est celle qui offre la liste la plus riche en auteurs et ouvrages. Elle assume la tradition engendrée par la Révolution avec une attention particulière dans les réussites positives: Mme. de Staël, Constant, Thiers, Mignet, Lamartine, Blanc, Michelet, Tocqueville, etc. C'est la gauche française (nationaliste et sociale) qui défend l'évènement révolutionnaire comme symbole et projet de la France.

L'idéologie socialiste a repris la mémoire de la Révolution dans ses aspects les plus sociaux. Jaurès fut le premier à formuler l'interprétation socialiste de la Révolution. Une brillante pléiade d'historiens continuèrent: Aulard, Mathiez, Sagnac, Reinhard, Lefebvre, Labrousse, Soboul, Rudé, etc.

La réflexion plus expressément marxiste n'a pas oublié ce fait historique. Le propre Marx avait noté dans ses ouvrages de nombreuses observations à ce sujet et l'historiographie moderne soviétique a complété peu à peu cette vision marxiste de la Révolution toujours avec un intérêt direct sur les masses marginales et mécontentes.

Iraultza eta Hexagonoko nazio ukatuak

E. Lopez Adan "Beltza"

Iraultza Handiaren mito progresista

Mitoak hasiera kontaktzen du: edukin berean, historiaren eskatologia eta salbamenduaren promesa dakartza. Frantziako Iraultza, Iraultza Handia, oraingo nazio-estatuaren hasieran dago; haren ondoan, historiografia progresistak balore-sistema bat eraiki du eta, denbora berean, estatuaren administrazioak, Iraultzak sortutako legitimazioan finkaturik, barne eta kanpoko kolonialismoak justifikatu ditu. Honela, irudi kontradiktorio bat ageri da, libertatearen kultoa eta besteen askatasunen zapalkuntza biltzen dituen, Iraultzaren modeloaren unibertsaltasuna eta frantses txobinismoa uztarturik. Beraz, kontradikzioaz ariko da lan hau.

Ezkerrak sortu eta gurtu duen mito progresista honela labur daiteke: Iraultzak ordena feudala suntsitu zuen eta burgesiaren erresuma abiatu; aitzineko erakundatze teologiko-monarkikoarekin hautsiz, gobernu-sistema erakunde demokratiko-errepresentatiboen eskuetan ezarri zuen. Denbora berean, Iraultzak batasun nazionala sortu zuen. Bi prozesuak (askatasun demokratikoak eta

eraikuntza nazionala) elkarrekin doaz: feudalismoa eta gibelamendua gaindituak utzi zituen, estatu-nazio moderno eta aurrerakoa sortzeko. Horiek honela, Frantziako Iraultza eredu unibertsal bihurtu zen.

Arrasto honetan, historiografiak urrats identifikagarriak eman ditu; mitoaren eraikitzeak ere bere historia du.

Hasiera, Michelet-en lanetan aurkitu behar zaio¹. Historia erromantikoa da, frantses populuaren epopeia idatzi nahi duena: herria da protagonista, herri frantsesa, bere nortasun nazionalarekin; eta herri honek sortzen ditu, Iraultzaren bidez, libertate eta justiziaren erresuma erdiesteko baldintzak. Hitz batez, Herriak, Frantziak eta Demokraziak bat dagite.

Hurrengo pauso nagusia Jean Jaurès-ek ematen du². Bere lanak, aitortza esplizitoaren bidez, zientzia eta ideologia biltzen ditu; azpiegitura ekonomiko eta sozialari ematen dion lekuarengatik, lan marxista da. Baina ikusten ari garen mitoaren eraikuntzan, balore berezi bat ematen dio Iraultzari: haren ustez, Iraultza Handiak demokrazia eta kapitalismoaren hedapena bideratu du eta, hori dela medio, proletalgoaren etorrera eta sozialismoa bera antolatatu ditu. Hitz batez, filosofia iraultzaile sozialistak humanitatearen eboluzioa nola pentsatzen duen ikusirik, Iraultza bide honetan zedarri bat da, bueltarik gabeko egitate aurrerakoa eta, gainera, guztiz eredugarria.

Frantziako marxismoak bide honetatik joko du, gero eta aurreago. Albert Mathiez aipatu behar da³: lan batean⁴, Errusiako Iraultza eta Frantziakoa parekatzen ditu eta, irabazteko gaitasuna azpimarratzeko, alderdi leninistaren zentralismo demokratikoa eta frantsesen jakobinismoa konparatzen eta laudatzen ditu.

Nahi bada, ideologiak oso leku handia hartzen du Iraultzaren interpretazio marxista-progresistaren barnean. Hau esanik, ez nituzke historiografia marxistaren lorpenak eta irakaspenak ahantzi nahi; Georges Lefebvre edo Albert Soboul⁵, beharrezko erreferentziak dira. Baina lan honetan ikertu nahi dena zera da: nola lotzen den, hertsiki gainera, nazio frantsesaren eraikitzea eta iraultzaren esanahi progresista unibertsala; nola, azken finean, progresismo osoz jantzen den eredu zentralista, eta, ondorioz, zein erraz identifikatzen diren zentralismoaren aurkako jarrerak eta interes atzerakoi edo kontrairaultzaileak. Clemenceau-ren hitza asko errepikatu da: "*La Révolution est un bloc*", esan nahi baita Iraultza

osotasun bat dela, osotasun trinkoa, non ezin daitekeen atal bat kritikatu esanahi orokorra dudatan jarri gabe⁶...

Eta jarrera honek ondorio iraunkor eta azkarrak ditu. Frantziar, gaur egun ere, zentralismoa eta frantses hizkuntzaren leku aparta, gauza natural bezala jotzen dira, Iraultzak ekarritako libertatearen parte eraztezinak balira bezala; progresista orok onartu behar dituen baloreak dira, eta lekuan lekuko hizkuntzen eta nortasun politikoaren aldeko deiak jarrera paseistak, erreakzionarioak, errepublikaren kontrakoak omen dira.

Eskema hain sinple hau oso sartua dago herriaren baitan, eta gutziz nabaria Estatuaren funtzionari eta zuzendariengan, batez ere politikari eta irakasleen jarreretan. Eskola-liburuen ikerketa batek, adibidez, ederki erakusten ditu mitoaren bizitza eta sarkortasun soziala.

Baina, tamalez, mito progresistaren destinoa aski petrala da. Ideologia progresista batek bultzatu du, baina estatu zentralistaren interesek baliatu dute; mito askatzailea, dagoen sistemaren justifikazio bihurtu da. Are gehiago, eta gero ikusiko dugunez, nazio-erakitze gutziz frantses eta zentralistari ematen dion leku apartaz, eskuin muturreko nazionalismo txobinistaren tema batzuekin lotzen da. Funtsean, nazio eta etnia ezfrantsesen zapalkuntza justifikatzeko, zingira berean ibili dira talastan ezkerre, estatua eta eskuin muturra. Ikerle askok agerterazi duenez, nazionalismoa ez da inoiz inozentea eta potentzia handi baten nazionalismoa ferekatzeak zapalkuntzaren ondorioak ekarri behar ditu.

Mito honetaz, ba, baliatu egin da Estatu; funtzionalki, erabilpen honen historia eta kritika, egin beharra dago. Honek, halere, ez du mitoa egia historikoa denik esan nahi.

Egia historikoari dagokionez, zentralismoa Iraultzan dago presente, baina bien artean dagoen lotura ez da hain sinplea.

Zentralismoa Frantziako monarkiak hasi eta hedatu zuen; Iraultzan, berriz, herri-iniziatiba asko deszentralizazio eta federalismoaren aldekoa zen; finean, gaur egun arte iraun duen zentralizazio orokorraren sistema, Iraultza ehortzi zuen Napoleon enperadorearen obra da. Horregatik, irudiak matizatu eta haztatu behar dira, eman zizkiguten sinplifikazioak argitu. Hala nola jabokindarren eta girondarren arteko gatazka. Historiografia batek kontrajarri zituen taulak sobera linealak dira: Girondarrak federalistak eta burgesak ziren; Jakobindarrak, berriz, egiazko iraultzaileak eta

zentralistak... Baina gauzak hain ederki uztartzen dituen irudi hau ez omen da egiazkoa: klase interes kontrajarriak zituztenik ez da inon frogatu, eta bien arteko haustura nagusiak hartzen zuen zioa gerla atzerritarrean sartu ala ez izan zen... Gainera, irudi honek bere historia du, eta ideologo aski erreakzionario baten itzala darama: Auguste Comte-k, hain zuzen⁷, bultzatu zuen jakobinismoaren goraiapatzea, eta ez zuen honelakorik egin jakobindarren jarra guztiz iraultzaileak pusaturik, baizik eta zentralizazioa "arrazoiaren gihartzea" zelako. Honen filosofiak, preseski, 1789ko Iraultza gizadiaren goi-estatuaren bururatze beharrezkotzat jotzen zuen, "estatu metafisikoa" deitzen zuen, Mendebaldeak egiten zuen aldakuntza demokratiko-nazionalarekin amaitzen zelako.

Eta aipamen hau ez da anekdotikoa. Zentralismoa onartzeko, ezker eta eskuineko interpretazioak, ikerkuntza materialista eta idealistak, elkartzen dira. Nazionalismoaren eraginak eta Estatuaren indarrak errazten dute elkarretaratze hori.

Kontsentsu honek, hain zuzen, ematen dio Estuari indar gaitza. Iraultzak, egia esateko, ez zuen aristokrazia suntsitu, nahiz eta boterean beste klase bat ezarri; suntsitu zuena, dudarik gabe, gobernatzeko printzipio aristokratikoa zen, haren lekuan printzipio demokratiko-ordezkatzaileak ezarriz. Ondorioz, Estatuak Herria eta Nazioarekin identifikatu zuen bere burua; Estuaren kontra altxatzeko edozein legitimazio ukatu zuen, bere kontrako erresistentzia Antzinako Errejimena errestauratzeko borondatearekin parekatzen zuela. Engoitik, herriaren izenean zanpatuko du Estatuak, eta Errepublikaren etsaiak oro, definizioz, erreakzioaren morroi gertatuko dira.

Herri ezfrantsesak zapalduz eta langileak ustiatuz eraiki zen, Estuarentzat, mauka galanta zen justifikazio hori.

Zentralismoa

Iraultza, aristokraziaren aurka jazartzen, demokrazia finkatzen eta nazioa zentralismoaren bidez eraikitzen, gauza bat bera bezala, diotenez, egiten saiatu zen. Interpretazio hau partziala eta interesatua dela esan dugu. Kritikaren haritik ibiliko gara.

Hasiera-hasieratik, bestelako ikusmolderik ere egon da Iraultzaz. Ikertuko dugun arazoa hauxe da: Zentralizazioa, iraultzailea ote da?; edo, beste modu batez esanda, zentralismoa Iraultzaren eginkizun originala ote da? Tocqueville-k, zer esan asko sortutako obra bat utzi zuen idatzita⁸. Haren ustez, zentralizazioaren historia askoz zabalagoa da: Kapetarrek hasi zuten, Borbondarrek jarraitu, Iraultzak indartu eta Napoleonek burutu zuten prozesua. Nahi bada, Antzinako erregimenaren despotismoa, Iraultzaren alde iraultzailea eta Napoleonen inperio zapaltzailea biltzen dira zentralismoaren obran. Horiek horrela, nekez onar daiteke zentralizazioa *berez* demokratiko-iraultzailea denik. Zentralismoaren historia, beraz, beste modu batez ikertu behar da; Estatu zentralistak, gizarte zibila eta komunitate historiko-kulturalak irentsi egin ditu, bereziki Luis XIV. arengandik Napoleon Bonapartegaino, eta historia hau ez da Iraultzaren historiarekin guztiz identifikatzen; paraleloki irakurri eta aztertu behar da.

XVIII. mendetik hona, monarkiaren zentralismoa gero eta nabariagoa zen; Justizian eta zergetan, bereziki, lekuan lekuko botereen indarra ahulduz zihoan. Horregatik, 1789rako Estatu Nagusiak deitzen direnean, probintziek eta hiriek egiten dituzten "Dolu Kaiurretan" ikus daitekeenez, denek aho batez zentralismoa salatzen dute, eta autonomia handiagoaren alde agertzen dira usu⁹. Erret Intendenteen abusuak egun-argitan jartzen dituzte. Zentralismoaren aurkako jarrera hau da, hain zuzen, Iraultzaren lehen urrats bat. Hala ere, abiadura autonomista honek eten handia, esankorrena beharbada, ezagutuko du segidan. 1789ko Abuztuaren 4ean, gaez, aho batez erabaki zuen Asanblada Konstituziogileak pribilegio guztiak abolitzea, eta kontzeptu honen barnean, autonomia erregional eta hiritar guztiak suntsitzen zituen.

Diputatu euskaldunek, besteek bezala, onartu zuten suntsitze hau. Ematen du Dolu Kaiurretan agertzen zenarekin kontraesanean zegoela hori. Eta halaxe zen, probintzia zaharren autonomiaren jatorria antzinatetik zeukaten askatasun originalean ikusten bada. Baina Asanblada Konstituziogileak ez zuen ikusmolde bera; diputatuentzat, Antzinako sistemaren zedarriztapen oro feudo edo jaurgoaren sistema zen, hau da, Erregetzak emandako legitimitatean eraikitzen zen botere aristokratikoaren erresuma. Oro har, pribilegio guztiek zeukaten erregetzaren zigilua, hark ematen eta aldatzen, onartzen edo arbuaitzen bait zituen. Sistema monarkiko-aristokratikoa osotasun gisa abolitzean, berez desagertu behar zuten haiek ere.

Eta hemen hasi zen gaur egun arte iraun duen konfusioa. Baike, antzinako erakunde politiko-judizialetan monarkiaren eskua nonahi ikusten zen; baina, kasu askotan, monarkiak ez zituen sistema original eta autonomoak sortu: antzinako probintziek sortutako erakunde original ezberdinetan sartu zen erregetza, bere probetxurako eraldatuz, ahulduz edo bermatuz, nahiz eta sistema horiek beste jatorri bat izan. Monarkiak emandako irudia, non erregetzaren nagusitza azpimarratzen bait zen, zentralismoaren obra zen; irudi hori errealtate osotzat hartuz, Errepublikak autonomia guztiak ezabatu zituen. Eta monarkia eta aristokrazia likidatu nahiz, monarkia honek kudeatzen zuena beronena balitz bezala tratatu zuen Iraultzak. Kultura ezfrantsesak ukatuko zituen zentralismoak, Abuztuaren 4eko gauean, legitimitate ikaragarria hartu zuen, sortze sortzetik despotismoa akabatzeke nahikundearekin uztartu bait zuten sistema zentralista. Mistika askatzaile ikaragarria zebilen egun horietan; libertatearen egarriz ari ziren diputatuak, eta inor gutxik ikusi zuen libertatearen izenean finkatzen zen injustizia¹⁰.

Hala ere, erreakzioak eta kontradikzioak laster agertu ziren, errepublikar asko federalista bait zen. Bide bihurri bat ibiliko da 1792-1793 arte, non sistema zentralista iraunkorki finkatuko bait da.

Prozesu hau eguneroko borrokan garatu da. Iraultza aurrera eramateko, lekuan lekuko botere tradizionalak (politiko, sozial, ekonomiko edo erlijiosoak) ez ziren fidagarriak; izpiritu berria eta indar iraultzailea garaile ateratzeko, "Comité de Salut Publique" delakoak sortzen dira; Pariseko ideiak errepresentatzeko, Komisarioak etortzen dira. Eta guztion obrak praktika zentralizatzaile bat edukiko du: antzinako erakundeak suntsiturik, miliziak eta behin-behineko gobernuak sortzen dituzte; erakunde ohien botere fiskal eta judizialak eskuratzen dituzte; poliki-poliki, zergetan, soldadutzan, hauteskundeetan, Frantzia osorako araudi berdinak aplikatzen dituzte. Bereziki, nazio-estatua, departamenduak eta herri txikiak ere gobernatzeko, Nazioak emandako legitimitate bat bakarrez osatzen den hierarkia politiko-administratibo bat eta bakarra sortzen da: lekuan lekuko biltzarre eta administrazioak oro botere zentralaren ordezkarien kontrolpean ezartzen dira. Abiada honetan, eta premiazko eginkizun bezala, Frantziar armada bat bakarria izango da (Gobernuarena, noski) eta ordena publikoaz

arduratuko den polizia bat bakarra (nahiz eta espezializatua izan: Gendarmeria, kanpainetan, eta Sûreté deitua, hirietan. Baina biek dute kontrol eta legitimitate bera: Gobernu zentralak ematen die-na).

Prozesu hau Iraultza baino luzeago da, XIX. mendean finkatuko da. Erregetzak hasitako bidea burutuko du, baina zentralizazioaren aurpegia eta edukina aldatu egingo dira: ez da gauza bera Monarkiak egin nahi zuena eta Errepublikak lortzen duena.

Monarkiak igorritako Intendentek tradizioak sortutako botereekin konposatu eta oreka bat bilatu behar zuten, fiskoaren presioa baliatuz indar-harreman berriak inposatzeko, eta erregetzak emandako indarra erabili parlamentuen ahalak murrizteko.

Napoleonen prefektuek hartu zuten intendenteen lekua, baina ez zuten beste jatorriko botereekin paktatu behar. Lekuan lekuko jauntxoek, hasieran, eta kanpainetan bereziki, Errepublikaren legitimitatea ukatu zuten usu; baina, XIX. mendean bukaerarako, onartuta zuten egoera berria: beren eragina mantentzeko, Errepublikako instituzioetan kokatu behar zutela, eta boterea erabiltzeko legitimitatea, gero eta gehiago, Estatu zentralistak eta beronen mekanismo demokratikoei ematen zutela, ulertu zuten haiek, eskualdeetan izandako munta eta zilegitasun tradizionalen eragina, ahulduz eta ahulduz, desagertzera zihoala ikusi bait zuten.

Zentralismoa, lehenik, Monarkiaren abusoekin identifikatzen zen; gero, demokraziak emandako legitimitate progresistarekin. Eta, bitartean, bien zapalkuntza pairatu zuten herrientzat, gauzak okertzen ari ziren: Errepublikaren kontra ekiteko zilegitasuna ez zen gehiago eskubide utzezinen ondorioa, Antzinako Erregimenaren abuso eta pribilegioekin jarraitzeko borondate antierrepublikarra baizik.

Identitate nazionala: Etsai atzerritarren irudia

Hala ere, nazionalismo frantsesak ere hartu zuen parte prozesu honetan.

Lehen aipatu dugunez, zentralizazioa eguneroko borroketan oratzen da, Komite Iraultzaileen eta Pariseko Gobernuen obrarekin lotuta. Eta borroka honen edukina oso modu esankorrez

aurkezten dute garaian garaiko protagonistek: Frantzia erditzen ari da, etsaien kontra, eta etsai horiek, hain zuzen, atzerritarrak dira edo atzerritarren zerbitzutan dihardutenak.

Edozein nazio eraikitzeko, etsai atzerritarren mehatxua guztiz beharrezkoa da, atzerritasun horrek, kontrapuntuz, nazionalismoaren afirmazioa ekartzen bait du.

Frantzia ez da arau honetatik kanpo geratzen. Antzinako Erregimena suntsitzen duten bitartean, oraingo nazioa eraikitzen dute, eta nazionalismo frantsesak indar handia hartuko du. Nolabait, Iraultza sintesi aparta izan da, ideologia demokratikoa eta pasio nazionalista koktel indartsu eta leherkor batean biltzen zituena. Honek eman bide zion duen leku historiko berezia.

Hala ere, ideia nazional frantsesa, nazio natural eta handiaren mitoa, ez du Iraultzak sortzen. XVIII. mendean, dagoeneko, muga naturalen kontzeptua ageria zen¹¹. Mende honetakoa da gero Sieyes-ek¹² ozenki erabiliko duena ere: nola benetako herri frantsesa aristokrazia atzerritar batek zanpatu zuen. Ideia honek zioenaren arabera, herri xehea galiarra da, eta noblezia, berriz, inbasore germano-frankoen ondorengoa. Teoria hau bereganatuz, Iraultzak nobleziaren deslegitimazioa azpimarratzen du; bitan gertatzen da atzerritar: jatorri etnikoagatik, lehenik, eta herri-borondatearen arabera, gero. Honela ixten da oboa: herriaren etsaiak atzerritarrak dira, eta, haien kontrako borrokan, abertzalea eta iraultzailea gauza bat bera izango dira.

Varenes-ko gertakariak¹³ indar berria emango dio arazoari; frogara egina zen, ongi ikusten zen nola, Iraultzaren kontra, aristokratek konplot iraunkorra zeramaten, eta konplot hori Europako Gorte monarkiko guztietan hedatzen ari zen. Beraz, Iraultzaren alde atzerritarren kontra borrokatu behar zen; hala, gerra zibilari gerra atzerritarra gaineratzen zaionean, biek bat egingo dute Iraultzaren errepresentazio estrategiko-ideologikoan. Are gehiago, kanpoko monarkien erasoak Iraultza Handiak zuen balore unibertsala frogatzen zuen, Europa osoan libertatea hedatzeko abian: nazio frantsesak, beraz, bere libertatea finkatzeko eta munduan askatasuna zabaltzeko egin behar zuen bere gerra nazional eta nazionalista.

Errepresentazio honen barnean, gauzak modu argi batez ebaikitzen dira. Iraultzaileak abertzaleak dira, eta hitz honekin ("patriotes") deitzen dute bere burua. Etsaiak, berriz, aristokratikak dira.

Nazionalismoa positibotzat agertzen da, iraultzaileen monopolio haizu bezala.

Bideari jarraiki, kanpoko gerren denboretan aldarrikatuko dira ozenki lehen aipatu ditugun nazionalismoaren osagarri mitikoak (hau da, muga naturalak eta galiarren mitoak).

Eta iraultzaren etsaiak oro, bestalde, atzerritarrak ez direnean, traidore bezala salatzen dira.

Afera argia da: estranjeroren kontra borrokatzen denean, nazioaren aurka aritzen dira gobernuaren legimitatea onartzen ez dutenak. Iraultzaren aurkako jarrera guztiak bahe honetatik pasatzen ziren; konplot aristokratikoaren alde ziharduten Iraultzaren etsaiak oro: zuten hobena, laidogarriena zen, traizioarena alegia. Traiziorik gabeko naziorik ez da; eraikitze nazionalean, kanpoko eta barneko etsaiak bildu behar dira errepresentazio batu batean. Iraultza hemendik ibiliko da.

1792an, atzerritartzat aitortzen dituzte Errege eta noblezia, eta nazioaren gorputzetik at lagatzen. Laster, kanpoko gerra dela eta, etsai atzerritarrarekin edozein konplizitate posible edo imajinario, nazioaren aurkako saldukeriatzat salatzen da. Iraultzaren zuzendarien artean izandako liskar eta garbiketetan ere, traizioaren presentzia guztiz nabaria da; imajinario ideologiko hau herri ezfrantsesen kasuan bizi-bizia izango da.

Adibide bat emango dugu: 1793an aleman hizkuntzaren erabilerak debekatzen da Altsazian¹⁴. Sedizioaren beldurrez erabaki zen hori, izan ere mugaz bestaldean Errepublikaren etsaiak alemanez mintzatzen bait ziren. Baina taktika politiko-militarrak agintzen duen jarrera honetan, errealitatea modu ideologiko eta konplexu batez irakurtzen da: izaera natural eta objektiboa (herriak alemanez hitz egitea) jarrera politiko eta subjektibo batekin nahasten da (alemanez hitz eginez ulertzen dute elkar Errepublikaren etsaiak). Ondorioz, hizkuntzak edukin politiko-subjektiboa hartzen du, eta ideologia nagusi den garai haietan, dimentsio honek garaituko du aipatu dugun egoera natural-objektiboa.

Esan nahi bait da: frantsesez mintzatzea abertzale onaren marka bilakatzen da, eta ikusmolde honek justifikatzen ditu zentralismoaren hizkuntza inposatzeko bortizkeriak.

Azken finean, Iraultzaren unibertsoan errealitateak oro subjektibitatez dira beztitzen. Iraultza aitzina eramateko oztopo objektiboak (hala nola komunitate linguistikoaren erresistentzia eta

gizarte laborarien inertzia) jarrera politiko bezala kontsideratzen dira, eta moralki eta politikoki epaitzen dira. Iraultzaren aurka ikusten badituzte, etsaiaren obra dira eta traizioaren marka.

Ondorioz, Iraultza garaile atera-nahiak traidoreak zigortu beharra dakar. Oztopoak etsaiak ezartzen dituzte; konplota, aristokratikoa eta atzerritarra da. Etsaien aurka, libertatearen etsai atzerritarren kontra, Iraultzak ez du gupidarik izan behar.

Ikusmolde honek dena irensten du: aristokrazia, feudalismoa, antzinakoa, frantses ez dena, atzerritarra... Egoera guztietara moldatzen da, eta gauzen nola pertsonen erresistentzia orori aplikatzen zaio.

Beraz, lehen aipatutako nahasketa (eraikuntza nazionala eta iraultza demokratikoa) aurkitzen dugu berriz ere, baina, honetan, haren dimentsio subjektibo-ideologikoa azpimarratzen ari gara. Ideologia nazionalista-demokratikoa justifikatzen du, libertatearen izenean gainera, oztopo guztien ezabatzea, terrorea erabiliz, gainera, behar denean. Zentralismoaren obra oso kontzientzia onaz jantzen da, balore unibertsal izan nahi duen kontzientziarekin, hain zuzen.

Horregatik, bizitza luzea izan du jarrera honek. Gaur egunean ere, gauzak honela ikusten dira: Errepublikaren etsaiak, berez, komunitate nazionaletik kanpora botatzen dira, eta Errepublika, bere burua defendatzeko, gerra atzerritarretan erabili ohi diren salbuespenezko legeak haien kontra erabiltzeko legitimaturik dago.

Ipar Euskadin Frantziako botereak daraman politika, ikuspegi honen ilustrazio nabaria da. Bertako hizkuntza eta kultura, hala nola erresistente politikoak, frantses izan nahi ez duen multzo baten barnean daude, eta, horregatik, traizio erreakzionarioaren esparruan kokatzen dira; haien kontra giza eskubideak ukatzen dituzten prozedurak erabiltzeak ez du inongo frantsesik harritzen.

Komunitatez komunitate

Konplot aristokratikoaren ideologia oso plastikoa dela esan dugu. Haren azpian, komunitate ezfrantsesetan izandako edozein erresistentzia ikus daiteke. Hala ere, Iraultza onartzeko erresistentzia objektiboek bestelako jatorria zutela esan dugu; bi ditugu na-

gusiki azpimarratzeko: partikularismo historiko-kulturala, eta gizarte laborariaren erresistentzia propioa. Hauei, berezitasun gisa, arazo erlijiosoak gaineratuko zaie.

Altsazia

Altsazia dugu lehen kasu bat. Hizkuntzaz alemanak dira; historiak Frantzia eta Alemaniaren artean astindu duen lurraldea da. 1648an, Frantzia ezarri zuen Westfaliako Tratatuak, 1681ean Strasburg konkistatu zuen Louis XIV.ak. Iraultza hasi zenean, 1789an, Altsazia, oro har, haren aldekoa da: Alemania tiraniaren sinbolotzat jotzen dute, feudalismoari lotuta; hain zuzen, lehen erresistentzia kontrairaultzailea Altsazian jabetza zuten Inperioko printzeek zuten sustatu. Gero, Izualdia heldu zenean (1793-1794), Frantziako beste leku askotan bezala, politika antierlijiosoak eta apaizen kontrako lasterketek asaldatu zuten Iraultzaren aurka herriaren parte bat.

Egia esateko, erresistentzia honetan ez da ageri jarrera nazionalista-kulturalik, altxatzen diren altsaziarrengan. Baina, geroako gero, borondate nazionalista frantsesak ez zuela afera konpondu laster ikusiko da. 1871tik 1918rarte, berriz Alemanian sartu zuten Altsazia. Gertakari honek eman zion parada nazionalismo frantsesari naziotasunaz teoria original bat gauzatzeko. Ernest Renan¹⁵ dugu horretaz idazle ezagunena: borondate subjektiboarekin lotzen da naziotasunak duen indar nagusia; bat egiteko nahikunde politiko-afektiboak indarrak nahikoa du desberdintasun kultural eta linguistiko guztien gainetik pasatzeko. Altsazia frantsesa da libertatea lortzeko Iraultzak piztu zuen borondatez, eta Alemaniarekin lotzen duen hizkuntzaren komunitatea borondate horrek gaindituko du. Hemen, beraz, nazioaren oinarria etnial eta kulturalen ikusi nahi duten teoretatik oso urrun gaude.

Baina tamalez, ez gaude teoriaren mundu intelektual batean, nazio-eraikuntz prozesu gordinen bano. Altsaziako arazoa oso presente egon da Frantziako historia kontemporaneo osoan¹⁶, eta, hain zuzen, nazionalismo ultraeskuindarrentzat ahitu ezinezko iradokizun-iturria izan da. Maurice Barres-ek eta Charles Maurras-ek, besteak beste, hor edan izan dute.

Errepika dezagun, berriz ere, nazionalismoa ez dela inozente. Behin zulutik ateraz gero, nonnahi aurkitzen da: libertatea hedatzeko, Nazio Handiaren ideologian; Inperioa elikatzeke, Napo-

leonen garaian; diktadura eta arrazismoa pizteko, ultraeskuindarren jarreretan. Eta, beti, administrazio zentralistaren desmasiak kontzientzia hoberenarekin justifikatzeko jarrera iraunkorrean.

Korsika

Korsikan, bereziki, lehen aipatu ditugun osakinak ederki ikusten dira: iraultza askatzailea, frantses ez diren nazioen ukamena, eta atzerritarren presentzia, han ditugu aurkitzen.

Korsika Frantziak 1768an hartu zion Genovari, Versailles-ko Itunaz. Hala ere, 1755etik 1768ra independentea izan zen irla, eta Monarkiak, bere kontrolpean ezartzeko, errepresio ugari erabiliko du: atxilotze, deportazio, exekuzioak... Pascal Paoli, independentziaren heroia, erbestera joango da.

1789an, Monarkiak zeraman jarrera kolonialistatik ateratzeko, askatasunaren bila, Frantzian sartzea eskatu zuten Estatu Orokorretan ziren Korsikako ordezkariak. Irlan bertan, errepublikarrek (burgesia eta Buonaparte familia barne) Paoli itzulerazten dute. Korsika osoa, sutuki, Errepublikaren alde dago.

Gauzak laster minduko dira. 1792an kanpoko gerrak dira hasi; Sardiniako espedizioan parte hartzeko ez da oso bero Paoli: mesfidantzaz mesfidantza, ordezkari zentralisten presioa emendatuz doa, etena arte. 1793an Paolik independentzia proklamatu du; Konbentzioak, legez kanpo ezagutuz erantzuten du. Lagunak behar eta Paoli-k ingeles armada deitzen du, eta Ingalaterrako George III.a erregetzat onartzen.

Horiek horrela, 1796an ingelesak joan zirenean, errepresioa eta erreboltaren dialektika hasten da, zentralismo monarkikoaren denboretan bezala. Baina Napoleonek burutuko duen errepresioak beste edukin bat hartu du, atzerritar, aristokrata eta traidoreen aurka eramaten delako.

Esan dezagun, halere, Korsikan aurkitzen dugun oihu independentista eskasa dela frantsesez mintzatzen ez diren beste komunitateetan. Borroka antiiraultzailea ez da lotzen inongo ideia nazionalistarekin, ez Flandrian, ez Breitanian, ez Okzitanian, ez eta Ipar Euskal Herrian ere¹⁷.

Okzitania eta beste

Flandria alde batera utziko dugu, hango gertakizunak orain ikertuko dugun gizarte laborariaren erresistentziatik oso urrun gertatzen direlako.

Bretainia inguruko lurraldeetan (Anjou eta Vendée) eta Okzitaniako Languedoc-en, erresistentziak jarrera berezia hartzen du: Antzinako Erregimenaren defentsari lotuta ageri da. Armada kontrairaultzailearen gorputz nagusia laborari txikiek osatzen dute, lekuan lekuko nobleziak enkuadratzen ditu militariki, eta apaizeriak ematen die zimendu ideologikoa. Kontutan ideologia eta buruzagiak soilki hartzen badira, 1793an bereziki gertatzen den jartzete handia, erreakzioaren obra dela esan daiteke, eta ez gara harrizko konplot aristokratikoaren barnean ikusia eta salatua izan bada.

Hala ere, analisi simple hau maingua da. Egia da herri xehearen altxamendua apaizeria eta jauntxokeria erreakzionarioaren zuzendaritza pean gertatzen dela; baina altxatzeko arrazoi nagusiak ez dira ideologikoak edo politikoak, alderantziz, eguneroko bizimoduari lotzen dira eta, azken funtsean, miseriaren emendatzea zekarren kapitalismoaren sarketaren aurka jartzeten dira laborariak¹⁸.

Ez dira aurrerakuntza historikoa eta progresua konfunditu behar; denboraz aitzinago izateak, ez du esan nahi horrek, beste gabe, libertate gehiago dakarrenik. Herri xehearen bizi-kondizioetan eta eguneroko libertatean ikusi behar dira aldakuntza politikoaren ondorioak. Eta, askotan, nazio-estatu batean ondorioak ez dira berdin neurtzen leku eta klase ezberdinetan.

Dudarik gabe, abiadura propioa daramate laborariak Iraultza-denboretan. Alde dira 1789an, eskubide seinorialak kentzeko borrodatez; baina laster ikusiko da nola burgesiak bere probetxurako esplotatu nahi duen aristokraziarengandik askatzen ari den nekazaleria: hain zuzen, eskubide horiek *diruz* erosi behar zirela erabakiz, joko-erregelak bere alde argi eta garbi eratu zituen¹⁹.

Horiek horrela, 1789an aristokraziaren aurka zegoen laboraria Iraultzaren kontra izango da 1793an, burgesiak Iraultza bere kontrolpean ezartzen zuen neurrian²⁰.

Laborariak kanpainetako burgesiaren aurrean zuten jarrera ulertzeko eta altxamendu kontrairaultzaileen edukina konprenitzeko, frantses edo marxistak ez diren historikariek eman digute

klabe asko²¹. Kapitalismoaren sarketa Iraultza baino lehen hasten da, eta ondorioak aski nabariak ziren XVIII. mendean ere: erren-tak emendatzen ari ziren, diru-ekonomia gero eta hedatuagoa zen, eta, oro har, ustiapen berri hau antzinako dretxo seinorialak baino pisuago gertatzen zitzaion laborari txiki askori. Ugazaba gehienek (burges edo aristokrata) mentalitate ekonomiko berria onartzen zuten; laborari txikien defentsa, ordea, eskasa zen: Elizak, karitatez gozatzen zuen miseria neurri batetan, eta diru-ekonomiaren denboretan bere burua egokitzeke gauza ez ziren jauntxoak laborariak bezain marjinatuak sentitzen ziren.

Egoera honetan, Iraultzak desoreka areagotu egingo du. Mentalitate hiritar eta burgesaren nagusitza ekarri zuen. Honekin batera, gerra atzerritarra mantendu beharrez, zergak handitu egin ziren eta soldadutzarako gizonaltzatzeak biderkatu. Presioak bizi-bizikiak ziren, aristokratik altxatuta zebiltzan, eta, egoera honetan, laborarien erresistentziak armen bideari ekin zion: buruzagitzat, aski modu natural batez onartu zuten Iraultzaren etsai ziren indar tradizionalen nagusitza.

Zita luze bat ekarriko dut, nere ustez egoeraren edukina oso ongi ispliatzen bait du:

De plus, les habitants des Mauges ont quelque chose à perdre dans les réformes qu'on veut imposer à l'Eglise, dont les revenus paroissiaux apportent un certain soulagement aux sans travail, et dont l'autorité fait contrepoids à celle de la bourgeoisie locale. Confier le salut public et le pouvoir politique à ces mêmes negociants et hommes de loi qui ont fait leurs preuves en diminuant les salaires, en augmentant les loyers des terres qu'ils possèdent ou qu'ils administrent, en accroissant sans cesse et pour leur seul profit l'étendue de leurs domaines est une perspective qui, pour le bien-être de la population rurale dans sa majorité, constitue en fait une menace²².

Baina, nobleziaren zuzendaritzapean eta armada atzerritarren laguntzarekin ibili ziren laborari horiek. Eta, gainera, gerra galdu egin zuten. Bi datu horien ondorioz, mugimenduak gorde duen itxura gaurdaino hedatu da.

1792ko irailean proklamatu zen Errepublika Bata eta Ezinzatitua. Gerra Zibilean, laborariek eman zuten armada kontrairaultzailearen masa nagusia; gehiago dena, frantsesez mintzatzen ez ziren nekazariak genituen kontrairaultzaile asko. Errebolta, beraz, konplot aristokratiko antifrantsesaren atal gisa ikusi zuten aber-tzale frantsesek, eta frantses mintzairaren erabilpena, berriz ere,

iraultzaile bilakatzen zaigu. 1794eko urtarrilaren 24ean, frantses mintzaira egitate publiko guztien hizkuntza obligatorioa bihurtu zen, logika kartesiar bati jarraikiz.

Eta, geroztik, erregionalismo guztia susmagarria da, eskuindarra, etsai atzerritarren laguna. Izandako kasu konkretoak, hala nola 1940-1944ean Britainian izandako naziekiko kolaborazioa, erregionalismo guztien esentzia bilakatzen da frantses ideologia politikoaren imajinarioan. Imajinario iraunluze eta astun honetan.

Ideologia nazionalistaren desmitifikazioa

Artikuluaren ildotik, ari gara zerbait agerterazten. Iraultzaren filosofia politikoak borondate nazionalaren gainean finkatu zuen boterearen legitimitatea. Ideia honek, zuzenki, erregetzaren antzinako sistema zapaltzailearekin hautsi egiten zuen, baina tirania berri baten etorrera errazten. Esan nahi bait da: Estatuak botere eta biolentziaren monopolioa eskuratzen du, eta, haren aurrean, gizartea indarge gelditzen da, indibiduo pribatuen multzo bezala. Bien artean ez dago ezer, ez dago legitimitate propiorik duen beste inongo botererik. Horrela, borondate nazionala abstrakzio bilakatzeko da, Estatuak bakarrik gihartzen ahal duena, eta, ondorioz, Estatuak bahitzen duena.

Tirania berria, bereziki, beste edozein legitimitateren ukazioan datza. Estatuak kontrolatzeko, gizarteak hauteskunde demokratikoak erabiltzen ditu, baina kontrol honek ez du jatorrizko hobena ezabatzen. Estatuaren egiturak komunitate edo klase batzuen esistentzia bera ukatzen duenean, ukatuak gertatzen direnentzat demokrazia zapalkuntza bilakatzen da, nahitaez. Kritika hau, Iraultzako sortutako demokrazia errepresentatiboari anarkistek egin diote²³. Hala ere, erraz ikusten da nola Iraultzaren praktikak erakutsi zituen legitimitate berriaren muga tiranikoak.

Errepublikak, soziala zen heinean, jabego pribatua eta jabego honen erabilpen librea onartzen zituen: azken funtsean, burgesiarren erresuma antolatzen zuen. Baina zanpatuak gertatzen ziren langileen elkarrekin debekatzeko, lehen aipatutako teoria erabili zuten: Estatuak eta indibiduoaren artean legitimitate propiorik duen elkarerik ez da, langileen erakunde espezifikoak naziotik bereizten dira, kontrairaultzaileak dira²⁴. Teoria honek, praktikan,

zera suposatzen zuen: langileriaren desarmatze osoa, burgesiak kontrolatzen zuen Estatu guztiz ahaltu baten aurrean. Logika bera aplikatu zitzaion edozein patriotismo erregionali; abertzaletasun haizu bakarra Nazio Handiarena zen, eta, abiada honetaz, gerra atzerritarren kaldaz, separatismoa heriotz zigorra merezi zuen krimena zela aldarrikatu zuen Danton-ek, 1793an.

Baina hemen argi utzi nahi dena zera da: hiri eta probintzien libertateak ukatzea ez da soilki gerraren ondorioa; Iraultzaren filosofia politikoaren barnean dator, haren parte erazteza da. 1789an hasirik, eta bereziki 1793an, Frantzia "hiritarren nazio" bilakatzen da, eta hiritartasuna definitzeko jarrera politikoa da osakin nagusia, ezberdintasun etniko-linguistiko edo historikoak oro ezabatzen dituena.

Pierre Fougeryrollas-ek seinatzen duen bezala²⁵, Iraultzak uzkaile semantiko bat obratzen du: *nazioa*, gizarte modernoa eratzeko forma politiko nagusi, bakar, bilakatzen da; eta, *herriak*, berriz, antzinako komunitate etnikoak, nazionalitateak ditu izendatzen, eta gauza zaharren satora eramaten ditu, despotismo ohiarrekin desager daitezten. Etniatik naziora sortzen duen etena, guztiz politikoa da, Iraultzaren obrak eta filosofia politikoak zulatzen dituena. Frantzia, hain zuzen, despotismoaren aurkako borrokan hedatu da; Nazio Handiak, libertate modernoan atea irekitzen dio mundu osoari.

Hexagonoan, beraz, Iraultzak ematen dio abiada lekuan lekuko patriotismo "txikien" kontrako jarrerari. Egia esan behar bada, ez zuen indarrik obra hori bururaino eramateko: etnia ezfrantsesak desagertzearaino eramaten ari den politikak fruitu nagusiak XIX eta XX. mendeetan emango ditu. Iraultzak, hala ere, edukin progresista eman zion barne-kolonialismo honi. Barne-kolonialismoaren historian, 1968aren inguruan bereziki salatua izan den bezala²⁶, bi nazionalismo frantses mota nahasten dira: lehena, Iraultzatik datorren nazio abstraktuarena, libertatearen obra; bestea, lurra bezain apala, frantses nazionalismo konkretua, hizkuntza kontingente bategi jantzia. Historiaren kritika honek, lehen aipatu ditugun gauzak azpimarratzen ditu. Nola, hasieran, herria despotismoaren aurka jartzeko, lekuan lekuko hizkuntzak erabili ziren (testuak hor daude, euskaraz, okzitanieraz, bretoieraz edo alemanez); nola, laster, Iraultzaren izpiritua gihartzeko, frantses hizkuntza, frantses erresuma eta frantses mito nazionalak inposatu ziren; eta nola, ondorioz, patriota iraultzaile izateko frantses hizkuntza bihurtu zen baliozko aukera bakarra²⁷.

Frantzia barneko herri zanpatuek ez zuten berehalako erresistentzia nazionalistarik erakutsi, Korsikan salbu; baina beste hein ekonomiko, kultural eta historiko azkarrago eta helduagoa zuten Frantziaren inguruko erresumetan, gauzak ez ziren berdin gertatu: Nazio Handiaren mugak eta kontraesanak laster ezarri zituzten begi-bistan hauek.

Lehen denboraldietan, monarkia zaharren aurka, Frantziako patriotismo iraultzailea eredu bilakatzen da: nazio moderno eta libreak eraikitzeko, frantses eredu aldarrikatzen dute Belgika, Renania, Holanda, Italia, Prusia, Austriak eta Errusiako progresistek. Baina, laster, Errepublikaren bulimia eta Inperioaren zanpa nabariak egiten direnean, konkista (nahiz eta frantsesa izan!) onartu nahi ez duten herriengan, sentimendu antifrantsesak bihurtuko dira nazionalismo modernoaren osakin nagusi bat. Sentimendu horien eragina guztiz nabaria da: Italian, Alemanian, Errusian eta Espainian bereziki. Orain arte iraun dute askotan.

Konkista kolonialen desmasiak eta erridikuluak aipa genitzake, baina sobera luze joko luke horrek.

Nabaria da, hala ere, nola libertatea hedatzeko eredu nazional unibertsala nazionalismo arrunt eta zapaltzaile batekin nahastu den. Errealitate kontradiktorio honetan nortasun nazionala ukatu izan duten herrientzat, Estatu zentralak errealitatearen alde bat bakarra, alderdi progresista, erabili du zentralismoa justifikatzeko. Eta, eremu honetan, Iraultzaren errealitate kontraesankor horretaz jabetzea guztiz beharrezkoa da.

Iraultzaren kontraesanezko errealitatea

Hona heltzean, argi gera bedi artikulu hau ez dela Iraultzaren arbuizate soil bat; Bigarren Mendeurrena dela eta, Estatuak inposatzen duen irudi apologetikoaren buelta erakusteko gogoia ez zaigu falta, baina, egia egia da. Iraultza, zentralismo zapaltzaile baten ohandza da; denbora berean, libertatearen bila dabilen herri baten epopeia. Bi aldeak elkarrekin ikusi behar dira, eta erakutsi nola, azkenean, Estatuak herria itotzen duen. 1789tik 1793ra, herriaren mugimenduek deszentralizazioa, autonomia eta demokrazia zuzena bultzatzen dituzte: asanbladak, hautatze irekiak, bozketa publikoa ziren joko erregelak. Hitz batez, Estatu eta zentralismoaren

kontrako jazartze orokorra da, zentralismoa ere, esan dugunez, monarkiaren obra delako: hain zuzen, hori salatuko zuten Kaierekek.

Oldar askatzaile honek herri ekintza originalak eta esanahitsuak bultzatzen ditu: komiteak, miliziak, biltzarreak, elkarteak, festak, okupazio eta suntsitze sinbolikoak, herri-epaiketak... Herriaren soberania aldarrikatzen da, eta, obretan, herri-autonomia-rekin uztartzen da. Intsurrekzio herrikoi batek hartu zuen Bastila²⁸.

Baina, paraleloki, beste prozesu bat gertatzen da. Burgesia organizatzen da; herri-ekintzak bideratzeko eta kontrolatzeko bi-tartekoak eskuratzen ditu. Parisen legeztatzen denean, goi-mailetan armada eta polizia eratzen direnean, han izango dira bere ordezkariak. Estatuak legitimitate bakarra duelako teoria, Iraultzaren obra da; Estatuaren eragin eta autoritatea hiri, herri eta instituzio guztietan hedatzen du. Poliki-poliki, Estatuaren aparatua, legitimitate honetaz jantzirik, beste iniziatiba guztiak itotzen ditu.

Jarrera hau Izualdiak zorrotzen du: Robespierre-k, hain zuzen, zanpatu zuen sekzioen mugimendua (1793-1794) eta honek jo zuen herri-iniziatiben hil-ekila. Termidor-ek, bere aldetik, (1794-1795) argi eta garbi utziko du egoera: harekin, herriaren ordezkariengan uzten den legitimitate errepresentatiboak guztiz garaitzen du herri-autonomian oinarritzen den legitimitate iraultzailea.

Engoitik, diskurtso iraultzailearen funtzioa aldatu egingo da Frantzian: hasieran, kontestazio eta jazartzearen osakina zen; gero, Estatu errepresentatibo modernoaren propaganda eta etsaiak deskalifikatzeko argudio iraunkor bilakatuko da.

Funtzio hau gero eta inbasiboagoa izango da. XIX. mendean, oraindik, antzinako erregimenaren nostalgiak Monarkia eta Eliza gurtzen zituenean, gobernu zentralen errepublikanismoak haize erradikal eta gorriak zituen. Behin Pariseko Komuna zanpatu (1871) eta Elizak Errepublikarekin "Ralliement" delakoa onartu zuenean (1892aren inguruan)²⁹, lekuan lekuko jauntxo gehienek, guztiak laster, bereganatuko dituzte Errepublikaren instituzioak eta portaerak.

Erreakzionarioek eta progresistek, burgesek eta gorriek (salbuespena salbuespen), berdin aldarrikatuko dituzte Errepublika-

ren sakratua eta zentralizazioaren ukiezina, berdin bideratuko dute txarrena eta hoberena lotzen dituen nazionalismo frantsesa.

Hain zuzen, Iraultzaren «blokea» zartarazi behar da. Irudia puskaturik, zentralismoa arbuiatu, demokrazia errepresentatiboaren alde tiranikoak argitan jarri, eta herri iraultzailearen olde libertarioa gureganatu.

E.L.A.

-
- ¹ MICHELET, J. (1847-1853): *Histoire de la Révolution Française*.
 - ² JAURES, J. (1901-1904): *Histoire socialiste de la Révolution française*.
 - ³ MATHIEZ, S. (1922-1927): *La Révolution française*. Hauxe da beronen lanik nagusiena.
 - ⁴ MATHIEZ, A. (1920): *Le Bolchevisme et le Jacobinisme*.
 - ⁵ LEFEBVRE, G. (1951): *La Révolution Française*. SOBOUL, A. (1962): *Précis d'histoire de la Révolution française*. Hauxe dira erreferentzia nagusiak.
 - ⁶ Hona, adibidez, Soboul-ek zer dioen: "La Révolution française fût bien anti-féodale et anti-aristocratique, bourgeoise et capitaliste, nationale enfin. Méconnaître l'un de ces aspects, c'est la dénaturer".
 - ⁷ COMTE, A. (1854): *Système de politique positive*. Bereziki III. liburukia.
 - ⁸ TOCQUEVILLE (1856): *L'Ancien Régime et la Révolution*.
 - ⁹ Berdin egiten dute okzitaniarrek, bretoinek, euskaldunek edo frantses propioek; Ipar Euskal Herrian gertatzen dena mugimendu orokor honen barnean ikusi behar da, berezitasun handirik gabe.
 - ¹⁰ Adibidez, bolada honetan onartuko dira oso testu inportanteak, hala nola Hiritar eta Gizaemakumeen Eskubideen Deklarazioa (1789.08.26an). Zegoen mistika, era berean askatasunzale eta libertizida, ederki deskribatzen du Pierre KROPOTKINEK (1909): *La Grande Révolution. 1789-1793*.
 - ¹¹ Itsasoak, Pirinioek, Alpeek, Rhin eta Meuse ibaiek mugatzen dute Frantzia "natural" hori.
 - ¹² SIEYES, E.J. (1789): *Qu'est-ce que le Tiers Etat?*
 - ¹³ 1791ko Ekainaren 20an erret familiak Frantziatik ihes egin nahi izan zuen. Bidean zihozela, Varennes hirian atxilotzen dituzte, eta handik Parisera eramane.
 - ¹⁴ 1793ko Abenduaren 17an, hain zuzen. Jean-Louis CALVET-ek dioenez, "c'était une mesure à la fois impopulaire et inapplicable" (*Le colonialisme linguistique en France*, 1973). Baina Austria eta Prusiako armaden hizkuntza alemana zen.
 - ¹⁵ RENAN, E. (1882): *Qu'est-ce qu'une nation?*
 - ¹⁶ "La Question d'Alsace-Lorraine" deitua.

- ¹⁷ Ipar Euskal Herriak artikulua berezi bat du aldizkari honetan; hemen gutxitan aipatuko da, beraz.
- ¹⁸ Egoera berezi honek gurean ere kezkatu ditu karlismoaren historia eta Ipar Euskadiko fededuneria ikertu dituzten abertzaleak. Neuk ukitu dut gaia bi lanetan: "Mediación y alienación: del carlismo al nacionalismo burgués", 1978, eta "Ipar Euskal Herria: 150 urte historiarik gabe (1789-1934)", 1978.
- ¹⁹ Kropotkin-ek (lan aipatua) munta oso handia ematen dio laborari eta burgesen arteko kontradikzio honi.
- ²⁰ Historiografia marxistak asko egin du laborariaren egoera argitzeko. Testu nagusia: LEFEBVRE, G. (1932): *La Révolution française et les paysans*.
- ²¹ Adibidez, COBBAN, A. (1964): *The social interpretation of the French Revolution*.
- ²² TILLY, Ch. (1986): *La France conteste*. Harvard University Press. Autore amerikarra.
- ²³ Irakur, bereziki, Rudolf ROCKER (1949), Rousseau-ren eragina eta Iraultzaren filosofia politikoa salatzen: *Nacionalismo y cultura*, eta berezikiago X. kapitulua ("Liberalismo y democracia").
- ²⁴ Le Chapelier Legea 1791n onartzen da, ekainaren 14ean: estatu edo lanbide bereko hiritarren elkarteak debeketzen ditu. Lege hau aipatuz, Yves PERSON-ek (*L'idéologie de l'unité*, 1973) azpimarratzen du langileak eta nazionalitateak ukatzeko mentalitatearen batasuna.
- ²⁵ FOUGEYROLLAS, P. (1987): *La Nation*.
- ²⁶ Ikus, erreferentzia nagusi (baina ez bakarrik) bezala: LAFONT, R. (1967): *Sur la France*, eta FOUGEYROLLAS, P. (1968): *Pour une France fédérale*.
- ²⁷ Ikus, bereziki, Jean-Louis CALVETen lan aipatua.
- ²⁸ Iraultzaren historia idatzi denean, askotan isildu dira herriaren iniziatibak. Bi testu gomendatuko ditugu: GUERIN, D. (1946): *La lutte de classes sous la Première République*; eta SOBOUL, A. (1968): *Les Sans-culottes parisiens en l'an II*.
- ²⁹ Ipar Euskal Herrian ere gertatu zen fenomeno orokorra ezagutzeko, irakur INTXAUSTI, J. (1972): *Iraultzaren hildotik*. Jakin, Oñati.

LA REVOLUCION Y LAS NACIONES NEGADAS DEL HEXAGONO
LA RÉVOLUTION ET LES NATIONS INTERDITES DE
L'HEXAGONE

El autor expone en la primera parte del trabajo las coordenadas principales dentro de las cuales se mueve la ideología nacida y desarrollada en torno a la Revolución Francesa. Hace una exposición del "Mito progresista de la Gran Revolución", siguiendo el discurso clásico y diverso de Michelet, Clemenceau, Mathiez, Soboul o Comte.

En las páginas que siguen a esta introducción, se atiende al tema del centralismo político, renovado y fortalecido a partir de la Revolución. Se recuerdan las decisio-

nes institucionales y las opciones ideológicas que fundamentaron dicho centralismo, para pasar a ofrecer una reflexión histórica sobre el desarrollo de la identidad nacional francesa a partir, en nuestro caso, de un nacionalismo que ha encontrado su simbología en la Revolución. Las guerras republicanas, en respuesta al acoso internacional de las Coronas reales europeas, contribuyeron a cohesionar el espíritu nacionalista de los revolucionarios.

En el capítulo final del trabajo se pasa revista a las diversas comunidades y etnias del Hexágono francés. Se recuerdan las vicisitudes y avatares revolucionarios a que han debido hacer frente dichos colectivos nacionales, ante una concepción política del Estado que nos les ha favorecido en su desenvolvimiento histórico ulterior: Alsacia, Córcega, Occitania, etc.

Dos breves reflexiones finales completan el análisis expuesto: La desmitificación de la ideología nacionalista, y la realidad de las contradicciones internas de la Revolución.

L'auteur expose dans la première partie du travail, les coordonnées principales à l'intérieur desquelles l'idéologie née se meut et se développe autour de la Révolution Française. Il fait un exposé du "Mythe progressiste de la Grande Révolution" en suivant le discours classique et divers de Michelet, Clémenceau, Mathiez, Soboul ou Comte.

Dans les pages qui suivent cette introduction, il s'occupe du thème du centralisme politique rénové et fortifié à partir de la Révolution. Les décisions institutionnelles et les options idéologiques qui furent le fondement de ce dit centralisme sont rappelées sans oublier une réflexion historique sur le développement de l'identité nationale française à partir d'un nationalisme qui a trouvé sa symbologie dans la Révolution. Les guerres républicaines en réponse au harcèlement international des Couronnes royales européennes ont contribué à la cohésion de l'esprit nationaliste révolutionnaire.

Le dernier chapitre passe en revue les diverses communautés et ethnies de l'Hexagone français. On rappelle les vicissitudes et avatars révolutionnaires dont les collectifs nationaux ont dû faire face devant une conception politique de l'Etat qui ne les a pas favorisés dans leur déroulement historique ultérieur: Alsace, Corse, Occitania, etc.

Deux brèves réflexions finales complètent l'analyse exposée: la démythification de l'idéologie nationaliste et la réalité des contradictions internes de la Révolution.

Frantziako iraultza eta Euskal Herria, kronologiaren harian

Manex Goihenetxe

Frantziako Estatu Nagusiak

1789.eko maiatzaren 5erako deituak izan ziren Frantziako Estatu osoak. Erret administrazioak kontuan hartu zuen administrazio-barruti bakarra izan zen baile-barrutia (*bailliage*). Baina nola Euskal Herriak ez zeukan administrazio-nortasun osorik, Landeetako Akizen kokatua zen seneskaltegira (*sénéchaussée*) deituak izan ziren Euskal Herriko parropia guztietako ordezkariak. Joko hori ez zuten onartu ez zuberotarrek, ez Lapurtarrek, are gutiago Behenafatarrek. Baina Lapurtarrek zuten protesta gogorrena adierazi 1789.eko martxoaren 7an idatzitako gutun baten bidez. Luis XVI.a Frantziako erregeak amor eman zuen martxoaren 25ean eta Ipar Euskaldunak eskualdeka deituak izan ziren, ohizko instituzioak errespetatuz.

Lapurtarren prestakuntza

Uztaritzeko elizan bildu ziren apirilaren 19an, noblezia eta eliza batera Hirugarren Estatuarekin (tiers état) elkarturik, lehen aldia bait zen horrelakorik gertatzen zela: kontuan hartu behar da ordurarte Hirugarren Estatuak (parropietako ordezkariak) zutela osatzen Lapurdiko Biltzarra. Hiruzpalau egunez eztabaidan ari izan ondoan, bereiziki eskarien idazteko, ordezkariak aukeratu zituzten: elizaren izenean Ziburuko erretorea, nobleziaren izenean Piarres Nikolas Haraneder, jaiotzez Donibane-Lohizuneko burges semea, ezkontzaz Makeako bizkonterria eskuratu zuena. Estatu Lauaren izenean, Garat anaiak izan ziren izendatuak.

Zuberotarren prestakuntza

Maiatzaren 18tik uztailaren 3rarte iraun zuen zuberotarren jardunaldiak. Elizaren bozeramale eman zuten Oloroeko apezpikua, Villantrex de Faye, Tolosako artxapezpikuaren senidea. Nobleziak, aldiz, aukeratu zuen Behenafarroako Uhartehiriko jaun markesa, Ostibarreko baile zena, baita ere Larraineko labeen jabe, jaurgoari lotuak ziren epaiketarako eskubideak bereganatuak zituena Amikuzeko 27 herrietan (Uhaxtehin, Donamartiri, Donostiri, Sorhapuru, etab.) Zalgizeko abadiaren apaiz laikoa zen eta ofizioz Frantziako Dragoi gudaosteko kapitaina.

Estatu Lauaren ordezkari aukeratuak izan ziren Mauleko bi burges: Arraing auzapeza eta Escuret-Laborde notarioa: biek "de" nobleziadun izkia erabiltzeko eskubidea eresia zuten.

Behenafartarren prestakuntza

Hasieran ez zuten gogo handirik Behenafartarrek ordezkariak bidaltzeko Parisera, zioten ez zirela Erresuma berekoak eta juridikoki arrazoia zeukaten zeren eta betidanik Nafarroa Behereko erresumak bere nortasun juridikoa gorde zuen. Halere Nafarroa Behereko Gortek biltzen dira Donibane-Garazin, 1789eko ekainaren 15ean eta hiru astez lanean aritzen. Utzi dizkiguten eskuzkribuak ikertzen badira, nabari da Nafarroa Behereko Gortean eztabaidatuak direla orduan Parisen aipatzen diren gaiak, baita ere Nafarroa Behereko Erresumaren nortasun juridikoari dagozkion

puntu garrantzizko batzu; adibidez, Nafarroa Beherea nazio bat ote da?, Konstituzio-kontzeptua, Erregeak errespetatzen ez duen zina, ohizko Foruak, etab. Dena den, "delegazio" edo ordezkari-tza bat aukeratua izan zen, ez Frantziako Estatu orokorretan parte hartzeko, baizik eta Parisen zegoen "Erregearengana joateko". Ordezkaritza osatzen zutenak ziren Baionako gotzaina (Nafarroa Behereko mendebaldea Baionako diozesian zegoen), Oluntzeko markesa (Donibane-Garazi eta Eihalararre biderdian zegoen orain desegina den jauregia). Estatu Lauaren ordezkari emanak izan ziren Vivie Garruzeko merkataria, Frantxiztegi, Donibane-Garaziko notarioa.

Pariseko Batzar Nazionala eta Euskaldunak

1789.eko ekainaren 17tik goiti Estatu Nagusiak bihurtu ziren Asanblada edo Batzar Nazionala (*Assemblée Nationale*) eta uztailaren 9an Batzar Konstituziogilea, Frantziako Estatuari Legeria berri bat (Konstituzioa) eta Lurralde-antolaketa berri bat eman nahian. Lan honek iraun zuen 1791ko irailaren 30erarte. •

Batzar Nazionaleko aktek ikertuz ikus dezakegu nolako jarrera hartu zuten Euskal Herriko ordezkariak eta zenbatetaraino onartuak izan ziren Batzar Konstituzioagilearen dekretuak.

Abuztuaren 4eko gaua

Eskubide feudalak (edo salbuespenak) ezeztatuak eta kenduak izan ziren, horiek bait ziren Erregimen Zaharreko aginte politikoren eta aginte sozialaren zutabea. Erregimen Zaharraren garaiko ezaugarritzat harturik, desegin zituzten Frantziako Estatu barruan bizirik zeuden "probintzien" erakunde eta instituzioak, adibidez Lapurdiko Biltzarra. Nafarroa Behereko Erresuma aldiz bateratu zuten Frantziakoarekin. Behenafartarrak ez zeuden abuztuaren 4eko gau horretan, Frantziako Estatu Orokorretan (eta, beraz, Batzar Nazionalean) parte hartzeko gogorik (eta juridikoki eskubiderik) ez zutelako. Polverel sindikoak idazki batzuk plazaratu zituen. Zuberotarrek eta Lapurtarrek herritar mandatariegiengandik manu ukana zuten biltzarrean ez parte hartzeko, baina denok biltzarrean joan ziren. Gero Zuberotarrek ateratu ziren, Lapurtarrak

aldiz barruan gelditu, isilik eta protesta handirik adierazi gabe. Ez ahanztz Garat anaiak entziklopedista ideien alderakoak zirela, frantses filosofoen jarraitzaile (Voltaire, Montesquieu, Condorcet irakurriak zituzten), Mirabeau eta Talleyrand-en adiskideak ziren. Ulerterraza da ikustea filosofoen mugimendua segituz, Lapurdiko gizartea eraberritu nahian, erregimen feudalarengandik gizarte berri eta aske bat eraiki nahian, Erregimen Zaharraren garaiko oroigarri ziren erakundeak zaintzeko gogo guti erakutsi zutela.

Beste bi aldiz ideia beretsuak azaldu zituzten Garat anaiek: 1790eko otsailaren 13an eta ekainaren 7an, Ordena Erlijiosoak deseginak izan zirelarik eta Apaizen Konstituzio zibila emana. Aldi bakoitzean Voltaire-ren eskolako jarraitzaile agertu zen Dominique Garat.

Lapurdiko Biltzarraren azken bilkura

Ez ziren ados izan Lapurtarrak Garat anaiek zeramaten jokamoldearekin eta protesta bat, nahikoa argia, helarazi zieten 1789eko irailaren 5ean, "zintzotasun handiagoz jokatuko zutelako esperantzan". Ez dakigu zuzen nola eta nork bultzaturik idatzia izan zen gutun hori. Jakin behar da Lapurdiko Biltzarrean bertan etsaiak zituztela hala nola Uztaritzeko Iturbide abokatua.

Euskararen sarrera Frantziako Konstituzio berrian

1790.eko urtarrilaren 14ean dekretu bat hartua izan zen lege guztiak Frantses Estatuko hizkuntzetara itzuliak izan zitezela. Lan horren berri aurki daiteke Pariseko Artxibategi nazionalean, Dugas kolekzioan. Adibidez hor emana da 1791.eko abenduaren 16an Baionatik konstituzioaren lagunek bidali gutun bat euskarazko itzulpenen beharraz. Frantziako Konstituzioa ere euskararat itzulia izan zela diote zenbaitzuek, baina ez daukagu jatorrizko artxiborik.

Lurralde-antolaketa berria: departamentuak

1790.eko udaberri osoan eztabaidatu zuten Batzarre nazionalen Lurralde antolaketa, berri bat zutik eman behar bait zen Erregimen zahar garaiko administrazio-barrutien ordainez. Euskal

Herriari buruz urtarrilaren 8an hasi zituzten lanak, lehen dekretu bat hartu urtarrilaren 12-an, Euskaldunak eta Bearnesak administrazio-barruti beraren barruan emanez. Garat anaiak proiektu honen aurka agertu ziren. Baina urriaren 5ean ez zuten oraindik trenkatua zein hiri aukeratu behar zen Departamentu berriaren nagusi: Pabe, Nabarrenkize (Navarrese) ala Baiona. Orogen buru Pabek eraman zuen auzia.

Dominique eta Josep Garat anaien gorakada

Ez uste izan Lapurtarrak Iraultzaren uhain berrietarik urrun egon zirela. Garat anaiak lehen mailako alkiraino iritsi ziren. Aski da irakurtzea Iraultza denborako egunkaria *Gazette imperiale* edo *Le Moniteur Universel*. Hor ageri da Dominique Garat hizlari handienetarik izan zela, hizlari ederra, usua eta zorrotza: eztabaidatuak ziren puntu guztiei buruz bere eritzia deplauki ematen du, eraberrikuntza edo aldaketa sozio-politikoan alde jarritz, Iraultzak bideratzen ari zuen gizarte berriaren eta librearen alderako legeria indarrean emanez. Horregatik 1790.eko uztailaren 3an Asanblada Konstituziogilearen Idazkaritza eskuratu zuen eta kargu berri hori bete bukaeraino, hots 1791ko irailaren 30erarte. Josep Garat, anai gazteena, aspaldidanik filosofoen mugimenduaren arloan sarturik zegoen: *Mercure de France* eta *Encyclopédie méthodique* aldizkarietan lan egiten zuen kazetari kritiko gisa. Batzar Konstituziogileko "ezker" aldeko alkitan jarri zen, Iraultzaileek hartu erabaki eta dekretu guztien alde bozkatu zuen. Bestalde, egunero, Batzarrean iragan gertakarien bilduma bat ematen zuen *Le Journal de Paris* egunkarian. Ez ahantz ere Dominique Garat izan zela Bordaleko Framazoi (Franc-Maçon) taldea sortu zuena. Beraz bi pertsonai hauen inguruan gorpuztu zela Frantses Iraultzaren alderako mugimendua; gizartean eta erakundeetan biziratu aitzin, pentsakeran eta gogotan landurik zegoena, gizarte eraberritzearen alderako gogo filosofikoa eta politikoa zeraman uhaina zabaldu zen gutienez Lapurdin. Lapurdiko boz-eramale ziren Garat anaiak Iraultza-garaiako kargu gorenetara iristeak zerbait esan nahi du ere, baita ere Frantses Estatu berriko lurraldearen eta legeriaren antolaketa parte hartzeak. Gero galdera da, filosofoen mugimendua segituz, Iraultza horrek bultzatuko zuen politika berdinzalea eta erdirakoia zenbateraino sostengatu zuten. Hanka sartze haundia egin genezake Garat anaien ildoak ikertuz gaurko gure begiekin eta erizpideekin, bereziki abertzale erizpideekin. Berek anitzetan dioten beza-

la, XVIII. mendeko "Basques-Français" agertzen dira; bata, Dominique, frantses monarkia konstituzionalaren aldekoa, itxuren arabera bederen, baina eraikitzen ari den Frantses Estatuko "Nazio" konzeptu berria dudan inondik ere ez du ematen; ildo honeatik joanez, horrelako ateraldiak ere zerbait esan nahi du:

Je me surprends souvent dans mes moments solitaires à pousser de profonds soupirs vers ma famille et vers ma patrie. L'un et l'autre m'appellent: mais je dois les faire taire, quand la voix de la Nation me parle (*Le Moniteur Universel*. 1790.eko apirilaren 19an).

Josep Garat-ek argitaratu zuen *Mémoires sur la Révolution française* liburutto bat eta gaur Gaulixtek berek berengana dezaketen "frantses errepublika"ren alderako atxikimendua adierazten digu:

A sa naissance même je voyais la République française déjà menacée de cet esprit de tous les combats de parti qui ont désolé et ensanglanté toutes les républiques (*Mémoires sur la Révolution française*, 17. orrialdea).

Batzar Legegilea eta Konbentzioa

Batzar Konstituzionalaren segida hartu zuen 1791.ko irailaren 30ean. Ipar Euskal Herriko administrazio-egitura berriak indarrean emanak dira: "Basses-Pyrénées" deitu departamentua osatzen du Biarnoarekin batera. Hasieran hiru hiri aukeratuak izan ziren Euskal Herrien eskualdeetako hiriburutzat: Maule, Donapaleu, Uztaritze. Mementoz beraz Uztaritze nagusitu zen Baionari.

Parisen aldiz emigratuen edo atzerriratuen aurkako lehen dekretuak hartuak izan ziren 1791ko larrazkenean. Jadanik Euskal Herrian noble batzuk ihes joanak ziren, hala nola Baionako gotzaina, Mgr de Villevielle; Goi Nafarroara joan zen eta handik 1790eko uztailaren 12an bozkatua izan zen Elizaren Konstituzio Zibila salatu zuen, Europatik eta Erromatik Pio VI.ak eta Prusia-Alemaniko Printzeek prestatu eraso diplomatikoarekin bat eginez.

Hala ere apaiz juratuak (Konstituzio Zibilaren alde zin egin zutenak) agertu ziren Donibane-Lohitzunen, Senperen, Urruñan, Urketan, Orzaizen, Domintxinen, Ahetzen, Itsasun, Mugerren, Beskoitzen, Kanbon, Larresoron, Bardozen, Ezpeletan, Maulen,

Barkoxen, Eskiulan, Aïñharben, Lohitzune-Olhaibin. Ez dira herritar guztiak ados, haserreak nabari dira herri batzuetan (Sara, Itsasu, Mugerre). Apaiz juratuen aurkako lehen abestiak ere azaltzen dira: ikus Salbat Monho-ren olerkiak.

1792ko abuztuan konbentziorako hauteskondeak ospatzen dira eta aitzindari berriak agertzen dira, konbentzionalak: Lapurta-
ren izenean Meillan baionesa, Dhiriart notarioa, eta Sanadon go-
tzain berria; honek Euskaldunon nobleziaz bazuen liburu bat ida-
tzirik: "Essai sur la Noblesse des Basques". Irailaren 22an Errepublikak aldarrikatzen du Konbentzioak. Monarkia kendua da. Dominique Garat Uztaritze bere sorterrirat itzuli zen 1792ko irai-
laren 6-an eta urriaren 14ean Uztaritze barrutiko (distritoa) diru-
zain izendatua izan zen. Esan daiteke frantses monarkiarekin bate-
ra Dominique Garaten karrera politikoak ere lurra jo zuela. Josep
aldiz Parisen zegoen, Iraultzaren eta Errepublikaren sustatzaile,
Condorcet ospetsuaren lagun mina bihurturik. Urriaren 9an Justi-
ziako ministro izendatua izan zen eta kargu hori bete zuen hamar
hilabetez. Ondorioz, berak zion heriotz zigorraren erabakia helar-
razi Luis XVI.ari 1793ko urtarrilaren 20an.

Europaren aurkako gerraren ondorioak

1792ko apirilaren 20an gerra adierazi zion Austriari Batzar le-
gegileak eta 1793eko martxoaren 7an Espainiari. Ondorioz, Iraul-
tzaren aldeko mugimendu herritar bat zabaldu zen Garazi-Baigo-
rri aldean, Espainolen beldurrez. Zeren eta Arnegi-Aldude-Orrea-
ga arteko muga bakarrrik 1785ean finkatua izan zen. Ikusirik orain
gerra egiten ziola Frantziari Espainiak, jendea beldur zen muga
hori berriz apurtua izango zela eta "Espainolek" eskuratuko zituz-
tela Garaztar eta Baigorriarren baso eta bazka lekuak. Bertako
jendea mugazain bihurtu zen, "chasseurs basques" lagundia osa-
tuz. 1793. urtean hamar lagundi (edo konpainia) osatu zituzten.
Buruzagien izenak ezagunak dira: Darhampe, Lassalle, La Victoire
izen-ordeko Uhartiar bat (Matenotte deituraz) eta bereziki Haris-
pe kapitaina.

Konbentzioa eta Euskaldunen desterruak

Aspaldidanik Sarako jendea nahiko epel zegoen Iraultzari buruz. 1793.eko azaroaren 24ean, Donibane-Lohizuneko udalak agiri bat saratarrei zuzendu zien adieraziz herri horretako jendea Iraultzaren aurka zegoela, aristokraten eraginpean, Espainiaren alderako espioiez beterik, eta ondorioz Iraultzaren aurkako herritar horiek desterratu behar zirela. Ber denboran, nola gerran sarturik Frantzia eta Espainia, Pirene Mendebaleko gualoste iraultzaila osatua eta bildua izan zen, Baiona, Hendaia, Donibane Garazi eta Aldude artean sartu zena. Mugaz bestaldean, Emigratuen Legio bat aterbeturik zegoen, Saint-Simon jaunaren buruzagitzapean. Elizaren Konstituzio Zibila eta Monarkiaren galerapena onartu ez zuten Euskaldunak ere elkartzten ziren Emigratuen Legioaren babespean. Bereziki 1794eko otsailaren 19an eta 20an Itsasuko 47 gazte ihes joan ziren S^t Simonen gualostearen aterbepean. Konbentzioak bidali ordezkariak (*Représentants en mission*), hor dira Pinet eta Cavaignac, erabaki bat hartzen dute 1794ko martxoaren 3an:

Arrêté du 13 ventôse 1794:

Art. 1^{er}:

Les habitants des communes infâmes de Sare, d'Itxassou, d'Ascain, seront enlevés de leur domicile et conduits à une distance au moins de vingt lieues des frontières; il en sera de même de tous ceux dont les domiciles utiles ne seront pas situés à plus d'une lieue de la frontière, dans l'intervalle qui separe les communes d'Ascain et d'Ainhoa. Sont exceptés de cette mesure, commandée par le salut public et la scélératesse des monstres indignes d'être Français tous les citoyens qui, dans les communes et sur les territoires désignés, auront donné les preuves constantes et authentiques de civisme et d'amour pour la patrie.

Art. 2:

Tous les habitants des communes d'Espelette, d'Ainhoa et de Souraide sur le compte des quels il sera élevé ou s'élèvera le plus léger soupçon de haine pour la Révolution et d'amour pour les Espagnols seront, avec leurs familles entières soumis à la même peine.

Desterratze-lan praktikoen buru zen Uztaritze Bereterreneko alabarekin ezkondua zen Ainhoar merkatari bat: Mondutegi, epaile izendatua zena. Honekin ibili zen ere Dagerresar notarioa, jaitzez mugertarra eta Sarako Iturbide auzapezaren etsai amorratua.

Beraz Sara, Itsasu, Azkaine, Ezpeleta, Ainhua eta Zuraideko jende andana bat desterratua izan zen, eta haien ondasunak bahituak. Ezin da jakin zenbat jende hartu zuten konbentzionalek. Adibidez, badaukagu Itsasuko desterratuen zerrenda (hauek Uzta-ritzeko epaitegian zigortuak izan bait ziren). Orotara Itsasuko 211 izen-deitura agertzen dira; ofizioz dira laborari, zapatagile, dendarri, hargin edo teilagile. Lehen egunetan, elizetan preso sartuak izan ziren eta gero Frantses Estatuko hego-mendebaldeko bost departamentutara desterratua izan ziren, gizon, emakume, gazte, ume ala zahar: Lot, Lot-et-Garonne, Gers, Landes, Basses-Pyrénées, Hautes-Pyrénées.

Baina Parisen, Robespierre, konbentzionalen burua aurtiki zuten 1794eko uztailaren 27an. Ondorioz Pinet eta Covaigac beren kargutik kenduak dira. Irailaren 29tik goiti erabakia hartua da Lapurdiko desterratuak etxera itzul daitezkeela eta bahituak izan zaizkieten ondasunak berriz eskura zitzaketela. Egia esan ondasun anitz lapurtuak eta hondatuak izan ziren. Badakigu 1795eko otsailaren 16.an lapurrak epaituak izan zirela Uztaritzen.

Frantses Iraultza eta Hego Euskal Herria

XVIII. mende hasieratik Gipuzkoan gandi nabari zen Ilustrazio mugimendua, Azkoitiako Zalduntxoenginguruan, Frantziako eta Europako filosofoen mugimenduari loturik zegoen. Ez ahanztu, "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País" elkartearen asmoetan zela Europako teknika eta zientzia berriak Euskal Herrian sartzea, humanismoa zabaltzea. Voltaire eta Rousseau batekin harremanetan zeuden.

1794eko ekainetik aurrera Gipuzkoan sartu zen frantses Estatuko armada iraultzailea, Moncey, Harispe eta Cavaigac generalak buru. Baztan-aldea hartzen dute, Donostian sartzen abuztuaren 4an 1795eko uztailaren 16an Gasteiz baitua da eta 22an Bilbo. Jadanik Gipuzkoako Foru Aldundia erdibiturik dago: zenbaitzu Getarian bildu ziren eta honelako proposamena egin frantses armadari:

que sea la provincia independiente como lo que fue hasta el año 1200.

Cavaignac, frantses jeneralak, duda-mudatan egon ondoan, Gipuzkoa frantses Errepublikaren barruan sartzea proposatu zuen (1794eko abuztuaren 20an) eta azkenik gipuzkoarrekin elkarrizketen sartu ondoren, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiarekin ere "República independiente" bati buruz abiatu zen.

Baina nola 1795.eko uztailaren 22an jadanik bakea izenpetua izan zen, Gipuzkoarren asmo autonomistek ez zuten segidarik ukan. XIX. mendeko gerra karlisten hasieran garai batez autonomista agertu zen jende hori bera liberalen alde jarri zen.

Bururapen gisa

Frantses Iraultzaren esanahiaz eta adierazpenaz gogoeta-gai batzuk bilduko ditugu hemen irakurlearen lagungarri.

Frantziako Iraultzaren teorizatzaile franko izan da, eta izango; teoria marxistakorik liberaletaraino, bakoitzak berea aurki dezake. Ez gara eztabaida horietan sartuko hemen. Flammarion argitaletxeak agertarazia du liburu bat oso irakurterraza gai horretaz: *La révolution française, mythes et interprétations. 1789-1970.*

Euskaldunek ikerketa gutxi dute eginik. Alta, bada zer egin. Hona hemen premiazkoak iruditzen zaizkidan aztergai batzuk:

Feudalismoaren arazoa

Feudalismoak ez zela Euskal Herrian (Iparraldean) gertatu bakarrik esatea tontokeria baizik ez da. Zentzu klasikoaren moduko feudalismo jatorrik ezin da aipatu XVIII. mendean. Baina *jaurgoa* (*seigneurie*) hor zegoen. Non zen zabaldu XVIII. mendean jaurgoa eta nolakoa zen: jaurgoa ekonomikoa, ala jaurgo politikoa ere. (Ikus Baigorri-n Etxauz-eko jaurgoa, edo Uhartehiriko markesa, adibidez). Nolako eta zenbatetarainoko harremanak edo loturak bizi ziren nobleziaren eta burgesiaren artean (adibidez, ikus Donibane-Lohizuneko Haraneder merkatarri ospetsuaren arazoa ezkontzez Makeako bizkonterria eskuratu zuelarik). Esan nahi bait da, XVII-XVIII. mendeetan, nork erosi zituen edo eskuratu jaurgopeko lurrak, eta nola baliatuak eta erabiliak ziren: Zein ziren lanerako baldintzak jaurgopeko lurretan bizi ziren nekazariarentzat?

Nazio-ondasunen salerosketak

Elizari eta nobleziari bahitutako ondasunak Nazioarenak bihurtu ziren (*biens nationaux*) jende dirudunak (burges, merkatarri, ofiziale) eros zitzaakeela. Pabeko Artxibategian daude nazio-ondasunen salerosketetaz egin tratuak eta kontuak: hor iker daiteteke zein jende-mota aberastu zen Iraultzari esker. XIX garren mendeko lurjabe errepublikatiarren historia egiteko dago. Eta, beharbada, historia horrek Iparraldeaz gauza asko esplika dezake (lehen eta orain ere). Lurraren ideologia, lurraren arazoa ez ote da funtsezkoa Iparraldeko historian?

Herri-lurrak

Erregimen zaharraren garaian, Euskal Herriko Foruek zaintzen zituzten herri-lurren garrantzia (baso, oihan, larre) ezin ukatua da. Beroriei esker, bizibide orekatu batek irautu zuen, Iraultzatik aurrera desegin zena. Iraultzak desegin bait zituen ere herri-lurrrak. Baina ikergai hau ez da batere sakondua izan. Herri-lurren legea ez zetorren bakarrik Parisetik. Herriek ere (udalek hobeki esateko) herri-lurren salmenta eta banaketa eskatu zuten, zein jende motak bultzaturik? Eta noren probetxu? Nor zen baliatu? Nekazari joriak, ala nekazari ttipiak?; lur guti zeukatenak edo, beharbada, batere lurrik ez? Eta Iraultzari esker, herri-lurren salmentaren eta banaketaren bidez zenbat jende ez ote zen lurjabe bilakatu! Galdera eta ikergaia premiazkoa da: lurraren erabilpena eta gozamenaren erabilpena, lurjabe goaren aldaketa eta transferentziak, zeren eta nekazal transferentziak izan bait dira, Iparraldean, XIX-XX. mendeetan lur-ekonomiaren sustrai bihurtu direnak, herri batzuetan bederen: ez dezagun gehiegi mitifika euskal baserrien iraunpena eta egonkortasuna.

Berdintasunaren eta libertatearen egarria

Ohizko Foruen araberako eta Erregimen zaharraren garaiko euskal instituzioen funtzioa zen herriko bizilagunen arteko elkar-goia osatzea eta biziartzea, eguneroko gorabeheri ihardukiz eta elkarrekiko erabaki kolektiboak hartuz. Hori oso argi nabari da Lapurdiko Foruan. Elkarrekiko kudeantza kolektiboa zuen zaintzen eta bizi eratzen herri-biltzarre bakoitzak, herritar bakoitzari araberako ibil-arauiak hertsatuz, kontuan lehenik hartuz ez nor-

beraren nortasuna edo garapen indibiduala, baizik eta etxaldearen geroa segurtatuz, ber denboran herritar guztien arteko kultur eta ideia-berdintasuna finkatuz. Baina XVIII. mendearen bukaeran ohizko funtzio historikoa betetzen ote zuten XVI. mendearen hasieran eraikiak izan ziren instituzioek, ikusirik artzairen-nekazariren mundutik at, beste klase batzuk Euskal Herriko gizartean ere desarroilatu zirela, bereziki merkatariak eta ofizialeak, administrazioko funtzionariak ("officiers"), legegizonak (abokatu, epaile, notario). Filosofoen iturriko ura edan zutela ez da dudarik, euskal Foruetan eta instituzioetan topatzen ez zituzten kontzeptu berri batzuk zabalduz: norberaren (indibidualismoaren) garapena (libertatea?), liberalismo ekonomikoa eta liberalismoak eskatzen zuten Frantziako merkatuan integratzea, fisiokraten (lurjabe argiztuen) bultzada baseritarra. Horiek denak azaltzen dira Lapurdiko Biltzarrak egindako txostenean, 1789eko maiatzeko Estatu Orokorren prestatzeko jardunaldian:

– Erregeren sujetei nehork ez dio beldurzunik eman behar ez bere onthasunen gozamenean, ez bere libertate osoaren gainean. (...).

– Frantses bakoitzak behar du izan libertate osoa inprimeriaren ariaz argitarat emaiteko, populuaren zorionarentzat edo oraino haren pausuko denboretan errekrearazteko, asmatuko duten pentsamendu guziak. (...).

– Iduritzen delarik Lapurdiko kostumaren zenbait artikuluren erreformak pitz eta susta lezakela industria edo antzea, eta emendarez laborantza, Eskaldun-Frantsesek uste dute bizkitartean erreforma horiek erreflexionerik handienekin egitekoak direla; eta orai objet hunen gainean galdu dezaketen guzia da, Laphurdin izan dadin formatua Laphurtar prestu eta argitu batzuz deputazione bat, zeinak erreforma horiek egin ondoan egorriko baitituzte herri bakotxetarat, eta zeinen laudamena galdeginen baitiote Gobernamentuari, baldin herriak kontent badira erreforma haietaz, eta ez bertzela.

Gizartearen eta ekonomiaren eraberritze-gogoia ezin da uka Lapurtarren baitan. Baina ber denboran gogo hori (herri-kontzientzia) "euskaldun-frantses" gelditzen da; aukeratzen dituzten ordezkariak "egortzen dituzte Nazionearen asanblada batetarat (...) bereizteko legerik hoberenak nahiz Erresumako konstituzio-nearen gainean (Frantziakoa), nahiz oraino administrazio-neko parte guzien gainean."

Hots Lapurdiko Biltzarrean nabari den kontzientzia, 1789.eko Iraultzaren bezperan, da euskaldun-frantses kontzientzia erregionalista.

M.G.

LA REVOLUCION FRANCESA Y EL PAIS VASCO

LA RÉVOLUTION FRANÇAISE ET LE PAYS BASQUE

El artículo repasa cronológicamente los principales sucesos de la Revolución, atendiendo a la presencia de los vasco en los mismos o a la incidencia de aquellos en la vida de las regiones vascas. Laburdinos, navarros del Norte y suletinos han participado directa, pero separadamente, perdiendo conjuntamente sus Fueros. Las personalidades vascas más notables de la Revolución han sido los dos hermanos Garat, habiendo correspondido al menor de ellos, como Ministro de Justicia a la sazón, comunicar al Rey su condena a la pena de muerte en enero de 1793. Ambos han tomado parte destacada en el desarrollo revolucionario, sin duda más atentos siempre a sus ideales ilustrados que a los intereses de su región.

La reorganización administrativa (Departamentos) y económica (bienes nacionales), por una parte, la resistencia y la represión por otra (deportaciones), han incidido en Euskadi Norte de un modo profundo, todavía no suficientemente investigado. Euskadi Sur se ve afectada especialmente por la Guerra de la Convención, manifestando en ella las Diputaciones propósitos autonomistas. En todo caso, 1789 ha revolucionado una sociedad vasca que estaba lejos ya de ser la sociedad foral algunas veces idealizada.

L'article revoit chronologiquement les principaux événements de la Révolution en s'occupant de la présence des barques et leur incidence dans la vie des régions basques. Labourdins, navarrais du Nord et souletins y ont participé directement, mais séparément en perdant ensemble leurs "fors". Les personnalités basques les plus notables de la Révolutions ont été les deux frères Garat dont le plus jeune d'entre eux fut Ministre de la Justice et celui qui transmit au Roi sa condamnation à la peine de mort en janvier 1793. Tous deux se distinguèrent dans le développement révolutionnaire, toujours plus soucieux sans aucun doute de leurs idéaux éclairés que de l'intérêt de leur région.

La réorganisation administrative (départements) et économique (biens nationaux) d'une part, la résistance et la répression (déportations) d'autre part ont affecté Euskadi Nord d'une façon profonde. Euskadi Sud se voit spécialement touchée par la Guerre de la Convention mettant en évidence les *Diputaciones* (conseils généraux) qui ont fait des propositions autonomistes. De toute manière, 1789 a révolutionné une société basque qui était loin d'être la société forale parfois idéalisée.

Iraultzaren hizkuntz politika

Joseba Intxausti

Iraultza Frantsesa dela eta, gainera datorkigun argitalpen-uholdearen eta ospakizun kulturalen artean, Iraultzaren hizkuntz politikak ere badu lekurik. Adibidez, aurten, apirilean Iraultza eta beronen hizkuntz jarrera eta jokabideak aztertzeko bilkura bat ospatu da Parisen. Baina, oro har, gertakari iraultzaile hark hizkuntz munduan ekarri zituen aldakuntzen albiste historikoak isildu egin izan dira, edo guztiz oihartzun sozial eskaseko ekintza eta argitalpenetara mugatu, historiografian.

Frantziako ikertzaileen lagunarteak ez du bereziki maite izan alor hau. Badaude, noski, jada autore klasikoak diren sona handiko sinadura batzuk, Hexagonoko hizkuntz historia honetaz esprekiago arduratu direnak. Brunot izango litzateke saiatuena; Brun edo Levy, geroago. Azken hamar-hamabost urteetan ere heldu zaio gaiari, eta lan berritzaileak kaleratu dira (Balibar, Certeau, Philips...); baina, konformitatean, ez dirudi, emankortasunez eta zabalkundez, gai honek zegokion lekurik irabazi duenik.

Datu berriekin ez bada ere, ideia-hedapenari laguntzeko bederen lagungarri izango delakoan biltzen dugu hemen Iraultza hark

sortutako aldakuntza linguistikoen albiste labur bat. Baina, horretara pasa aurretik, begira dezagun zein zen Hexagonoan antzaldatu nahi zen egoera.

Iraultza-bezperako egoera

Lehen hurbilpen bezala, interesgarria izan liteke garaikoek Frantziaren mapa demolinguistikoa nola ikusi zuten gogoratzea. 1793an Konbentzioan emandako datuetatik honela ageri zen Frantzia: Pariseko hizkuntza, barnealdeko hamabost departamentutan bakarrik zen mintzaira arrunta. Gainerakoetan, partez edo guztiz, bestelako hizkuntz ohiturak ziren nagusi. Errepublikako bi bostenak bakarrik zuen frantsesa bere jatorrizko hizkuntzatzat.

Horrela, ba, datuok ñabardura apur batez mugatzeko, zera esan dezagun: hiruren bat milioik frantsesez *ere* egiten zuen; seiren batek, ordea, apenas, eta beste sei milioik ez zekien frantsesik. Hauek ziren Grégoire-ren kalkuluak, gisa guztiz frantsesaren alde baikorregi lerratuak, gainera. Abade diputatuak honela ematen zuen, nahaste-borraste batean, izengaiztoz *patois* deituen 30eko hizkuntz zerrenda.

Agian ez da alferrikakoa gertatuko beroriek hemen aipatzea: behe-bretoiera, normandiera, pikardiera, waloniera, flamandera, txanpainera, metzera, lorenera, frank-kontera, burgundiera, bresera, lionera, daufinera, auverniera, poituera, limogera, proventzera, langedokera, velaiera, katalana, biarnesa, euskara, rougera eta kaskoia. Azken hau bakarrik 60 legoetako eremuan hedatzen da alde guztitara.

Aipu honetan nahasita ageri dira dialektoak eta hizkuntzak: *oïl* eta *oc* hizkuntzak eta hizkelgiak, noski, eta baita bi hizkuntz eremu hauetatik kanpoko hizkuntzak ere (bretoiera, katalana, euskara, alemana, italiera). Argitasunen baten bila, Iraultzaren gogoeta linguistikoaan zeregin politikoetarako sarritan bereizi ohi ziren dialektoen lurraldeak hizkuntzenetatik.

Napoleon-ek eskuratutako lurralde berrien ondorioz, ugaritu baizik ez zen egin Inperio Frantsesean hiztunگو atzerritarren presentzia, eta, Barne-Ministraritzako estatistika ofizialen arabera, 1806an ondoko zifra hauek eman zitezkeen sinesgarritzat.

| | |
|---------------------|-------------------|
| Italiera | 4.079.000 |
| Alemana..... | 2.705.000 |
| Flamandera | 2.277.000 |
| Bretoiera | 967.000 |
| Euskara..... | 108.000 |
| Guztira..... | 10.136.000 |

Egoera honen aurrean eta aurreko mendeetako historiaren emaitzak laburbilduz, Brun historilari klasikoak honela egin zuen (1923) errealitate haren baliospena:

Erret doktrinaren eta praxiaren eboluzioa absolutismorantz bazihoan ere, eta absolutismo hau ekintza zehatz eta koordinatutan azaldu izan arren, bateragintza erdiratzaileak bere bigunaldiak ditu Erregimen Zaharraren azkena arte. (...). Nobleziaren menperatzeak ez du esan nahi feudaltasuna oso erabitu zenik. Eraikuntzak dituen eskasia eta partezkotasuna oso ederki ispatzen ditu —beroren sinboloa da, hain zuzen— egoera linguistikoak: etxaurrea ederra da, frantsesa bait da hizkuntza idatzi bezala nonahi ageri dena. Baina, probintzietako eskualdeetan, milioi asko dira berori apenas ulertzen dutenak, eta oso gutxitan frantsesez mintzo direnak. Hegoaldean, egin du hizkuntzak bere erabilpenean aurreramundurik, baina Gorte alemanetan edo Errusian zabaldu den arrazoi berberengatik izan da: letra frantsesen loraldiagatik, kultura frantsesaren itzalagatik, hau da, *elite*-a baino harago apenas doazen arrazoiengatik. Ez al da, gero, harritzekoa, boterearen utzikeria edo hozkeriagatik, filosofiaren, gizarte apainaren eta diplomaziaren hizkuntza etsaien gain ere nagusitzea, eta frantses herriaren jendetza aski zaballean artean arrotza gertatzea?

Iraultzaileen amets eta kezka politiko-linguistikoak ulertzeko ez da historilariaren testu hau batere desegokia: Iraultza-bezperako balantzea ematen du eta, bide batez, erreparo handirik gabe, bestelako egoera “hobeago” baten gogoia erakusten.

Aldakuntza soziolinguistikoetarako gogoak eztenkada ezberdinak zituen Frantzia, aurreko belaunetatik ere. Komeniko da bizpahiru datu bederen hona ekartzea. Lehenik, Monarkia Zaharraren tradizio politiko-linguistikoa azpimarratu behar da: Frantzisko I.aren erabaki ezagunaz gain (1539), batez ere Luis XIV.aren (1643-1715) politika aipa genezake. “Erregeren hizkuntzaren aroa” bezala aurkeztu izan da garai hura. Tradizio politiko-linguistiko haren barnean, frantsesaren aldeko joerak aski definituta ageri ziren, Brun-ek arestian gogoratu dizkigun *bigunaldiak* artean izanik ere.

Bestalde, frantsesaren XVIII. mendeko arrakasta ezingo dugu ahantzi, iraultzaileen mentalitate linguistikoa ulertu nahi bada. Louis Réau-k aztertu du hizkuntz arrakasta europar horren historia. Datu, gertakari eta mugimendu aberatsek erakusten digute hizkuntza frantsesak nolako oihartzuna ezagutu zuen Europako Gorte eta intelektualen artean. Hori zela eta, frantses-hiztunek —intelektualek batipat— beren hizkuntzarekiko harrotasun berri bat sentitu zuten.

Ez da, beraz, harrizkoa hizkuntzaren fenomeno hartaz Frantziako idazleek erakutsi zuten arreta. Analisisirik ezagunena bezala Rivarol-en *Discours sur l'universalité de la langue française* hura (1784) ekar liteke hona; baina, horretaz gain, hizkuntzaren inguruko bibliografia, ugaria izan zen Iraultza-aurreko hamarkadetan. Guzti honek ere, girotu zituen politikari berrien mentalitateak, hizkuntz(ar)en aldeko eginkizunetan parte hartzeko.

Iraultza, bere hizkuntz(ar)en bila

1789-1799. etako hizkuntz borroka eta eztabaidak interesgarriak gertatzen dira, esanahi handiko une historikokoak direlako ezezik, orduan jaotako edo indarberrituriko joerek gerokoarekin eta gure etxekoarekin ere zerikusi hurbila izan dutelako.

Hizkuntzekiko interes berritua

Iraganari begira, egia da, Iraultzaren politika eta ideologia soziolinguistiko nagusiek berritasun guztiz erlatiboa izan zutela; baina, hala ere, ezin dugu ahantzi, Monarkia Zaharrak askoz gaingirokiago marraztu eta egikaritu zuen hizkuntz politika bereitsuak, Estatu berritu sozialki boteretsuago baten bidez, komunitate etnolinguistikoak lehenago ez bezala barru-barrutik ukitu zituela.

Bestalde, Iraultzaren egokiera honetan, hizkuntzen arazo politiko eta estatu-nazionala, aurreko mendeetan inoiz ez bezala, espreski aztertu zen, Gobernuan eta Asanblada Nazionalean ezezik, hiri eta herrietako bilkura eta talde politikoetan, eta interesgarriago gertatzen dena, Hexagonora zabaldu ziren inkestetan.

Hau dena are jakingarriagoa gertatzen da, gainera, garaiko hizkuntz politika, zalantzez betetakoa izan zela ikustean. Eritzi eta erizpideak ez ziren monolitikoak izan, eta, proiektu politiko jakobindarren ondoan girondarrak edo federalistak egon ziren bezalatsu, hizkuntzen Baliagarritasun historiko-politikoaz ez ziren iraultzaileak beti bat etorri, ez teorian eta ez praxian.

Iraultza Frantsesak, bere praxian, benetako iraultza ekarri nahi izan zuen Hexagonoko komunitate etnolinguistikoetara; baina, ondoko bi mendeetarako finkatuta eta aldaezinik geratu zen erizpide glotozidara iritsi aurretik, unealdi ezberdinak bizi izan zituen Iraultzako eztabaida ideologiko-linguistikoak.

Bi unealdiko hamarkada (1789-1799)

Esan bezala, Iraultza Frantsesaren hizkuntz politika ez zen beti bat berdina izan 1789-1799etan muga dezakegun hamarkadan. Iraultzari eman ohi zaion epekapenari eta gertakari politiko-linguistikoari jarraikiz, bi unealdi kontrajarritan banatuko dugu hamar urte hauetako historia: Estatu Nagusietatik Izualdirainokoa (1789-1794) eta Termidorretik Kontsulaturainokoa (1794-1799).

Iraultzako gertakarietan bezala, hizkuntzen politikan ere 1794eko Termidorra da muga-marra garbiena eta politika kontrajarrien mugarria. Pentsa daitekeenez, hizkuntzen politika-molde haien jitea ikuspegi eta alde ezberdinek moldatzen zuten: Herritarren hizkuntzekiko sentierak, talde iraultzaile ekintzaleen pentsamoldeak, intelektual eta unean uneko politikarien eritziak, Parisetik eskualdeetara joan ohi ziren Ordezkarien eskarmentuak, tokian tokiko egoera soziolinguistikoak eta abarrek —guztiek, alegia— baldintzatzen zuten hura. Baldintza hain ezberdin haien artean, ez ziren denak erritmo eta gisa berean aldatu, ez zuten guztiek indar bera izan; baina eragin guztion azken emaitzak bi politika-une ongi kontrajarritan definitu ziren.

Proiektu hautagarriak (1789-1794)

Iraultzaren lehenengo bost urteetakoa, hizkuntz arazo berri edo berrituen planteamentu teorikoen eta lehen praxi sozialen garaia da. Asanbladan eta prentsan, arazoaz arduratu zirenen izenak

ezagutuko ditugu, ideia eta analisisen lehen azalpenak topatuko, parlamentarien txosten eta lege-proposamenak agertuko zaizkigu, sentiera eta jokabide politiko ezberdinetarako ateak irekita ikusiko ditugu oraindik, hainbat arazo praktiko suertatuko da hizkuntzen praxi politiko-iraultzailean.

Lehenengo urte hauek, lege eta dekretutan pobreak izanda ere, aberatsak gertatu ziren bizpahiru alde ezberdinetatik: a) Oinarrizko arazoak azpimarratu ahal izan ziren; b) Iraultzaren eguneroko praxian itzulpenen baliagarritasuna frogatzerik egon zen; c) Hurrengo unealdian deliberamendu erabakiorragoak hartu ahal izateko erizpide ideologiko eta politikoak zorrotzu ziren. Bestalde, nahikoa argi geratu zen ondoko urteetan zeintzuk izan zitezkeen hizkuntz politika baterako barruti sozio-funtzional zainduenak: Administrazioa eta Eskola, Armada eta Eliza.

Frantzia, Estatu Nagusiak bildu eta laster, sutegian irakiten hastera zihoan lapikoa gertatu zen. Historilari eta idazleek ongi deskribatu dute hilabete haietan eta lehenen urteetan *hiritarrek* bizitako sukarraldia. Betidaniko jauntxo aristokrata edo elizgizonen ondoan edo aurka, dozena milaka hiritar eskolatu edo ez-eskolatu biziki arduratu ziren Parisetik edo eskualdeko hiriburutik zetozen albisteez. Eta bapateko ardura kezkatu hau ez zen harritzekoa, zeren eta gertakari berriek norberaren bizimodua, eskubideak, ohiturak eta ondasun-jabe(gai)goa ukitzen bait zituzten, itxuraz. Errealitate berriak ezagut, haietaz eritzia eman eta berau, bakarka nahiz taldean, defenda zitezkeenez, hiritarren komunikazio-premia gehitu eta larritu egin zen, norbanakoaren interesen arabera.

Lehen epealdi honetan, komunikazio-behar hau izan zen, batez ere, Hexagonoko hizkuntzen arazoa plazaratu zuena. Guztientzat irabazi-ala-galduzko arloak ziren agintariekiko harremanetan aztertzeak: jabegoaren erreforma soziala, eskubide politikoaren finkapena, erlijio-politika iraultzailearen gatazkak, erbesteak edo erreakzioak piztutako ekintza armatuak... Eztabaidakizun horietan edo hiritarren arteko elkarrizketa politikoan, hizkuntzaren hautapenak bete-bete harrapatzen zituen bi alderdiak: Hau da, arruntki frantsesez ari zen Pariseko edo hiriburuetako agintariak, batetik, eta sarritan frantsesa ez zekien hiritar xumea, bestetik. Erakunde politikoak berrantolatu ahal izateko laster somatu zuten agintariak (Parisen eta Probintzietan) herri-hizkuntzak, gisa batean edo bestean, aintzakotzat hartu beharra.

Hiritarregana iritsi nahiz eta egoera linguistikoaren aurrean politika errealista batez jokatzearren, iraultzaile ainitzek herritarren hizkuntzez baliatzea eskatu zuen. Korronte honen barnean, joerarik ausartena "federalismo linguistiko" eta "elebitasun administratibo oso" bezala definitu izan direnen eskea daukagu. Bi eskualde urrunetatik heldu ziren, esate baterako, Parisera eskabide hauek: Mendebal-hegoaldeko Montauban hiritik (1791) eta Altsaziatik (1790). Agiri hauetan, dialektu eta hizkuntzen ortografia finkatzea iradoki zen, agiri ofizialen itzulpena Estatuaren kontu egitea, herritar bakoitzari bere hizkuntzaz idatzi eta mintzatzea, eta *patois* deituen hizkuntz ohorea errespetatzea. Honela idazten zuen Montauban-eko idazkideak:

Et dezala inork pentsa hegoaldeko hizkuntza ezberdinok jargoi hutsak direnik: aldiz, egiazko hizkuntzak dira hauek, inguruko gure hizkuntza moderno gehienak bezain antzinakoak; Europa-ko edozein hizkuntza bezain aberatsak, haiek bezain oparoak, beren esamolde noble eta ausartetan: Goudelin-en olerki hilezkorrak erantzunik gabeko froga dira.

Bigarren kasuan, Strasburg-en puntuz puntu definitu nahi izan zituen bertako idazkari-itzultzaileak hiztunen —alemanen nahiz frantsesen— hizkuntz eskubideak: Administrazioak alemanei alemanez egin behar zien, eta ez frantsesez; Administrazioaren zeregin mintzatueta, eman daitezela alemanez ere itzulpenak; bailaretako epaileek, bake-epaileek eta bestelakoek alemanez eman dezatela herritar aleman-mintzatzaileei dagokien oro, eta partaideek izan dezatela eskubide beren hizkuntza ez dakiten epaileak ezesteko.

Sentiera hau tarteko, eta mendetan erroturiko hizkuntz bizitza soziala medio, Errepublikako mapa politikoa departamentutan banatzean ere, hizkuntzen ukipen-areatan egon zen gatazkarik. Biarnoak eta Euskal Herriak, adibidez, eztabaida ozpindua izan zituzten elkarrekin, bi herriek departamentu berean joan beharko zuten ala ez erabakitzean, eta hizkuntzaren diferentziak ziren proiektuaren kontrako arrazoietakoa bat, Garat-arrek Asanbladan azaldu zuten. Baina diputatu-gehiengoaren izpiritu biarnesek defendatutako bideetatik joan zen: Ezabatu egin behar ziren "probinzien interes eta izpiritu bereziak eraberdintzea eragozten duten bereizketa guztiak, beti ere Nazio osoaren interesaren eta izpirituaren faboretan". Berezgarri haietako bat, eta ez txikiena, hizkuntza propioa zen.

Hiztungeo berezien eskubideak jada arriskutan ageri ziren lehenengo unealdi honetan, baina artean Iraultzaren zabalkunde ideologikoa zaindu beharrak agindu zuen, oro har, praxi iraultzaileen. Hemen ezin gaitezke xehetasunetan sar, baina esan dezagun hiritarren jaietan, klub politikoetan eta bilera politiko irekietan lekuan lekuko egoera soziolinguistikoak agindu zuela, hizkuntza mintzatu hautatzean. Erabilera idatzietan, gauzak Parisetik baldintzatuagoak iritsi ohi ziren, batez ere itzulpen-lana eskasegi edo berandu burutu zenean. Frantzia alemanean —hizkuntza ofizialaren eta herritarren arteko alde handiagatik, eta lurralde horietako hiztungeo frantsesa guztiz txikia zelako ere bai— alemanaren aldeko borroka bereziki bizia agertu zen. Beste lurralde linguistikoetan, testu idatzi frantsesen gain, lekuko hizkuntzaz emandako “prediku”, propaganda eta bilera mintzatu herritarrez osatu zen Parise iraultzailetik herrixka txikienetarainoko zubia.

Horiek horrela, aipagarria da lehen orduko Iraultzaren praxi politiko-linguistikotik hasita, frantsesaren mugei gaina hartzeko itzulpenen bidez egindako ahalegina. Lehenik, aparteko hizkuntzak zituzten Departamentuetan bertan egin zen lan hori; gero, Parise bertatik eskaini zen itzulpen-zerbitzua: 1790eko urtarrian eman zen, dekretuak lekuan lekuko hizkuntzetara itzultzeko Asanbladaren erabakia.

Asanbladaren dekretuak, Frantziako eskualde ezberdinetan mintzatzen diren hizkuntza guztietan argitara emateko eskatzen zaio botere ejekutiboari. Honela, nornahik izango du aukera beroriek nahiago den hizkuntzan irakurri eta idazteko, eta lege frantsesak mundu guztiarentzat ezagunak bilakatuko dira.

Borondate oneko itzultzaileen lanek eta gobernutik modu gaizki antolatuan sustatutakoek, kritika eta protestak piztu zituzten laster, itzulpenen desegokitasunak salatuz eta itzulpen-lanen atzerapenak azpimarratuz. Egoera hau hobetzeko sortu zen, Dugas-en inguruan, itzulpen-bulegoa, hogeitamar Departamentuetarako lanak egin zitzen. Hauetako bat, hain zuzen, “Pirine Apaletakoa” zen, Iparralde euskaldunari ere zegokiona. Lan haietako batzuen berri *Euskararen Liburu Zuria*-n (374-375) eta M. Rica-ren lanean ikus daiteke (ASJU IX, 1975, 281-296), esate baterako.

Iraultzaren urte hauetako lanean, ba, korrante kontrajarriak ageri badira ere, oro har hizkuntzekiko tolerantzia bat soma daiteke. Lehenengo Asanblada iraultzaileek ez zieten eraso Hexagonoko hizkuntzei, alderantziz baizik: Iraultza ezagutzera eman eta zabaltzeko hiritarren hizkuntza guztiez baliatu ziren modu nahi-

koa programatuan. Ez zegoen deus ezarririk, deus debekaturik, eta hizkuntzen erabilpenerako zenbait ekinkizun, botereak lagunduta burutu zen. Baina, dakigunez, estalki liberal praktiko horren azpitik, bestelako korrante bortxagarririk ere ari zen ur-handitzen: Grégoire Abadearen proiektua.

Henri Grégoire (1750-1831), gizon ardatza izan zen Iraultzan nagusituko zen ondorengo politika definitzeko. Korrika eta presaka zihoan Iraultzaren barnean, patxaraz eta programatuki burututako lana izan zen Grégoire-rena: 1790ean zabaldutako inkesta batekin eman zitzaion hasiera eta 1794eraino luzatu zen lege berrietarainoko lan politiko hau. Inkesta honen esanahi ideologiko eta historikoak, argitan jarri dituzte dagoeneko historilariek: hizkuntzekiko ikusmolde baten atarikoak izan zen, edo nahiago bada, azken sintesia.

Frantziako hiritarren etorkizuneko hizkuntza estatu-nazionala zeinek izan beharko zukeen erabakitzeke boterea, Hexagonoko gizarte eta komunitate linguistikoen eskuetatik Pariseko aginte iraultzailera pasa zitekeela, eta halaxe egin behar zela, uste izan zuen Grégoire-k. Bere bulego paristarrera bildu zuen Grégoire-k arazoa.

Hortaz, hasieratik bertatik, galdeketa-sorta ideologia jakin batekin jaio zen. Aurreko hamarkadetan landuta zegoen hizkuntzarekiko diskurtso eta mentalitate "argiztatua" jaso zuen inkestarako galdeketak: eritzi-analisia eta inkesta zientifikoa nahasita zabaldu zituen Grégoire-k bere galdeketan. Alde batetik, inkestatuen sorlekuarekiko atxekimendua ezagutu nahi zuen, eta, bestetik, etorkizun kultural hobe eta jasoago baten irtenbidea iradoki. "Errespetoz" jokatu nahi zuen inkestatzaileak: *patois*-en ondarea amodioz bildu, eta Museotan gorde behar zen.

Inkestaren zerrendak 43 galdera zituen, eta hauetako batzuen asmo politikoa nabaria zen. Unean uneko politika motzetik harago, errealitate eta egoera egonkorragoen ardura ispilatzen zuen: Nola joka Hexagonoko kultura ezberdinekin? Nola eman batasunik inkesta aurretik ere begi bistan ageri zen egoera etnokultural hari? Gorputz sozio-kulturalaren eraberdinketa, premiazkoa zen Errepublikari taxuzko batasunik emateko. Hori uste zitekeen behintzat.

Horregatik, frantsesaren eta gainerako hizkuntza eta dialektoen arteko erlazio administratibo, sozial eta kulturaletan, egoera berria baldintzatu nahia nabaria zen inkestan. Politika errealista

baterako oinarriak eraiki nahi ziren: izan ere, frantsesaren egoera sozial erreala ezagutuz gero eta *patois* deituen erresistentzi indarra neurtu ondoren, azken helburu politikoetarako jokabide errealistago bat erabakitzea samurragoa izan zitekeen. Helburuak aldez aurretik definituta zeuden, baina bitarteko arrisku eta baliabideak ezagutzen lagundu behar zuen inkestak.

Bilaketa etnolinguistikoaren ondoan aldez aurretik emandako epaia zegoen, hortaz, 29-30. galderak iradokitzen zutenaren arabera:

29. Zein izan liteke *patois* hori erabat deuseztatzeak izan dezakeen garrantzi erlijioso eta politikoa?
30. Zeintzuk izan litezke horretarako baliabideak.

Idatzi izanenez, "galdeketak bi zeregin lotu nahi zituen elkarrekin: aldez aurretik ezarritako *plan* bat, ageriko eta *zuzentzat* hartua, eta *kontsulta*-lana, itxurazko itzuli-mitzulien ondoren, botereari argibideak eman eta beronen ordezkariak mugieraziko zituena". Probintzietako solaskidea ez zen erantzule "baliagarri" bat baizik: boterearen urruneko begia, hain zuzen.

Herritarren sineskeria eta zaletasun errepublikarraren eskasa, hizkuntza ez frantsesek "argien" zabalkunderako jarri izan zituzten oztopoetatik zetozela uste nahi zuen inkestako galdera-sail bategen (38-42); eritzi horren ondorioz aurkeztutako puntua asmoz beteta zetorren: *Quelles sont les causes et quels seraient les remèdes à ces maux?* (40).

Erantzuleek ongi jaso zuten galderen ezkutuko mezu isildua. Berrogeitabederatzi erantzunetatik hogeitamasei ezagutzen ditugu: lau, diputatuenak dira; zenbait, Grégoire-k berak adiskideen artean eskatua; beste batzuk, prentsa iraultzailearen bidez zabalduko deiari irakurleek emandako erantzunak, eta, azkenik eta garrantzizkoenak, *Konstituzioaren Lagunarteetatik* helduak (honetako 14 talde-erantzun jaso ziren). Batez ere ekialdeko lurraldeak, Britainia eta hemendik hegoalderako Atlantiko-aldea hartzen zituzten inkestatuek.

Inkestaren galderetan eta beronen erantzunetan jaso litezkeen ideia eta ikusmoldeak azpimarragarriak ditugu: Frantsesaren funtzio sozialen produktibitate emankorragoak lehentasun hierarkiko bat ematen zion berorri Hexagonoko hizkuntzen artean; hizkuntza idatziaren eta mintzatuaren arteko berezketa da beste alde hierarkitzailerik bat: hizkuntza mintzatuak (= *patois*) beti ere arkaizan-

teak dira, batasunik gabeak, herri eskolatugabearen zabarkerien zaborteziak, hizkera geldiak, araurik gabeak, anarkikoak; iraganaren balio erromantiko bezala badute baliorik, baina etorkizun politiko-kultural landurik ez zaie ikusten Iraultzaren modernotasun berrian.

Sozialki, *patois* horiek landetako jende nekazariaren hizkera dira; eta hirietako hizkuntzarekin kontrajartzen dira: hiltzear da-goen, eta aurreramendu berriek irentsiko omen duten, mundu etno-museotar baten tresna traketsak dira *patois* deituak (dialektokak eta hizkuntzak ere). "Argien" mundurako hizkuntza, frantsesa da: Iraultzaren hobekuntzak dakartzana eta gizarte berrituko bizi-moldeetan geroz eta gehiago erabili beharko dena. Etorkizuna hirietatik gidatuko da, eta hirietako hizkuntza, frantsesa bakarrik zen, omen.

Idea-modu horiek bildu eta eratu zituen inkesta hau izan zitekeen ondoko urteetan Iraultzaren hizkuntz politika gida zezakeena. Halaxe gertatu zen ikusiko dugunez.

Frantsesaren hautapena (1794-1799)

Bi unealdietako hizkuntz politiken bihurtuneak bere ataria 1792tik honako hilabete larrietan izan zuen. Ezaguna da momentu hartako testuingurua: Erbestearekin gerra, barnean Iraultzaren erabakiak gizarteratu-beharra, eta zenbait eskualdetako errebolta armatuak ezabatu-premia. Gizartearen kontrol-nahia eta indar guztiak aginte bat beraren esanetara bildu-gogoia izango dira, hizkuntzen trataera modu berri eta espres batera eztenkatuko dutenak. Grégoire-ren txostenak, zituen argibide eta balio guztiak, batasun-beharrizan politiko horri ere erantzun nahi zion.

Jada Termidor aurreko (1794eko uztaila) hilabeteetan hizkuntzekiko zalantza politikoak argituz joan ziren; hainbat jenderen pentsamoldea bakartasun linguistikoaren alde lerratzu zihoan. Bi barruti ezberdinetatik zetorren bereziki hizkuntz politikarekiko kezka: Alde batetik Eskolaren mundua berriztatu nahi zenez, bertako irakasgaien programak berehala zuen zerikusirik Iraultzaren ideologiarekin eta eratu nahi omen zen Frantses Nazio berriarekin. Bestetik, abertzaletasun iraultzailearen ardura bizia zen Aberriaren segurtasuna bermatzea, Iraultzaren mezua ahalik leialen eta gehien

hedatuz eta hiritarren fideltasuna ongi lotuz. Honetarako ere Eskola-hizkuntza, tresna erabakiorra izan zitekeela uste izan zen, eta, zer esanik ez, frantsesa propagandan erabiliko zen hizkuntza.

1792az geroztik behin eta berriz heldu zitzaion Irakaskuntzaren arazoari. Izan ere, Konbentzioari zor zaizkio Eskola-Lege iraultzaile handiak, 1792-1795. urteetakoak. Gaia aztertu behar zuen Irakaskuntz Batzordetik dozenaka aurreproiektu pasatu ziren; baina gutxi batzuen eskuetatik etorri, iradokizunik baliagarrienak: Lanthenas-en Txostena, Barère-ren gehikuntzak, Sièyes, Daunou eta Lakanal-en lanak... Robespierre-ren ahoz egingo da Lepeletier-ren Txosten berriaren aurkezpena (1793-uztaila-29), eta Danton izan zen defendatzailearik suharrenetakoa; Grégoire, arrazoi sozio-ideologikoengatik legegaiaren hainbat alderen kontra agertu zen. Azkenik, Urriaren 21ean eman zen lege berria, Frantziako lehen mailako eskola publikoa sortuz: handik aurrera *Hexagonoko haur guztiek ikasi beharko zuten hizkuntza frantsesa mintzatu, irakurri eta idazten*. Erabaki honen baliospena honela egin izan da:

Azpimarra dezagun hizkuntzaren irakaskuntzari ematen zaion leku bikaina. Berau da aipatzen diren gai gutxietako bakar bat. Badu federik pentsamendu frantsesaren balio hezitzailean; izpiritu nazionalaren emaitza da hizkuntza, baina, bestalde, izpiritu hori bere askatasunean eta bere indarrean eratzen laguntzen du hizkuntza honek (Brunot).

Legearen aplikazio-arauetan eta ondoko legerian luzatu zen pentsamolde estatu-nazionalista hau: hirietako erabakietan, eskola-liburuen sorkuntza eta argitalpenak sustatzean. Eskolaren honek historia luzea izan zuen berehalako urteetan; baina gatozen, orain, hizkuntzek propaganda iraultzailean izan zuten lekua eza-gutzera.

Propagandaren barrutian agertu ziren Iraultzaren hizkuntz politikak izan zituen kontraesan eta zalantzarik nabarienenak. Botere zentralak, hein handi batean frantsesa ez zekien gizartea bereganatu behar zuen, eta iraultzaile suharrenak ere lanak eta izerdiak zituen nahi zuen mezua egoera soziolinguistiko hartan hedatu ahal izateko.

Hori horrela, itzulpen-premiaren defentsa edota itzulpen-tentazioaren arriskua —norberaren ikusmoldearen arabera, bata ala beste— bizirik egon zen: aipatuta dugun Dekretuaren ondoren (1790), berriro heldu zitzaion eginkizunari, aurreko Asanbladen

tradizioari segiz, ordurarteko itzulpen-lanek ez bait zuten, askok zioenez, abiada egokirik izan. Dekretu berriek (1792-XI-2, 1793-XII-3), lehendik zetozen atzerapen horiek zuzendu nahi izan zituzten. Bretoieraren nahiz euskararen arrotasuna azpimarratu zen Asanbladako txosten eta eztabaidetan, eta batez ere berauentzat eta alemanaren hiztunentzat ikusten zen premiazkoa itzulpena. Euskal Herritik ordezkari politikoak Barne-Ministrariari idatzi zioenez (1792-X-29),

Euskaldunak kuraiatsuak dira, ausartak, beste hizkuntza ezagunekin inolako zerikusik gabeko mintzaira hitz egiten dutenak; hizkuntza hau ez da idatzi izan, idazteko guttiz erraza izan arren; jaierazko zenbait liburu da hizkuntza honetan idatzi den bakarra. Apaizek herri hauen konfidantza osoa dute; beren itzalaz itxuragabeki baliatu dira haiek. Euskaldun guztiak fanatikoak dira, eskolatugabeak; erabat funtsezkoa eta guttiz premiazkoa izango litzateke Iraultzari buruzko obra on ugari euskarara itzultzea, hiritar desbideratuok argi ditzagun. Jende bidegalduek eskolatzeko nerekin lankidetzan ihardungo duten eta itzulpenak gogoz egingo dituzten itzultzaileen Batzorde bat biltzera iritsi naiz; baina beharrezkoa da inprimaketa-gastuak Errepublikak ordain ditzan. Egin berri dut Baionatik Donibane-Lohizune, Hendaia eta Urruñara ikustaldi bat, Konbentzioko komisario diren Garvau, Carnot, Lamarque hiritarrekin eta Lecuée laguntzaile orokorrek: guztiok konbentziurik daude gastu hau egin beharraz, eta berorrek Errepublikaren faboretan emango duen fruitu onaz.

Baina, iraultzaile gehienen ustez, argi zegoen itzulpenen berehalako fruitu on horrek ez zuela inor hortik harago itsutu behar, izan ere epe luzerako politika jatorrak zuhurtzia eta bide luzeagorik ere eskatzen zuen, *Chronique de Paris* aldizkariak aditzera eman zuenaren arabera:

Aleman, *patois* eta abarretan Dekretuen itzulpenak egiteko agintzen duen legea gogoratu da Konbentzio Nazionalan. Neurri hori ona da, noski, mementu honetarako; baina badago irakaskuntza publikoaren plangintzan sartu behar den besterik, eta, lehenik, hor garrantzizko artikulua izan behar duen hau: *patois* eta hizkuntzen erabateko deuseztapenarena, alegia.

1793ko Dekretu-pare batek berriz ere itzulpenen egitekoa arautu bazuen ere eta hizkuntzen propaganda-erabilera ezberdinak gorabehera, oro har nagusituz zihoazen erizpide berriek ez zuten hizkuntzen eta dialektuen itzulpenezko errespetu hura bermatuko, aitzitik baizik. Poliki-poliki, hizkuntzetan Iraultzarentzat arrisku bat ikusi zen; frantsesak ez zirenak susmagarri bilakatu ziren asko-

ren aho eta burutan. Dialektuak ez baizik "hizkuntzak zituzten lurraldeetan, hizkuntz diferentzia horrek eragozpen serioesak zekarzkieon Iraultzaren garapenari" (Brunot). Hizkuntzen kontrako kexuak nonahitik zetozen Parisera. Pirinio Beheretatik ere bai; Uztaritzetik, ordezkari batek honela idatzi zuen:

Fanatismoa da nagusi; lagun gutxik daki frantsesez mintzatzen; apaiz euskaldunek eta nola-halako beste hiritarrek beren interesen arabera azaltzen dizkiete dekretuak auzotar gizarajo hauei.

Arrazoi hauek, noski, berdin balio zezaketen itzulpenak ere bultzatzeko; baina, inguru ezezagunaren beldurrak, eguneroko eskarmentuak eta Aberriaren batasun eraberrindua bestelakorik eskatzen zuten, garaiko iraultzaile askoren ustetan. Herritarren indarrak batu behar ziren hartan, hizkuntzek sortzen zituzten eragozpen erneagarriak gehiegi ziren Parisetik Iraultza gidatzen ari zirenetzat. Behin baino gehiagotan, adibidez, Armadako batailoiak berak ere birbanatu egin behar izan zituzten buruzagiek, soldaduek elkar ulertzen ez zutelako.

Arrazoi guzti hauek urratu zituzten gerra linguistikorako bideak, Parisetik ezezik Probintzietako zenbait lagunarte iraultzailetatik ere. Beste gerra armatuaren barnean, gerra soziolinguistikoa gertatu zen hau. Usu errepikatu izan diren Barère-ren hitzak hartu izan dira filosofia politiko berriaren agerpen radikalentzat:

Euskaldunak, arbasoen ondare bezala ikusten duten hizkuntza zoli eta nabar horrekin, beren apaizen menpe daude, nahiz eta jada Bidasoako muga haietan Errepublikaren alde nolako jaierez borrokatzeko lain diren erakutsi izan duten. (...). Federalismoa eta sineskeria bretoierraz mintzatzen dira; emigrazioa eta Errepublikarekiko gorrotoa alemanez ari dira; kontra-iraultzak italieraz egiten du eta fanatismoak euskaraz. Apur ditzagun aurreritzi eta erre-tresna hauek. Hobe da jendea eskolatzea, eta ez itzulpenak egitea: kontra-iraultzaile eta fanatikoak baizik zerbitzatu ohi ez dituzten jargoi barbaro eta hizkuntza arlote horiek mantentzea guri balegokigu bezala. (...).

Monarkiak bazituen Babel dorrea maiteago izateko arrazoiak; demokrazian, hiritarrak, hizkuntza nazionala ezjakinez, boterea kontrolatzeko ezinean uztea, aberriari traizio egitea da, inprimategiaren ongiegiteak ez ezagutzea, jakina denez inprimatzaile bakoitza legeen eta hizkuntzaren irakasle izan arren. Frantsesa, hizkuntza unibertsal bilakatuko da, herrien hizkuntza izanez, (...), frantses guztien hizkuntza bilakatu behar du. (...). Herri libre batean, bat bera izan behar du hizkuntzak, eta guztientzat berdina.

Nekeza izango litzateke, Izualdi Handitik aurrera, Iraultzakoan ezezik ondoko hamarkadetan ere, Frantziako politika linguistikoaren ideia ardatzak Barère-ren pasarte honetan baino argiago eta koherentzia hobez agertzea (1794-I-27). Handik hona, ez dira funtsean botere zentraletik printzipio horiek zalantzan jarri. Gehenez ere, beroriek gizartean, politikoki modu egokienean nola gauzatu izan da arazoa: hau da, indarrez eta bortxaz, ala luzarogoko politika patxaroso baten bidez. Baina azken helburuak zutik mantendu dira, Barère-ren berehalako radikaltasunik gabe izan bada ere.

Ohar horrekin iradokita daude ondoko historiaren bi alde ezberdinak: Bortxakeria instituzionalez hitzun ez-frantsesei egindako eraso, zigor legal gogorrenak ere erabiliz (isunak, presondegia, etab.), eta, bigarren, modu samurragoan eta lasaiago, Errepublikak jasotako erakunde sozio-politikoaren bidez (Administrazioa, Armada, Eskola, etab.), bortxakeria itsu hura gabe, gauzatutako politika linguistikoa.

1794ean eraiki ziren lehen politika-molde hartarako teoria ofiziala eta legeria. Irakas-munduari erreformaren barnean txertatu zen hizkuntz politika berria (27-I-1794, 1794-II-18): *Il sera établi dans dix jours... un instituteur de langue française dans chaque commune... Ils seront tenus d'enseigner tous les jours la langue française*, dio artean itzulpeni ere lekuri uzten zien Dekretu batek.

Sortzen ari ziren legeok testuinguru sozial zabalagoa zuten une hartan. Brunot-ek —eta ez da batere susmagarria— izenburu esangarri batekin deskribatu du garaiko egoera: *La Terreur Linguistique* aipatu du, adibidez, Altsazian ezarritako politika aditzera emateko. Hizkuntza ez-frantsesen deuseztapenerako biztanleen deportazioa edo lekuz aldarazteko lur-politika programatua ere proposatzera iritsi ziren politikari batzuk, hizkuntz helburu jatorrak lortzeko, eskola ez zela aski izango eta.

Arestian ikusi dugun Grégoire-k maiatzean aurkeztu zuen, azkenik, bere Txostena Irakaskuntz Publikorako Batzordean (1794-V-28), eta berehala Konbentzioan ere (1794-VI-6). Lanaren tituluak bazuen indarririk: *Rapport sur la nécessité et les moyens d'anéantir les patois et d'universaliser l'usage de la langue française*. Euskaldunak ere gogoan izan zituen txostenak:

1792ko Urrian Eki (*sic*) Pirinioetan zeuden [ordezkariek] idazten zizuetenez, euskaldunen artean —herri otzan eta adoretsua izan

arren— asko eta asko da fanatismoak jo duena, argien zabalkunde-rako behaztopagarri bait da hizkuntza.

Zaila da hemen, lan honetan, eskualdez eskualde eta ezin-nahien artean, 1794aren Urtarrileko aipatu Dekretuak —Grégoire-ren Txosten-ondoko frantsesaren aldeko dei ofizialaren giroan ere— izan zituen aplikazio-arazoen historia egitea; baina politika horren praxian, oztopoak oztopo, ikusi ahal izan zen eskualde ezberdinetako gidari politikoen artean nola ari zen indartzen frantsesaren aldeko pentsamolde eta erabaki politikoa. Akize hiritik, adibidez, Lagunarte herritarrak ongi begi onez ikusten zuen kas-koinaren deuseztapena eta frantsesaren erabilpena orokortzea (1794-uztaila-25).

Ondorio gisa

Termidor-ondoko erreakzioaren ondoren (1794-Uztaila), hizkuntz politikak ere aipatutako erritmo geldiago hura hartu zuen; hizkuntzekiko tolerantzia berriaz ere hitz egin izan da, botereak aurreko hilabeteetako bortxa berdina erabili ez zuelako. Izan ere, gainerako gobernu-sailetako lehentasun politikoez eta beste interes sozio-politiko larriagoek hartu zioten aurrea hizkuntz politikari, Iraultzaren ekinkizun berrietan. Baina legeek, oro har, beren hartan iraun zuten, indarrean. Hori dela eta, badago frantsesaren historiografia klasikoan salakizun den zerbait, eta berau aipatu nahi nuke.

Batez ere Direktorioari (1795-1799) hizkuntzarekiko hoztasuna eta utzikeria aurpegiatzen zaizkio, hau da, frantsesaren hedapena aski ez lagundua. Geroko hamarkadetako frantsesaren hedapen-historia geldiagoa politika motzago baten ondorio bezala ikusi izan dute Frantzia Handiaren historilariak: Hizkuntza Nazional izateko aukeraturiko mintzairak, politika azkarrago eta programatuago batekin zor omen zitzaion garaitzapena lehenago lortu behar zuela uste izan da, nonbait. Eta, agian, horixe zela, hain zuzen, bidezkoena eta modernoena. Ikusmolde honek oharkizunen bat merezi du.

Termidorren ondoko politikak frantsesaren politika glotofagi-koari ez zion Hexagonoan inolako saldukeriarik egin; alderantziz, utzikeriak edo pragmatismoz, errealitate soziolinguistikoen alda-

kuntz erritmo historikora moldatu zen hura eta, halabeharrez, mentuz eskolagintza iraultzailearen porrotera. Errepublikaren une hartako tresneriak ezin zuen gehiago, edo askoz gehiago, egin; baina hizkuntz bakartasunaren proiektua zutik mantentzen zen, legeetan eta ideologia estatu-nazionalistan. Hala ere, Iraultzak bere oldar soziala galdu zuelako (eta, beraz, orentzako doako eskola publikoaren asmoa kamustean), kasik mende bat geroago, Ferryren legeekin, sortutako egokiera historikoari itxaron behar izan zion Iraultza soziolinguistikokoaren programak (1881-1883); tartean, bizi izandako lan ez hain programatuek ongi bete zuten beren egitekoa: frantsesaren hegemonia beste hiztunoak gehiegi asalatu gabe segurtatu, alegia.

Iraultzaren garrantzia ukaezina da frantsesaren historian: frantses-hiztunoak eta Hexagonoko beste glotoetnikiek ez zuten aurreko mendeetan halako teorizazio politiko-linguistikorik eta hain presakako ekinkizun politiko praktikorik ezagutu; handik honako historia, berriz, hamarkada iraultzaile hark markatuta utzi du. Iraultza barnean ezaguturiko beste kontrapuntu argigarriek (federalismo linguistikoa, itzulpen-programak eta abarrek), garaile atera zen zentralismo linguistikoa azpimarratzeko balio izan dute gaurdaino, eta, gehienez ere, Iraultza-ondoko politika irabazlea berezko eta logikoa ez, baizik eta *hautapenezkoa* izan zela erakusteko balio.

Iraultzaren proiektu politikoan, hizkuntzari ere (frantsesari, noski) leku jakin bat eman zitzaion, tradizio ezagun bati jarraiki: *Hastapenak jarrita zeuden, eta bultzada, emanda. Frantzisko I.aren, Richelieu-ren, Colbert-en joerak, doktrina bihurtu ziren, eta Estatuaren doktrina. Hizkuntzak nazionala izan behar zuen eta nazionalitatearen funtsezko osagarrietako bat izan. Bere betekizuna bete zezan, Estatuak bere laguntza zor zion, (Brunot) Estatu-Nazioaren eraikuntzari ekiten zion unean.*

J. I.

LA POLITICA LINGUISTICA DE LA REVOLUCION

LA POLITIQUE LINGUISTIQUE DE LA RÉVOLUTION

De entrada se constata que la historiografía ha atendido tardía e insuficientemente a la historia de la política lingüística de la Revolución. Tras una breve descripción de la situación demolingüística del Hexágono en los años de la misma,

según datos que se difundían en los informes políticos de la época, el artículo alude al renovado interés con que los revolucionarios se cuidaron del tema político-lingüístico. Se señalan las dos fases contrapuestas dentro de la década de 1789-1799, delimitadas, en términos generales, por la así llamada reacción termidoriana.

En la primera de ellas, hay un pluralismo de propuestas ideológico-políticas acerca del tratamiento de las lenguas en la sociedad e instituciones republicanas: el "federalismo lingüístico", por una parte, y el centralismo lingüístico unitarista, por otra. La encuesta e informe del Abate Grégoire hizo que la política se basculara definitivamente hacia la segunda alternativa (1794).

A partir de aquel momento, se afianza la opción político-revolucionaria por el francés como única y exclusiva lengua de la vida oficial francesa. En las décadas que siguieron, esta vía progresará, aunque lentamente, hasta confirmar la hegemonía de la lengua de oïl en todo el ámbito territorial del nuevo régimen, sin que puedan detectarse vacilaciones significativas al respecto. La ideología revolucionaria prevalente condenó a las tinieblas exteriores a las comunidades etnolingüísticas del Hexágono.

Dès le début, on constate que l'historiographie s'est occupée tardivement et insuffisamment de l'histoire de la politique linguistique de la Révolution. Suite à une brève description de la situation démologique de l'hexagone ces mêmes années, selon les données diffusées dans les rapports politiques de l'époque, l'article fait allusion à l'intérêt rénové avec lequel les révolutionnaires ont tenu compte du thème politico-linguistique. Les deux phases opposées pendant la décade 1789-1799, délimitées en termes généraux par la dite réaction thermidorienne sont signalées.

Dans la première, il y a un pluralisme de propositions idéologico-politiques à propos du traitement des langues dans la société et les institutions républicaines: le "fédéralisme linguistique" d'une part et le centralisme linguistique unitariste d'autre part. L'enquête et le rapport de l'Abbé Grégoire a fait en sorte que la politique puisse basculer définitivement vers la deuxième alternative (1794).

Dès lors, l'option politico-révolutionnaire pour le français comme langue unique et exclusive de la vie officielle française se consolide. Dans les décades qui suivirent, cette voie progressera bien lentement jusqu'à la confirmation de l'hégémonie de la langue d'oïl dans tout le territoire du nouveau régime sans que l'on puisse détecter des vacillations significatives à ce sujet. L'idéologie révolutionnaire prédominante condamna les communautés ethnolinguistiques de l'Hexagone aux ténèbres extérieures.

GAIK

LIBURUAK



Mendekuaren literatura: Sadeko Markesaren *Justina*

Javier Rojo Cobos

1.- Aitortu behar dut neure buruari liburu hau¹ irakurtzeko asmoa aurkeztu nionean jakin-min bezainbeste aurreritzirekin egin nuela. Idazlearen izenak berak hainbat asoziazio ekartzen zituen gogora, esanahi orokor batean “krudelitatea” edo “tortura” bezalako hitzei lotzen zitzaizkienak. Honi osagarri sexuala gaineratzen bazitzaion, gizarteak eta moralak degenerazioaren puntu gorenak bailiran gaitzesten eta arbuiatzen zituzten ixileko joerak, izkutuko erlazio debekatuak agertzen ziren irudimenean. Baina izena aipatutakoan ia-ia automatikoki agertzen ziren aurreritzi horiek gorabehera, Sadeko Markesa eta beronen obra guztiz ezezagunak zitzaizkidan, beste askori bezala². Zeren, azken finean, haren obra izenak sortutako aurreritzi horiengatik izan bait da baztertua, surrealistek batzutan goraipatu zutenaren, deabruak izaki horren bidez inspiratutako obrak bailiran, eta honela askotan “sadismo” hitza erabiltzen da hitz hori sortzeko izena eman zuen idazlearen nortasuna eta lana ezagutu gabe.

2.- Sadeko Markesaren lanek eta izenak jasango zituzten gorabeherak ulertzeko, ezinbestekoa da bere bizitzari buruz zenbait ohar ematea³.

1740.ean jaio zen Parisen, familia aberats batean. Bere jatorriari zegokionez, nobleen heziketan espezializatutako zenbait ikastetxetan ikasi zuen, hauen artean jesuiten ikastetxe batean ere, eta esan daiteke kultura klasiko zabalaren jabe izan zela.

Bere bizitzan zehar askotan egon zen gartzelan, batez ere sexuari zegokiola zituen joera bereziengatik (sodomia, flagelazioa...). Honen ondorioz, heriotz zigorra ere ezarri zioten, nahiz eta zigor hau bere gorputzean ez, baina irudi batean gauzatu zen. Gartzelaldi hauetako garrantzitsuenak 1777.etik 1790.era bitartekoa izan zen, dudarik gabe, zeren hamahiru urteko epe horretan eta gartzelan jasandakoaren eraginez, hainbat eta hainbat eleberrri, ipuin eta teatro lan idatzi bait zituen, horien artean guri axola zaiguna. Gartzelaldi honek moraliki markatzeaz gain, fisikoki ere markatu zuen, zeren 1790.ean espetxetik atera zenean, gaixorik (arnasa hartzeko arazoak zituen, eta batzuen ustez "bulimia" izeneko gaixotasuna ere harrapatu zuen) eta erdi itsurik bait zegoen.

Gero politika arazoengatik ere atxikia izango zen berriro 1793.ean eta gilotinan hil beharrekoen zerrendetan egon zen, honetan ere heriotzatik libratu zenarren. Azkenik, 1801.ean buruaxoentzako etxe batean hil zen.

Guztira Sadeko Markesak ia-ia hogeitamar urte eman zituen giltzapean eta horrela pasatutako denboran egin zituen bere idazlan gehienak. Datu hau ezin ahantz dezakegu haren idazlanak irakurtzerakoan.

Bestaldetik, gartzelan sartzean bidegabe handia egin ziotela pentsatu izan zuen beti, berak bere burua errugabetzat bait zeukan. Libertinoa zela onartuarren, bere ustez, jende guztiak egiten zuen berbera egiten zuen berak ere, besterik ez. Beraz, batzutan badirudi ulertzen ez zuen konspirazio baten biktima sentitzen zela⁴.

3.- Sadeko Markesak hiru bertasio desberdinetan idatzi zuen gaur esku artean darabilgun eleberrri hau.

Lehenengo bertasioa 1787.ean egin zuen eta "Bertutearen atsekabeak" izeneko ipuina izan zen.

Kontakizun labur honetan oinarriturik, baina protagonistaren izena aldatuz (lehenengoan Sofia izeneko emakumea jarri zuen protagonista; bigarren honetan, ordea, Justina edo Teresa deituko da) eta gertaera gehiago sartuz, 1788.ean bigarren bertsioa, bi zatitan banatua, egin zuen. Bertsio honek, lantxo honetarako erabili dugunak, *Justina edo bertutearen atsekabeak* zuen izena eta 1791.ean argitara zen.

Hirugarren bertsioa 1797.ean agertu zen *Justina edo bertutearen atsekabeak, berriztatua eta Julieta haren ahizparen historiari jarraitua* izenarekin⁵. Hemen Justinaren historiari gertaera gehiago sartzeaz aparte, bigarren bertsioan laburtuta baizik ematen ez zen Julietaren historia ere garatzen da.

4.- Kontakizunaren argumentua (gogora dezagun hemendik aurrera esaten den guztia bigarren bertsioari, hots, *Justina edo bertutearen atsekabeak* izenekoari dagokiola) hauxe da:

Julieta eta Justina, oso gazte umezurtz geratutako ahizpak, heredentzian suertatu zitzaizkien diru apurrekin mundu zabalera joan ziren, nor bere aldetik. Julietak delituaren bidea aukeratu zuenarren, ezin hobeto egokitu zitzaizkion gauzak eta azkenean Corville-ko jaun gorenaren maitalea bihurtu zen.

Behin batean Montargis ondoan lur-sailak erosi nahi zituztela eta, hara joan ziren Julieta eta Corville-ko jauna eta ostatuan zeudenean ikusi zuten nola Lyon-etik zetorren diligentzian emakume bat preso zekarten, Parisera eramateko asmoz. Emakume honek bere jatorria ez zikintzeagatik egiazko izena esan nahi ez zuenez, Teresa zeritzala zioen, baina eleberriaren azkenean argituko den bezala, Justina, Julietaren ahizpa, zen.

Orain arte kontatutako guztia benetako kontakizunaren aurkezpena besterik ez da, zeren momentu honetatik aurrera Justinak bere gain hartuko bait du narrazailearen papera, Julieta eta Corville-ko jaunari bere atsekabeen historia kontatzeko.

Horrela jakingo dugu nola, umezurtz geratu zenetik, Justina, berari zegokion lan-mota bat bilatzen saiatu zen, baina egiten zizkieten proposamen lizunak zirela eta, kostatzen zitzaion bere gogoko lanik aurkitzea.

Azkenean, eta apopilo zegoen etxeko andrearen bitartez, lukurrari baten etxean lortu zuen zerbitzari lana. Baina nagusiari egin ez zion lapurketa batengatik, Parisetik ihes egin beharrean

aurkitu zen, Lyon eta Grenoble-ra zeraman bidea hartuz. Bidaia honetan bere onberatasunez probetxatuko diren pertsonai desberdinekin aurkitu zen Justina, eta bortxaketak, torturak eta milaka atsekabe jasan ondoren, gendarmeen eskuetan jausi zen eta, heriotz zigorrera kondenatuta zegoenez, kondena hau betetzeko Paris-era eramaten zuten. Bide honetan aurkitu zuen Julieta.

Justinak historia hau kontatu ondoren, konturatu zen Julieta norekin zegoen hizketan eta Corville-ko jaunaren bitartez laguntzen saiatu zen. Horrela, Corville-ko jaunak bere gain hartu zuen Justinaren ardura eta bere etxera eraman zuen.

Egun batean eta emakume horren bizitzan atsekabeak amaitu zirela zirudienean, ekaitz izugarri bat gertatu zen eta tximist batetik jo eta hil egin zuen. Julieta, hori ikustean, gizarte-egoera on horretara eraman zuen delituaren bidez damututa, erreformatu eta konbentu batean sartzea erabaki zuen.

Laburpen honetan aipatu besterik egin ez badugu ere, eleberraren parterik garrantzitsuen eta luzeena Justinaren bidaien eta abenturen kontakizuna da. Hemen kontakizun enmarkatuen teknika erabiliz, Justinak bere abentura mingotsak kontatzen ditu: Hor daude, besteak beste, medikuntzaren onerako bere alaba torturaz hil nahi zuen medikuaren historia; diru kopururik txikiena ere lortzeko edonor hiltzeko gauza ziren lapurrak; bere izeba akabatu nahi zuen homosexuala; emakumei torturarik eta umiliaziorik handienak sufri erazten zizkieten beneditarren monastejiaren historia (narraziorik luzeena eta beharbada pornografiakoena); bere biktimak odolusten orgasmoa lortzen zuen gizona; emakumeak abere lanetan erabiltzen zituen faltsifikadorea; neska gazteei burua ebakitzen bakarrik plazerra lortzen zuen pertsonaia izengabea; juje homosexuala... Eskena guzti hauek pornografiaren eta biolentziaren betetik daude, esan denagatik suposa daitekenez.

Horieta dira narraziorik garrantzitsuenak; hauez gain, beste kontakizun labur batzuk ere agertzen dira batzutan, baina ez dute aipatu garrantzia, ezta luzeera ere. Istorio hauek guztiz independenteak dira eta eleberriarri batasuna ematen diona Justinaren presentzia da, nahiz eta honetan salbuespen batzuk badauden, pertsonaia batzuk errepikatzen bait dira pasarte desberdinetan: Dubois izeneko emakumea, Justina lehenengo aldiz gartzelan egon zenean handik ihes egiten lagunduta gero, lapur talde batean sartarazi zuena; Saint-Florent deitzen zen gizon aberatsa,

Justina lehenengoz bortxatu zuena; eta Antonino, benediktarren monastegiko bat. Hauek eleberriaren azkenean agertzen dira berriro, Justina atxiloturik egon eta berak ezagututako jendeari laguntza eskatu zionean. Zer esanik ez, laguntza hau ez zen inondik ere agertu eta atsekabe gehiago besterik ez zioten ekarri pertsonaioak.

Abentura hauetan pertsonaia hauek beren biktimizez sexualki probetxatzen dira, eta dena zilegi zaien eskena-segida osatzen dute: Pertsonaioak bortxatu, torturatu, umiliatu, hil egiten dituzte beren biktimak helburu bakar batekin: beti plazerraren gailurrea ailegatzeko asmoarekin.

Pertsonaia bakoitzak besteengandik bereizten duen bere aberazio partikularra badauka ere, guztietan joera beretsuak agertzen direla esan daiteke: Ia guztiei, bai emakumeekin bai gizonekin daudenean, gustokoa zaie sodomia, eta biktima ahulei mina egin behar diete plazerra lortzeko.

5.- Baina orain arte esandako guztiak liburu honi buruz ideia okerra sor lezake eta pentsa liteke idazlan hau jokaera sexual desberdinen bilduma besterik ez dela; baina ez da honela gertatzen, zeren orrialde horietan zehar pornografiak gain, jokaera horiek justifikatzen dituzten pentsamendu filosofikoak ere bai bait daude. Beraz, esan genezake, garaiko literatur teoriari jarraituz didaktikoa dela, konportamendu horien kausa filosofikoak argitzen eta erakusten saiatzen den aldetik.

Zati pornografikoa, "sadismo" hitza aipatzean berez burura datorkigun ideiarenean imajina izango litzateke, hau da, jendeak sadismoaz gutxi gorabehera ulertzen duena. Baina gutxi gorabeherako ideia hau, zehazki zer den jakin ez baina honelako asoziazio bereziak ekartzen dituena, ez da pentsamendu filosofiko baten ondorioa baizik, merezimendu guztiekin "sadismo" izena eduki beharko lukeen filosofiaren ondorioa, hain zuzen⁶.

Ikus dezagun orain zeintzuk diren filosofia horren hasitapenak.

Pentsamendu honen abiapuntuan Naturaleza aurkitzen da. Naturaleza, bere helburua lortzeko, bi indarrez baliatzen da, egiteaz eta desegiteaz, bizia emateaz eta kentzeaz. Eleberri honetan garatzen den teoriarik bi baliabide natural hauek gizakien izaeran ongiarekin eta gaizkiarekin, bertutearekin eta krimenarekin parakatzen direnez, bi osagarriok berezkoak dira, bai krimena, bai

bertutea Naturalezaren helburuarekin bat datozelako. Beraz, esan daiteke gizakiek ongiaren zein gaizkiaren bidez betetzen dutela Naturalezaren helburua, biak joera naturalak direlako.

Joera hauek Naturalezak berak inspiratzen dituenez, kirtenkeria handia da nork bere joerari ez jarraitzea; are gehiago, sentimendu hauek naturalak izanik, horixe izango litzateke, pertsonai gaizkileen ustez, egon litekeen delitu bakarra: Naturalezaren kontra joatea.

Libertinoek krimenerako duten joera guztiz berezkoa eta naturala dela frogatzeko, liburuan zehar hainbat eta hainbat adibide jartzen dira, herri primitiboetan XVIII. mendean ezagutzen hasten direnez (beraz Naturalezari hurbilago dauden herrietan): Pazifikoko irltako gizarteak, Txina eta beste herri exotiko batzuk aipatzen dira honen frogagarri. Animalien mundua ere agertzen da aipatuta behin baino gehiagotan, horiek gizakiei jokatibidearen eredu naturalak ematen dizkietelako.

Baina Naturalezaren arabera joera bakoitza nori dagokion ebatzi behar da. Pentsa daitekeen bezala, indartsuei gaizkirako joera eta ahulei ongirakoa dagozkie; zeren Sadeko Markesaren pentsamenduan, edo hobeto esateko, libertinoen eritziz, bi giza-ki-mota daude: indartsuak, eta hauek beren indarrak probetxatu behar dute besteak menperatzeko; eta ahulak, indartsuek egin nahi dieten guztia jasan behar dutenak.

Talde bakoitza sentimentu berezi batzuek mugitu erazten dute: Indartsuek beren gorputzeko plazerra asetzeari bilatzen dute, eta hori egiteko edozein gauza egiteko "eskubidea" dute (nahiz eta hemen "eskubide" hitza egokia ez den, teoria hauetan ez bait dago eskubiderik, indarra baizik). Ahulek, ordea, ongiari emanak daudenez, gauza espiritualetan bilatu behar dute plazerra, zeren gauza fisikoetan indarraren faltaz ezin bait dute gaizkirako joera dutenekin konpetitu.

Indartsuek ahulekin dituzten harremanak argi badaude ere, arazoak sortzen dira indartsuen beraien arteko harremanetan, zeren badirudi elkar suntsitu beharko luketela indartsuago, boteretsuago izan nahi horretan. Baina ez da horrela gertatzen, zeren batzutan galtzaile ateratzen badira, bestetan irabazle suertatuko bait dira, beren arteko oreka ahulen lepotik mantenduz. Bestalde, berekoikeriak bultzatuta beren arteko gatatzak saihesteko, batzutan elkarri ez erasotzeko paktua egin dutela dirudi⁷.

Indartsuak, normalean, garaiko gizartean pertsona garrantzitsuak dira: Batzutan fama oneko juleak; bestetan, santu hotseko apezak; pertsona aberatsak; medikuak; hitz batean, gizarteko zutabe nagusizat hartu ohi diren pertsonak. Baina egoera eta gizartean duten itzala gordetzearren, sekretupean mantendu behar dituzte bere joerak.

Kasu bakan batzuetan libertino hauek lapurrak edo faltsifikadoreak izan daitezke, baina bere joko zikinei esker eta libertino guztiei laguntzen dien zorte onagatik, aberastu eta gizartean onartutako pertsonai garrantzitsuak izatera iristen dira askotan.

Ahulen eredia emakumea izaten da, baina eleberri honetan suertatu zaien papera jokatzeko ez du edozein emakumek balio. Gehienetan libertinoen nahikarien biktimak, bai fisikoki bai espirituali edertasunaren eredu izan daitezkeen emakume gazteak (umeak ia, batzutan) izaten dira; beste hitzetan esanda eta eleberririak daukan titulua parafraseatuz, esan daiteke bertutearen ereduak diren emakumeak delituaren biktimak bihurtzen direla.

Honetan ezin baztertuzko misoginia dago: Gizonek beren artean harremanak dituztenean, berdinen arteko harremanak izaten dira eta emakumeei mespretxuz begiratzen diete; gogora ditzagun, adibidez, izeba hil nahi zuen homosexualaren hitzak: "Jakin bazeneza zer sentitzen den emakumea besterik ez izateko ilusioarekin! (...) Sexu hori gorrotatu eta imitatu nahia" (123. orr.); bestetan, dudatan jartzen da emakumea pertsona den, eta honetarako Mâcon-eko kontzilioa aipatzen da, hor, dirudienez, arazo hori eztabaidatu zen eta (265. orr.). Hitz horiek erakusten duten mespretxua zapalketa bihurtzen da, pertsonai horiek beren jokoetarako emakumeak erabiltzen dituztenean; kasu horietan azken hauek jasan besterik ezin dute egin, ahulei dagokien bezala.

Libertinoen hitzetan aurkezten den gizarte teoria hau naturala izango litzateke. Baina egoera natural hau zuzendu nahian, Europako eta batez ere Frantziako zibilizazioa arautzen duen paktu soziala sortu zen: Honen ondorioz, egoera naturalean pertsona baten boterea indarraren baitan bazegoen, zibilizazioak inposatutako sisteman diruak erabakiko du norberaren lekua. Denon den, egoera berri honi bidea eman dion paktua ez da zuzena, zeren paktu batean parte hartzen duten alde guztiek zerbaitetan irabazle atera behar dutelarik, paktu honetan txiroek ez bait dute ezertxo ere lortzen⁸.

Gauzak honela, libertinoek, beren kontra egindako akordio baten aurrean daudela pentsatzen dutenez gero, beren eritziz, eskubidea dute paktu hori apurtzen saiatzeko, dagokien egoera bilatzeko eta, beraz, gizarteak besterik aginduarren, libertinoek beren joerekin jarraituko dute, joera hauek hemendik aurrera sekretuan gorde beharko badituzte ere, gizartean delitutzat hartuko direlako.

6.- Erljioari dagokiola, libertinoen ideologia batez ere materialismo ateoan oinarritzen da. Honen arabera, mundu hau materiala izanik, ez dago hemen kausa espiritualak bilatzerik. Beraz, Jainkoa, mundu material honen eragile espiritualak datekeen aldetik, ez da esistitzen. Honek, jakina, ondorio praktikoak dakartza libertinoen bizitzan: Hauen ustez, mundua gauza fisiko eta materiala denez eta jainkorik eta hil ondoko bizitzarik ez dagoenez, helburu bat besterik ez dute beren bizitza: Behar fisiko eta materialak asetzea.

Hauen biktimak, ostera, sinestunak izaten dira eta plazer espiritualak bilatzen dute, horrek bizitza honetan, baina batez ere hil ondoko bizitzan, zoriona ekarriko dielakoan.

Dena den, eta ideologia nagusia materialismoa bada ere, batzutan, Naturaleza aipatzen denean gehienbat, badirudi hastapen espiritualen bat dagoela, behin baino gehiagotan Naturalezaren helburuaz hitzegiten bait da, kontzientziaren jabe izango baiditza⁹.

Pertsonai libertinoen ustez, Jainkoa esistitu ez arren, batzutan esistituko baiditza hitz egiten dute eta orduan honela ikusten dute: Jainkoak, kristauek ulertzen duten bezalako izakia bada, krudela edo ahula izan behar du; ezin izan daiteke kristauek aldarrikatzen duten maitasunez betetako izaki ahalguztiduna. Hau azaltzeko, Saderi hainbeste gustatzen zaizkion azalpen logikoak erabiltzen ditu: bi modutan bakarrik sor daiteke Jainkoa bezalako izaki batengandik hau bezalako mundu miseriaz beteak; pentsa liteke, alde batetik, Jainkoak bere gogoz egin duela eta orduan honek esan nahi du izaki krudela dela, pertsonai sufriarazten bait die; bestalde, baliteke pentsatzen den bezain perfektua ez izatea, eta, kasu honetan, ezin izan du mundua hobeto egin. Beraz, Jainkorik izatera, ezin izan daiteke kristauek gurtzen duten Jainkoa. Honen ondorioz, libertinoek pentsatzen dute hobe dela esistitzen ez bada.

Kristoren figurari buruz ere hainbat gauza esaten dira. Honen jatorria dela eta, II. mendean korritzen zuen istorio batean oinarriturik¹⁰, esaten da emagaldu baten eta gudari baten semea dela. Beste irain askoren artean hauxe ere agertzen da: pertsonai horrek, miserabletan miserableenak, ez daukala inolako eskubiderik Jainkoaren semea dela esateko. Kristo hori iruzurtia besterik ez da.

7.- Une honetara ailegatuta, uste dut idazlan hau interpreta-
tzeko, hau da, neure ikuspegitik esanahiz betetzeko garaia dela:
Eta honetarako galdera honi erantzuten saiatuko naiz: Zergatik
idatzi zuen Sadek *Justina* hau?

Behin baino gehiagotan, idazleak berak esaten du gauza
hauek idatzi zituela libertinoen krudelkeria ikusita bertutearen
bidetik jarraitzera bultzatzeko. Baina, jakina, hauek bere hitzak
dira, eta nobela honek jasan zituen gorabeherak ikusita, ez gaitu
harritu behar horrelako justifikazio moralistak jartzen baditu.
Baina eleberriaren prologoan esaten dituen gauza hauez gain,
badago eritzi honetara bultza dezakeen zenbait elementu, adibi-
dez, idazlanaren azkeneko Julietaren konbertsioa.

Beraz, hasiera batean irakurleek bere eleberria moralistatzat
har dezaten nahi du, bertutearen bidea erakutsi nahi duela adie-
razten duen aldetik; gero, idazlanak pasa eraziko dizkion arazo-
ak ikusita (zeren inork ez zuen haren helburu moralistan sines-
ten), gero esango du ez duela horrelako gordinkeriarik idatzi.

Bestaldetik, pentsa liteke bere ideologia libertinoa erakuste-
ko idatzi zuela, zeren azken finean eleberri osoak pertsonaia li-
bertino batzuen ideologia erakustera jotzen bait du; baina hau
neurri batean egia bada (autorea libertinoa izan zen, eta, behar-
bada, bere pertsonaien ideologia eduki zuen gartzelan sartu au-
rretik), idatzi behar zueneko egoera kontutan hartzen badugu,
beste arrazoi batzuk bilatu behar direla uste dut.

Esan den bezala, libertinoa izateagatik sartu zuten gartzelan;
baina libertinoa zela onartuarren, ez zuen horretan inolako krimenik
ikusten. Leporatzen zioten krimenik handiena sedukzioa-
rena izan zen; baina, bere ustez, hau ez zen egia, zeren berarekin
egon ziren emakumeak aurretik perbertituta zeudenez (prostitu-
tak izaten ziren), ez bait zuen inolako sedukziorik egin.

Gauza hauek kontutan hartuta, hauxe da nik proposatzen du-
dan irakurketa: Idazlan honen oinarrian bera gartzelan sartu
zuen gizartearen kontrako mendekuaren gogoia aurkitzen da.

Zenbait oker egin zituen, eta garaiko moralagatik sartu zuten gartzelan. Autorearen mendekua izango litzateke, leporatzen zizkieten krimenak gizartean zutabe nagusiak ziren estamentuetan askoz handituago jartzea, bera juzgatu zutenak (batez ere, Eliza, moralara inposatzen bait du; eta jujeak, zigorrak materialki ezartzen dituztelako) kriminalik handienak zirela erakusteko.

Esan dezakegu, amaitzeko, idazlea pertsonaia desberdinetan banatzen dela: alde batetik, libertinoek Sadeko Markesaren ideologia, behintzat gazte denborako ideologia, erakusten dute nolabait; baina, bestaldetik, idazleak bere burua arrazoirik gabe justiziak zapalduta ikusten du; Justina da egoera hau isladatzen duen pertsonaia.

Azken finean, bai Justina, bai libertinoak, denak dira Sadek sortutako izakiak.

-
- ¹ Erabili dudan edizioa hauxe izan da: Marqués de Sade, *Justina o los infortunios de la virtud*, Ed. Cátedra, Madrid, 1985. Isabel Brouard-ek egindako "Introducción" batekin.
 - ² Isabel Brouard-ek adierazten duenez, Sadeko Markesaren idazlan guztien lehenengo argitarapen frantsesa 1962.ekoa da; gazteleraz ia ezinezkoa da itzulpenik aurkitzea 1970.era arte.
 - ³ Idazlearen bizitzari buruzko datuak eta eleberriaren argitarapenei dagozkienak I. Brouard-en hitzaurretik hartuta daude.
 - ⁴ "Sadeko jaunak mundu guztiak egiten duena egin du (...). Hala ere krimenik beltzenen erruduna izango bailitzan zigortzen eta sufri arazten diote" (Sadeko Markesak Sadeko andreari idatzitako eskutitz batetik, 1781.ean; eleberriaren prologoan aipatua).
 - ⁵ Gazteleraz tituluak honela dio: *La Nueva Justina o los Infortunios de la Virtud, seguida de la Historia de Julieta, su hermana*. Ez dakit hemen proposatzen dudan itzulpena egokia izango den.
 - ⁶ Hala ere, gogoratu behar dugu filosofia hori pertsonaia berezi batzuen (libertinoen) filosofia dela; Sadeko Markesak filosofia hori zein neurritan onartzen zuen jakitea, noski, korapilotsuagoa da. Dena den, lantxo honen azkenean arazo hau argitzen saiatuko naiz.
 - ⁷ Hau hirugarren bertsioan argiago gertatzen omen da, libertino guztiak konplot baten partaideak dira eta.
 - ⁸ Hau esatean, Sadeko Markesak paktua beronen baitatik arbiatu nahi du; hau da, paktuak ez dio bere barruko logikari eusten.
 - ⁹ Naturelezaren ikuspegi honetan, beharbada, erdi izkutuko prerromantizismoa egon daiteke. Hau dela eta, I. Brouard-ek, idazleak sortzen dituen giroetan (gazteluak, leku laiozak eta ilunak, etab.) erromantikoek erabiltzen dituzten elementu berak agertzen direla oharturik, Sadeko Markesa prerromantizismoa egon daiteke.

mantikoa dela esango du (42. orr.). Dena den, gorputzaren garrantzia aztertzen duelarik, Octavio Paz-ek Ilustrazioko idazletzat hartuko du, zeren "Sade no es un autor pasional; sus delirios son racionales y su verdadera pasión es la crítica. Se exalta, no ante las posiciones de los cuerpos, sino ante el rigor y el brillo de las demostraciones". *Los hijos del limo*, Seix Barral, Barcelona, 1897, 58-9. orr.

¹⁰ Istorio hau judutarrek asmatu omen zuten (125. orrialdeko oharrean esaten da). Bere izeba hil nahi zuen homosexualak esaten ditu irain hauek eleberrian.

Jaso ditugu

- AHAMENDABURU, Jakes: **Isilka Misilka**, Maiatz, Baiona, 1988, 17 × 12 cm. 144 or.
- AMEZTOI, Koldo: **Dena dela... Lapurdiko**, Maiatz, Baiona, 1988, 17 × 12 cm. 175 or.
- ASIMOV, Isaac: **Unibertsoa. Lur launetik kuasareetaraino**, (euskaratzailleak: ABRISKETA, J.I.; IRAZABALBEITIA, I.; Elhuyar), Elkar, Donostia, 1988, 20 × 13,5 cm. 354 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Bapatean 88**, Elkar / EHBE, Donostia, 1989, 21 × 13,5 cm. 290 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Ciencias Naturales. Cuadernos de Sección. 5**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989, 24 × 17 cm. 363 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Derecho y Economía en el Estado Social**, (ed. CORCUERA ATIENZA, Javier; GARCIA HERRERA, Miguel Angel), Tecnos, Madrid, 1988, 23 × 17 cm. 196 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I-II. (Gai aurkibidea)**, Euskaltzaindia, Bilbo, 1988, 24 × 17 cm. 110 or.
- ASKOREN ARTEAN: **"Salbatore Mitxelena Saria" Literatur Lehia-keta. 1987 Saria**, Zarautz-ko Udala, Zarautz, 1988, 20,5 × 15,5 cm. 61 or.

- ASKOREN ARTEAN: **Sociología del Nacionalismo**, (ed. PEREZ-AGOTE, Alfonso), EHU / E.J., Bilbo, 1989, 24 × 16,5 cm. 393 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Tene lehiaketa 1988**, Elkar, Donostia, 1988, 19 × 12 cm. 155 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Biología Ambiental (Actas del Congreso de Biología ambiental)**. Tomo I. EHU / E.J., Bilbo, 1988, 24 × 17 cm. 480 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Biología Ambiental (Actas del Congreso de Biología ambiental)**. Tomo II. EHU / E.J., Bilbo, 1988, 24 × 17 cm. 459 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Cambio social actual y estructura de las empresas**, (ed. LARREA GAYARRE, José), Deusto, Bilbao, 1988, 23,2 × 15,5 cm. 403 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Constitución y Economía en España: Gobierno de la Economía y Administraciones Públicas**, (Koord. CORCUERA ATIENZA, Javier; GARCIA HERRERA, Miguel Angel), HAAE / IVAP, Oñati, 1988, 24×17 cm. 393 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Drogazaletasun biltzarra. Disziplinarteko Azterketa. I. Atala / Congreso de Drogodependencias. Análisis multidisciplinar. Tomo I.** E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 29 × 20 cm. 238 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Drogazaletasun biltzarra. Disziplinarteko Azterketa. II. Atala / Congreso de Drogodependencias. Análisis multidisciplinar. Tomo II.** E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 29 × 20 cm. 389 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Drogazaletasun biltzarra. Disziplinarteko Azterketa. III. Atala / Congreso de Drogodependencias. Análisis multidisciplinar. Tomo III.** E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 29 × 20 cm. 246 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Drogazaletasun biltzarra. Disziplinarteko Azterketa. IV. Atala / Congreso de Drogodependencias. Análisis multidisciplinar. Tomo IV.** E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 29 × 20 cm. 352 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Egitura-material berriei buruzko biltzarra / Congreso de nuevos materiales estructurales**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 29 × 20 cm. 530 or.

- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **El empresario en la sociedad actual**, (Koord. SANTACOLOMA SANZ, Juan Francisco), Deusto, Bilbo, 1988, 23,5 × 15,5 cm. 201 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **El sector primario en el siglo XXI**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Aedos, Gasteiz / Barcelona, 1988, 24 × 17 cm. 475 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Energía Biltzarra / Congreso de Energía I. Alea**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 29 × 20 cm. 319 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Energía Biltzarra / Congreso de Energía II. Alea**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 19 × 20 cm. 427 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **La crisis del Estado y Europa**, HAEE / IVAP, Oñati, 1988, 24 × 16,5 cm. 255 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **La empresa vasca en el espacio europeo**, (Koord. RODRIGUEZ CASTELLANOS, Arturo), Deusto, Bilbo, 1988, 23,5 × 15,5 cm. 338 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Los Derechos Históricos Vascos**, HAEE / IVAP, Oñati, 1988, 24 × 17 cm. 399 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Ordenación del territorio y medio ambiente**, HAEE / IVAP, Oñati, 1989, 24 × 16,5 cm. 616 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Planificación de la educación y mercado de trabajo**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Narcea, Gasteiz / Madrid, 1988, 24 × 17 cm. 222 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Problemas de la nutrición en las sociedades desarrolladas**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Salvat, Gasteiz / Barcelona, 1988, 25 × 17 cm. 306 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Razón, ética y política. El conflicto de las sociedades modernas**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia (Anthropos, Gasteiz / Barcelona, 1988, 20 × 13 cm. 222 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **"Márgenes continentales de la Península Ibérica"**, *Revista de la sociedad geológica de España. Vol. I (3-4) - 1988*, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Sdad. Geológica de España, Gasteiz / Madrid, 1988, 29,5 × 21 cm. 441 or.
- ASKOREN ARTEAN; II. E.M.B.: **Tecnología y educación**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Narcea, Gasteiz / Madrid, 1988, 24 × 17 cm. 303 or.

- AXULAR: **Guero**, Euskaltzaindia, Bilbo, 1988, 16,5 × 10,5 cm. 621 or.
- AZKUNE, I.; IRAZABALBEITIA, I.: **Geologia. Oinarrizko hiztegia**, Elhuyar, Donostia, 1988, 29,5 × 20,5 cm. 128 or.
- BOLL, Heinrich: **Katharina Blumen ohore galdua**, (euskaratzailea: ZABALETA, Pello), Elkar, Donostia, 1989, 19 × 11,5 cm. 127 or.
- BORDA, Itxaro: **Just Love**, Maiatz, Baiona, 1988, 17 × 12 cm. 96 or.
- BOSTAK BAT: **Sinonimoen hiztegia. Autonomoduna**, Egile editore, Bilbo, 1988, 23 × 16,5 cm. 292 or.
- DIAZ PEÑALBA, Tomás: **Legado musical de Julián Romano (Repertorio de música para dulzaina). Cuadernos de Sección, Folklore 2**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989, 24 × 17 cm. 200 or.
- DONOSTIA, Padre: **Obras completas del P. Donostia I. Artículos**, (prestatz. RIEZU, Jorge de), La Gran Enciclopedia Vasca / Gipuzkoako Foru-Diputazioa, Bilbo / Donostia, 1983, 24 × 17 cm. 497 or.
- DONOSTIA, Padre: **Obras completas del P. Donostia II. Artículos**, (prestatz. RIEZU, Jorge de), La Gran Enciclopedia Vasca / Gipuzkoako Foru-Diputazioa, Bilbo / Donostia, 1983, 24 × 17 cm. 507 or.
- DONOSTIA, Padre: **Obras completas del P. Donostia III. Diarios reseñas**, (prestatz. RIEZU, Jorge de), La Gran Enciclopedia Vasca / Gipuzkoako Foru-Diputazioa, Bilbo / Donostia, 1983, 24 × 17 cm. 422 or.
- DONOSTIA, Padre: **Obras completas del P. Donostia IV. Conferencias**, (prestatz. RIEZU, Jorge de), Eusko Ikaskuntza / Gipuzkoako Foru-Diputazioa, Donostia, 1985, 24 × 17 cm. 504 or.
- DONOSTIA, Padre: **Obras completas del P. Donostia V. Conferencias**, (prestatz. RIEZU, Jorge de), Eusko Ikaskuntza / Gipuzkoako Foru-Diputazioa, Donostia, 1985, 24 × 17 cm. 375 or.
- ELHUYAR BIOLOGI TALDEA: **Biologiaren hastapenak**, Elkar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 520 or.
- ELHUYAR EKONOMI TALDEA: **Balantzeen analisisa**, Elkar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 190 or.

- ELHUYAR FISIKA ETA KIMIKA-TALDEAK; ALKAIN, P.: **Fisika eta kimikazko ariketak. 9. Zinematika. Irakaskuntza Ertainak**, Elkar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 112 or.
- ELHUYAR FISIKA ETA KIMIKA-TALDEAK; IRAZABALBEITIA, I.: **Fisika eta kimikazko ariketak. 10. Nomenklatura eta formulazio kimikoa. Irakaskuntza Ertainak**, Elkar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 89 or.
- ELHUYAR FISIKA ETA KIMIKA-TALDEAK: **Fisika eta kimikazko ariketak. 11. Dinamika. Irakaskuntza Ertainak**, Elkar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 112 or.
- ELHUYAR GEOLOGI TALDEA: **Hirugarren planeta. Geologia UBI**, Elkar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 597 or.
- ELHUYAR MATEMATIKA-TALDEA: **Matematikazko ariketak. 4. Polinomioak. Irakaskuntza Ertainak**, Elkar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 111 or.
- ELHUYAR MATEMATIKA-TALDEA: **Matematizkazko ariketak. 5. Zenbakiak. Erroketa eta berreketa. Irakaskuntza Ertainak**, Elkar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 103 or.
- ELHUYAR MATEMATIKA-TALDEA; ARROJERIA, E.: **Matematikazko ariketak. 3. Plano afina eta konikak. Irakaskuntza Ertainak**, Elkar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 223 or.
- ELHUYAR MUSIKA-TALDEA: ARANA MARTIJA, J.A.; IRIARTE or-MAZABAL, M.; MURUAMENDIARAZ ARANBURU, N.: **Musikaren historia. BBB-1**, Elkar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 255 or.
- ENRIQUEZ FERNANDEZ, Javier: **Colección Documental de la villa de Plencia (1299-1516)**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1988, 23 × 16 cm. 342 or.
- ENRIQUEZ FERNANDEZ, Javier: **Colección Documental del Archivo Municipal de Marquina (1355-1516)**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989, 23 × 16 cm. 432 or.
- ETXEBARRIA, Jon Gotzon: **Grezia-ko olerkari liriko zaharrak**, Egile editore, Gernika, 1989, 21,5 × 15,5 cm. 49 or.
- ETXEBARRIA, Jon Gotzon: **Irrintzi isila (I)**, Egile editore, Gernika, 1988, 16,5 × 12 cm. 72 or.
- ETXEBARRIA, Jon Gotzon: **Katulo (Olerkiak)**, Egile editore, Gernika, 1989, 17 × 11,5 cm. 47 or.

- ETXEBARRIA, Jon Gotzon: **"Lauaxeta" dela eta**, Egile editore, Gernika, 1988, 16,5 × 12 cm. 49 or.
- ETXEBARRIA, Jon Gotzon: **Sapho (Olerkiak)**, Egile editore, Gernika, 1989, 17 × 11,5 cm. 45 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren berezko mugimendua. 1861-1983 / Movimiento natural de la población**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 25,5 × 20,5 cm. 210 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera (B.I.A.) 10/1988 / Encuesta de población en relación con la actividad. (P.R.A.)**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 25,5 × 21 cm. 52 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera (B.I.A.) 11/1988 / Encuesta de población en relación con la actividad (P.R.A.)**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 25,5 × 21 cm. 52 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera (B.I.A.) 12/1988 / Encuesta de población en relación con la actividad. (P.R.A.)**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 25,5 × 21 cm. 52 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera (B.I.A.) IV/1988 / Encuesta de población en relación con la actividad (P.R.A.)**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 25,5 × 20,5 cm. 171 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Euskadiko K.A.ko Input-Output taulak. Input-Output taulak / Tablas Input-Output de la C.A. de Euskadi. Tablas Input-Output**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 25,5 × 21,5 cm. 447 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Euskadiko K.A.ko Input-Output taulak. Metodologia eta oinarrizko informazioa / Tablas Input-Output de la C.A. de Euskadi. Metodología e Información básica**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 25,5 × 20,5 cm. 398 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Euskadiko K.A.ko Kontu Ekonomikoak. 1985 / Cuentas Económicas de la C.A. de Euskadi**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 25,5 × 21 cm. 183 or.

- EUSKAL ESTATISTIKA-ERAKUNDEA: **Euskal Urtekari Estatistikoa. 1988 / Anuario Estadístico Vasco**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1989, 25,5 × 20,5 cm. 529 or.
- EUSKAL ESTATISTIKA-ERAKUNDEA: **Irakaskuntzaren Estatistika 87/88 / Estadística de la Enseñanza**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1989, 25,5 × 21 cm. 217 or.
- EUSKAL ESTATISTIKA-ERAKUNDEA: **Ospitale estatistika 1987 / Estadística hospitalaria**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 25,5 × 21 cm. 145 or.
- EUSKAL ESTATISTIKA-ERAKUNDEA: **Ospitalez kanpoko estatistika publikoa 1987 / Estadística extrahospitalaria pública**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 25,5 × 21 cm. 48 or.
- FLAUBERT, Gustav: **Bihotz apala**, (euskaratzailea: SANTISTEBAN, Karlos), Kriselu, Donostia, 1987, 20,5 × 14 cm. 61 or.
- GALARRAGA, Roberto: **Marrazketazko ariketak. 1. Sistema diedrikoa**, Elhuyar, Donostia, 1988, 29,5 × 20,5 cm. 159 or.
- GOETHE: **Werther**, (euskaratzailea: LOBERA REVILLA, Gotzon), Kriselu, Donostia, 1987, 20 × 12 cm. 151 or.
- GUIMON, J.: MEZZICH, J.E.; BERRIOS, G.E.: **Diagnóstico en Psiquiatría**, Salvat, Barcelona, 1989, 26 × 18,5 cm. 417 or.
- HARITSCHELHAR, J.; KNORR, E.; UGALDE, M.: **Koldo Mitxelena (1915-1987)**, (zuz. INTXAUSTI, Joseba), E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 23,5 × 21,5 cm. 12 or.
- HARRISON, Andrew: **Hizkuntz testak** (euskaratzailea: LARRAMENDI, Usoa), Habe, Donostia, 1988, 21,5 × 15 cm. 135 or.
- INGEBA: **Inventario cartográfico de Guipúzcoa**, Ingeba, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 617 or.
- IÑURRIETA AMBROSIO, Esperanza: **Colección Diplomática del Archivo Municipal de Salvatierra 1256-1400**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989, 23 × 16 cm. 188 or.
- IONESCO, Eugene: **Erregearen herioa**, (euskaratzailea: AGIRRE ESKISABEL, Jose Mari), Kriselu, Donostia, 1987, 20 × 12 cm. 168 or.
- IRAZABALBEITIA FERNANDEZ, I.: **Prekozenoen sintesibidean. Anetol eta deribatuen erazteun aromatikoen hidroxilazio eta nitrazioa**, EHU / UVP, Bilbo, 1986, 23,5 × 17 cm. 47 or.

- IZTUETA, Paulo, N.: **Ormaetxea "Orixe" (1888-1961)**, (zuz. INTXAUSTI, Joseba), E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 23,5 × 21,5 cm. 12 or.
- JIMENO JURIO, José María: **Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza**, Euskaltzaindia, Bilbo, 1989, 26 × 16 cm. 350 or.
- KRISOSTOMO, San Joan: **Urrezko hitzak**, (euskaratzailea: ETXEBARRIA, Jon Gotzon), Egile editore, Gernika, 1989, 17 × 11,5 cm. 29 or.
- LEKUONA, Joan Mari: **Manuel Lekuona (1894-1987)**, (zuz. INTXAUSTI, Joseba), E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 23,5 × 21,5 cm. 12 or.
- MENDIGUREN, Xabier: **Montse-txikiren azio handiak**, Gipuzkoako Foru-Aldundia / Zarautz-ko Udala, Donostia, 1989, 20 × 17 cm. 46 or.
- MINTEGI, Laura: **Julene Azpeitia (1888-1980)**, (zuz. INTXAUSTI, Joseba), E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 23,5 × 21,5 cm. 12 or.
- MITXELENA, Koldo: **Euskal idazlan guztiak. I. Bertso berriak, berriketan, zinea eta adabakiak**, (prestatz. ALTUNA, Patxi), Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 19,5 × 13,5 cm. 278 or.
- MITXELENA, Koldo: **Euskal idazlan guztiak. II. Liburuak I**, (prestatz. ALTUNA, Patxi), Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 19,5 × 13,5 cm. 166 or.
- MITXELENA, Koldo: **Euskal idazlan guztiak. III. Liburuak II**, (prestatz. ALTUNA, Patxi), Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 19,5 × 13,5 cm. 177 or.
- MITXELENA, Koldo: **Euskal idazlan guztiak. IV. Literaturaren inguruan I**, (prestatz. URGELL, Blanka), Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 19,5 × 13,5 cm. 148 or.
- MITXELENA, Koldo: **Euskal idazlan guztiak. V. Literaturaren inguruan II**, (prestatz. URGELL, Blanka), Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 19,5 × 13,5 cm. 158 or.
- MITXELENA, Koldo: **Euskal idazlan guztiak. VI. Hizkuntzalaritzaz I**, (prestatz. LAKARRA, Joseba), Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 19,5 × 13,5 cm. 207 or.

- MITXELENA, Koldo: **Euskal idazlan guztiak. VII. Hizkuntzalaritzaz II**, (prestatz. LAKARRA, Joseba), Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 19,5 × 13,5 cm. 207 or.
- MITXELENA, Koldo: **Euskal idazlan guztiak. VIII. Artikuluak eta beste I**, (prestatz. SARASOLA, Ibon), Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 19,5 × 13,5 cm. 200 or.
- MITXELENA, Koldo: **Euskal idazlan guztiak. IX. Artikuluak eta beste II**, (prestatz. SARASOLA, Ibon), Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 19,5 × 13,5 cm. 165 or.
- OPARIN, A.I.: **Biziaren jatorria**, (euskaratzaileak: ALTONAGA, K.; ETXAIDE, M.); Elkar, Donostia, 1988, 20 × 13,5 cm. 102 or.
- P'U SUNG-LING: **Itsasoko mamuak**, (euskaratzaileak: SANTISTEBAN, Karlos), Kriselu, Donostia, 1987, 20 × 12 cm. 49 or.
- PEILLEN, Txomin: **Paristar euskaldun bat (ni... neu)**, Kriselu, Donostia, 1987, 17,5 × 11 cm. 102 or.
- RIXON, Shelagh: **Entzumena lantzen**, (euskaratzailea: LARRAMENDI, Usoa), Habe, Donostia, 1988, 21,5 × 15 cm. 109 or.
- RODRIGUEZ IBABE, J.M.: **Materialen portaera elastikoa eta plastikoa**, Elhuyar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 123 or.
- RUBIN, Joan; THOMPSON, Irene: **Nola izan hizkuntz ikasle arrakastatsua**, (euskaratzailea: LARRAMENDI, Usoa), Habe, Donostia, 1988, 21,5 × 15 cm. 121 or.
- SANTOLAYA JIMENEZ, J.M.; DELGADO RUBIO, A.; II. E.M.B.: **Displasias oseas**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Salvat, Gasteiz / Barcelona, 1988, 26,5 × 19 cm. 778 or.
- VOLTAIRE: **Mikromega**, (euskaratzailea: SANTISTEBAN, Karlos), Kriselu, Donostia, 1987 20 × 12 cm. 69 or.
- ZAMORA, Auxtin: **Hatsaren bustia**, Maiatz, Baiona, 1988, 17 × 12 cm. 96 or.
- ZUAZO ZELAIETA, Koldo: **Euskararen Batasuna**, EHU / Euskaltzaindia, Bilbo, 1988, 23 × 16 cm. 430 or.

JAKIN

IRAULTZA FRANTSESA 1789-1989

**Gertakariak
Ideologiak
Estatua eta nazioak
Hizkuntzak
Euskal Herria**

Martxoan
Apirila

51

1989

The logo for 'JAKIN' is rendered in a bold, black, serif typeface. The letter 'J' is particularly stylized, with a thick vertical stem and a curved top that loops back to the left. The 'A' is a simple, wide, triangular shape. The 'K' is composed of a vertical stem and a diagonal stroke that meets the stem at a sharp angle. The 'I' is a simple vertical bar with a small dot above it. The 'N' is a simple vertical stem with a diagonal stroke that meets it at the top. The overall appearance is that of a classic, slightly decorative serif font.

JAKIN

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. – 20013 Donostia
Tel.: (943) 27 17 13